

G O M U T A

B I Z I A K

(M E M O R I A S - V I V E N C I A S)


Patxi Bilbao Atxikallende

(ABADE EUSKALDUNA)

PATXI: INOZ INPRENTAZ ARGITARA
TZEKO GRABAGIA ARIZEN BO'DOZU,
AZKAYENGO IKUTUTXU BAT EGIN GU-
RA NEUSKID (TZULPEN ONERI,
INPRENTAKO PRUEBAI.

AZAL BAKOTXAK AURREAN JARDAN
ZEN BAKI IDATZIA ER DA BESTENIK
NEURE ORDENAGAILUAKO RE-
FRENZIA BAKIND. KENOU EGIT BEAR
DA INPRENTARAKO.

EDERRO DAGOZ
P.D. EZ DAKIT
ORDENAGAILUA
ONDO ERABILGIN



ESKINTZA

DEUSTU'KO IKASTETXE NAGUSIA'n Edesti-arloan eta Eleiz-jakintzan
baimendun dan ALONSO TA KURIEL'dar FELI'ri

Eskerrik asko zeure laguntasun paregabeagaitik !!

PATXIBILBAO" k

AURKEZPENA

Feli Alonso da nire izena.

Parkatu lerro oneik erderaz egitea. Erederea da, izan be, nire amagandiko izkuntza Erderaz dira nire pentsamentuak eta agertu be erderearen berbakaz agertzen dodaz pentsamentu oneik. Euskerea ez jakitearen ordez argi agertzen dot euskereari dautsadan itzaltasuna eta ni oso-osoan euskerearen alde agertzea. Norkiak, lurraldea, izkuntzak maite doguzala errez agertzen da irainduak diranean. Orduan bai urduri jarten dala urdailletik urrean dagon gure biotza, orduan odola be berotu egiten da ezjakiñak egiten daben irain orregaitik. Izkuntza bat aintzat artzen ez danean, izkuntza ori egiten dauan erria da aintzat artzen ez dana.

Noiztikoa da nik euskereari dautsadan maitasuna? Ba, goiz baten erri-irratitik entzun neutson Antonio Burgos'eri. Gizon au auxe esatera ausartu zan: Euskerea dala txakurra, ETA, eta olako beste lau erokeri esateko baiflo gai ez dan izkuntza. Esan eta esan jarraitu eban eta arriarteko izkuntza onetan ezin leikela maitasuna aitatu be egin esan eban. Au dana liburu baten agertu da, ez dakit liburuaren idazpurua.

Eskutitz laburra ta zorrotza idatzi neutsan gizon orreri eta esan nautsan nire izkuntzarentzat ekatzen dodan itzaltasuna bera, eskatzen dodala beste izkuntzetariko bakotxarentzat Gizon bakoitxari jakon maitasuna, bere izkuntzamaitatzetik asten dala. Esan neutsan, gaiñera, arriarteko izkuntza orrek ba-daukazala berba oneik be: parkatu, jainkoa, laztana, mrra, bakea, anaitasuna, semea, ama, aita, maitea. Ez daukadaz gogoan ortik aurrera idatzi neutsazan gauzak. Baiña ondo dakit ezelako erantzunik ez nebala artu.

Eta euskerea aitatzuz asi ba'naz onexegaitik da: Aita Patxi ezelan be ezin leikelako aldendu berea dauan izkuntzatik. Gauza bi orreik bat egiten dabe.

Uste barik eldu ziran orrialde oneik nire eskuetara. Idazkerea apur bat orraztuteko eskaria egin eusten. Eta ori, bear ba'da, ez neban lortuko. Aditzen bat aldatu dot eta berba gitxi batzuren ordez beste batzuk ipiñi. Aita Patxi'k idatzi dauanak berezko indarra dauka. Biotzez idazten dana ezin lei obetu Cervantes'en idazkereagaz be.

Nire ordenagaillutik igaro da, biziera bereizi baten bizi izan dan abade euskaldun baten "curriculum vitae". Txapel bateri lotuta doan fedea, zauri bateri lotuta dagon fedea, eta zauria osatuarren be, noizean bein agertzen dana, batez be alkar-izketa gai labanetara sartzen danean, orduan Aita Patxi'k berak gura ez daukala be agertu egiten da. Gomutamena biotza bera baiflo be buru-gogorragoa da. Parkatzeko eta aiztuteko kristifiau lez egiten doguzan alegiñak be gomutapenaren aurrean alperrekoak izaten dira.

Fede sendoa zalantza guztiak baiño gorago dago. Barruko deia sendoa danean alperrik etorriko dira aurkalariak, illun-aldiak, oztasunak... olakoak sarritan

erakundea dan gure Eleizeagandik be etorten jakuz. Errezegi esaten dogu Eleizea santea eta pekataria batera dala, santea ta pekataria batera dala esaten dabe barrua apurtuta dagozan askok be.

Haring'ek asko ekian Eleiza santa eta pekatariari begira eta auxe diño: Kristo'gaitik sufiritzeak goratu egiten dau kristiñaua, baiña Eleizeagaitik sufiritzeak beeratu egiten dau. Aita Patxi'k ori somau dau bere fedearen azal guztian eta al dan neurrian parkatu be egin dau. Parkatzeak osatu eta askatu egiten dau. Eta sarritan parkatu egiten da, zelan edo alan, bizi egin bear dalako. Jaungoikoa zelakoa dan agertzeko beti parkatzen dauana dala esaten dogu, gure pekatuak aiztu egiten dauzala. Kristiñau bakoitzak bere eskuetan dauko bere antzekoakaz orrelakoa izatea.

Ainbeste orrialde irakurriz, gizon onen nortasuna neurtzen joan naz. Abade ona da, eta ona da, batez be, bere sustraia ona dalako. Bizitzan aurrera doa on egiten. Izan zeitekean baserritar on bat, edo arrantzale on bat, edo idazkari on bat edo irakasle on bat. Jente onaren artekoa dana, beti da ona, edozein bizibidetan da ona.

Aita Patxi'k ondo daki zer dan barruko bakartadea, zertzuk diran gau illunak; bizi izan dauz azurretako miftak eta adiskideengadik datozenak; izan da pozik onartua eta eleiz-agintarien aldetik alboratua; itxasoko ametsak izan dauz, baita bere burua zeru-urdeñetik urrin ikusteak be, baita ogia ereiteko lurrak bertan itzi-berrak; ondo daki fede utsajeorra, eta beeratua zer dan eta, batez be, bakartadearen Aita dan Jaungoikoak emoten dauan babesa.

Gomuta Biziak ez dira aragi-bakoak. Bere bizitzan batzen dauz Euskadi'ren ia irurogeta amar urtean izan diran gizarteko, politikako eta eleizako edesti-jazoerak. Gernika'ko bonbaketa baifto urte bi lenago jaio zan. Bonbaketa ori zala-ta, gau illunez etxetik iges egin bear izan eben, gaiztoak ba-litzakez lez, euren tretxuak, abereak eta notasuna artuta. Eta orrelan, zapalduta, bere lurraldetik urten barik ibillaldi luzea egin bear izan eban.

Gaztelerea ta latifak batera-antzean ikasi ebazan. Eta beste au be irakatsi eutsoen: "Jainkoaren izenean" eta aberriaren elburu sakratuaren izenean, bere nortasunak, bere izkuntzak dunduri txarra eukala eta orrelan okertzen ebala edestia egiteko zeregin sakratua.

"Eleizea gaurko gizarte espāñatar eta euskaldunean" deritxon liburuan Ignazio Villota Elejalde'k, 489n. orrialdean Aita Patxi'ri dagokion jazokizun au gogoratzen dau:

"1964n. urtean, iraillean, Bizkai'ko Gamiz'enjaiakziranean, Abadeak Espāña'ko bandera ikusi eban aurrean, eta berbaldia ta Pacem in terris gogoan eukazala, auxe esan eban: Eleizeak ez dauzala egiten bereiztasunik bere seme-alaben artean eta eleizan ez dagoala tokirik banatzeko dan ezaugarri batentzat; eta gorabera batzuk izan ondoren, abadea zigortua izan zan."

Gomuta orreitan argi agertzen dira Eleizearen eta Laterriaren artean izan bear daben artu-emonak; Gotzaiñaren eta abadeen artean izan bear dauan alkartasuna ta alkartu-ezifta. Orduan politikua zana ez zan gauza zuzena eleizan, Franco ren aginpidearen aurka egon ezkerro, eta Barri Onaren bidean zuzen egoan politikako egoera aren aurka agertzen zan abadeak zigortzea.

48 In. orrialdean beste au diño Villota'k, Pablo Gurrupide'ren artzain-jokabidea gogoan dauzala: _

"Politika-arloan, berepentsaerea Franco-ren ekintza aukeratzea zan. Orregaitik ez ebazan ulertu euskadunen arazoak. Eta, or, ortxe, aurkitu eban ainbestean bere bizitzea garraztu eban erantzunik gogorrena. Beretzat arlo onetan alboratzen zana, bide okerretik joian eta auxe esaten eban:" Abadea politikara sartzen danean, beste edozein gizonen antzeko biurtzen da eta abadetzaren koroia galtzen dau. Eleizeak ez dau bear abade politikorik, batekoa naiz bestekoa izan, Kristo-ren apostolu diran abadeak bear dauz. Baiña berak, baten baiflo geiagotan erabili ebazan olako berbak: "Glorioso Movimiento Nacional", "Santa Cruzada" edo "Patria Española".

(Ik. BOOB zezeilla-1961. Eleizea ta laterria gai dauzan artzain idazkia edo Jainkorik ezaren eta erlejifioaren aurrean, 1963n. urteko Artzain. Idazkia.)

Gogoratu daidan zelako giza-apaltasunagaz idatzi dauzan bere gomutak gizon onek. "Idazten ba'dodaz, eskatu daustelako idazten dodaz. Norentzat izango ete dira arduragarri?" Ezin ukatu arrituta geratu nazela. Eta entzun dot, gaiñera, nik pozik irakurri dodazela jakin dauanean, nasaituta au esan dauala: "Ederto, gitxienez poz bat daukat, persona beteri atsegin izan jakozala."

Noizean bein egin dot berba beragaz telefonoz. Bere baimena eskatu dausat aurkezpen onetan, tefefonoz egin doguzan eta bere fedea agertzen daben berba batzuk sartzeko. Ia irurogeta amar urte dauazala eta gauzak prestatzen asteko sasoi zala esan eustan, Nik au esan neutsan: Emengo gauzak ala angoak? Berak zorrotz erantzun eustan: Bekoak! Goikoak konponduta dagoz! Eta ain ziur ikusi nebanean esan nautson: Orrenbesteko ziurtasuna daukazu Jaungoiko Aitagan? Eta bere erantzun zeatza au izan zan: Orrenbestekoa ez, dana! Nik barre egin neban oso-osoa beragaz batera natorrela jakiñik.

Orain Ea'n, Bedarona eta Natxitua'n dago bere abade-lana egiten. Pozez beterik dago bere artzain-lanak nekatuta. Bere berbaldietan zeatza ta sakona da, bere liturjian laburra eta edertasunezkoa, bere alkar-izketan pozgarria, Athletic'en jarraitzaille beroa eta dana batera esateko, jente onaren artekoa.

Ni Eleizea naz. Gu Eleizea gara. Orregaitik neure burua eleizkide lez ikusita biotzez emoten daustadaz, emoten daustaguz eskerrak parkatzeko ain almen aundia daukalako.

Eskerrik asko, aita Patxi.

FELI ALONSO CURIEL

PATXI BILBAO'REN EBANJELIO-JANARIA

"Eta jagirik bere aitagana joan zan. Oraindiño urrun egoala, bere aitak ikusi ta, errukiz beterik, ariñeketan joanda, semeari samatik eldu ta laztandu egin eban.

Semeak auxe esan eutsan: Aita, pekatu egin neban zeruaren aurka
Eta zure aurrean; nik ez dot, arrezkero, zure seme-izenik merezi.

Baifia aitak bere morroiai auxe esan eutsen: Ekarri egizue bizkor
Soifiekorik onena eta jantzi egiozue; eraztuna eskuan eta oiñetakoak
oifietan ipifii egiozuez. Zekor gizona ekarri eta il egizue, eta jan eta
jai egin dagigun:nire seme au ilda egoan eta biztu egin da-ta; galduta
egoan eta aurkitua izan da-ta. Eta ispatzen asi zirao, (Lk.I5),

Sinistu neban, eta orrexegaitik egin neban berba.

Korinto'koai 2^a, 4,13.

EGUNERIK EGUNERAKO AURKIBIDEA

Apirilla, 29,	1935	Jaiotza Muxika'n.
Apirilla 26,	1937	Gemika'n bonbaketa.01arre baserritik bialdua bere sendia,
	1946	Apendizitis zulatua izan eban
	1947	Gordexola'ko seminaria sartuko ete dan.
		Ez dabe artzen, abertzaleen semea zalako.
	1948	Kamilo Bilbao, bere aita, il zan.
	1948	Gaztelu-Elexabeiti 'ko seminaria.
	1952	Gasteiz'ko seminaria.
	1956	Derio'ko seminaria.
Ekaina 28,	1959	Abadegintza, San Frantzisko'ren parrokan.
Uztailla	1959	Meñaka'raXenengo artzain-lana.
Maiatza,30	1960	339 abade euskaldunen agiria.
Uztailla,	1960	Eusebia Atxikallende, bere ama, il zan.
Iraila,2	1964	Gamiz'ko jaiak.Eleizan Franco'ren ezaugarriak. Itzaldian Patxi Bilbao agertze orren aurka.
Maiatza,30	1967	Bilbao'ko Kale Nagusian 77 abaderen kaleratzea.
Aste Santua	1967	Mefiaka'n, Udal-Batzagaz egoera larria, laterri-banderea dala-ta,
Maiatza30	1967	Bost abade gose-greban.
Ekaina,2	1967	Abadeak Zamora'ko espexera daroez.
Abuztuak,15	1967	Larri-aldi barria udal-batzagaz.San Rokejaiak.
Urria,21	1967	Juan 45urteko anaia il jakon.
Azaroa,19	1967	Jose Luis Jauregi, Gamiz'ko abade laguntzaillea baituta.

Abendua,3	1967	Gotzaiñiak ez eban epaitzeko baimenik emon.Aske.
Abendua,18	1967	Patxi Bilbao'ren itzaldi idatzia^Meñalia'ko eleiz-atean.
Martxoa,6	1968	Erriko ziñegotzi guztien salakimntza.
Ekaifia,14	1968	Gotzaindegitik, "Orden Publico"ko Epaitegim auzi-bidearen barria,
Abuztua,16	1968	28 abade euskaldun gotzaindegira sartuta.
Iraila,5	1968	Bigarren gotzaindegira sartzea,43 abadek. Goizaindegiak Aldirako Gotzain-Ordea izendatu eban,abade-arazoetarako.
Azaroa,4	1968	Gotzain-Ordeak eta bere taldeak ardurea izten dabe. GOGOR abade-taldea sortzen da.Onein elburua: "GOGORKERIAREN AURKA GOGORTASUNA "
Azaroa,18	1968	60 abade sartu ziran Seminaria eta 27 egunean Derio'ko Seminarioan egon Idazki bat bialdu jakon Aita Santuari,egoerea salatzeke. Gurgide'ren erabagia, ango abade guztiai eleiz-baimenak kendu.
Urtarrila,24	1969	Gurgide'ren eriotza.Albiste-bideak GOGOR'eko abadeak salatzen dabez eriotza orren eragille lez. ZirM-da izendatzen dabe,Eleizbarmtiaren Gotzain-Zaintzaille lez.Onek abadeen zigorrakentzen dau. T.O.P.'ek Madrid'en Patxi Bilbao'ri epaiketa Gotzaindegitik iftor ez zan joan Patxi'ri laguntzeko. Euren gurariz 30-40 abade joan ziran Meflaka'n fimiak batzea:la %100 abadearen alde.

EPAiA:8 illebete espetxera eta 10 000 pezeta

Martxoa	1969	Kopiakiñaren arazoa.
Apirilla,25	1969	Jose M" Madariaga abadea baitua.
Azaroa29	1969	Garellano'ra deia autorpena egiteko,bandidaje ta terrorismo arloko Epaiketa Solaun eta beste batzuren aurka.Orra sartu eben Patxi Bilbao.Onek ez daki Solaun nor dan. Patxi Bilbao baitu eta Basauri'ko espetxera.
Abendua,12	1969	Solaun'ek iges egin eban Basauri'ko espetxetik beste baitu politiku batzukaz iru arruntegaz.
Urterrilla,6	1970	Patxi Bilbao Zamora'ko Konkordatu-espetxera daroe eta beste abade batzuk aurkitu ebazan bertan.
Uztaila,7	1970	Militarren epaiketa Burgos'en

EPAIA. 3 URTE ESPETXEAN

Iraila,13	1970	Espetxetik jges egiteko eguna. Zuloa aurkitu.
-----------	------	---

Azaroa, 17	1971	Espetxetik kanpora.
Urtea	1972	Laguntza-Lantegietan lan egiteko eskintzak
		Patxi'k bere abadetzara-deiari aurrera zintzo jarraitzea erabagi eban.
		Eleizearen jerarki-aldetik ez egozan berari begira.
Azaroa, 18	1972	Ea'n artzain lana egiteko izendapena
Azaroa, 18	1973	Eskoitarrak basatikeriaz kotxea apurtu.
Azaroa, 25	1973	Goizeko iruretan dei susmogarri bat.
		Istripua izandako bateri laguntzeko. Antza erailketa-ekintza zan Patxi'ren aurka.
Iraila, 2	1973	Ea'ko kaleetan eskoitarren danbadak.
Urtea	1976	Bedarona'ko Artzain-ardurea artzen dau.
Urtea	1988	Meñaka'n parroko izan eban Paskasio Etkezarraga' ren Eskutitza. II-orduan, Patxi Bilbao'ri parkeske dago. Patxi'ren erantzuna kartaz.
Abendua, 14	1989	Ea-inguruan basoak sutan dagoz, gurariz sortutako sua. Lagun-etxea'n izua, gas-lekua ur dagoalako. Arduraduna zalako, Patxi'ri larriak gaisoa dakartsoi Amas-gaisoa dan Alkalosis.
Urria,	1990	JM® Uriarte Gotzaiña Dteratsu Patxi Bilbao'gaz. Euskaldun biren arteko Artzain-lan alkartzea.
Urtea,	1993	Etxeko arazoak dirala-ta, Kuba'ra ostera osaba-izekoak itzitako erentziak Kastro'ren kaltea artu dau. Kuba'ko gizarte ta politika arazoak.
Urtea	1996	Natxitua'ko Artzain-lanaren ardurea artzen dau.
Azaroa,	1997	Ea'n daroan egotaldiaren zidarrezko eztegua ospatzeko Patxi Bilbao artzaiñari erri osoaren omenaldia. Patxi'k bere esker on aundia agertzen dautse eleiztarrai.
Uztaila, 23	1988	la ama lez eukan Martzeliña bere arrebea il jakon
Urtea	2000	Abade-lagunak, etxeokak, eta eleiz-aldekoak GOMUTA BIZIAK idazteko eskatzen dautsoe.
Urtea	2001	Idazkin apal baten teMak jo eta jo bere gomuta biziak idazten dauz. Batzuk gogoratzea gauza samifia da, barrero sufritzea da. Patxi'k danaren barria itei gura dau.
Urtea	2002	Azkenean amaituta ikusten dauz.

**Ez dau idazten bizi izan eta gogoratzen dauan
dana. Baiña idazten dauna dana, egla. Isill-
du dauana isildu-bearrekoa da, berak uste
dauanez, bere barru-barruan egon bear dau-
na.(2002' eko UDA-GOIENEAN.)**

LERRO ONEIK ZERGAIK?

Patxi Bilbao Atxikallende naz ni.

Sarritan asi naz neure bizitzako gorabeerak idazten eta sarritan joan dira nire orriak si[^]ki-otzarara. Ifioz ez dodaz idatzi iru orrialde baiño geiago. Bein baten,nire bizitza papelean agertzeko tentaldian ez jausteko, baliotsuak ziran neure agiriak apurtu be egin nebazan.

Barriri asteko usterik izan ez arrear,abade-lagun askok ekin daustelako, eta neure etxekoren batek, eta Gotzain jaun agurgarri batek be bai, gaur, bizi-bizi barriri astera beartu nabe.

Teklak jo ta jo bizitza osoa gogoratuko dot eta teklak jo ta jo, nigaz beti zuzen jokatu ez dabenen lengo jazokizunak egiten dabene zauria bamro zomauko dot Gomutamena biotzagaz batera joaten da eta urdaillagaz batera be bai. Ez da ba,arritzeko gauzea izango uneren baten urdaillaren barruko larria zomatzea nire gogoan zauria idegiten daustelako bizi-ikusiak

Ez da nire guraria jazokizun guzti onein epaikari izatea. Ez naz aingerua eta ez Txenrena be. Ez naz besterik jazokizunen edesle utsa baifio eta jazokizunak nire izakereagaz eta izateagaz oso-osoan lotuta dagoz. Ez naz izango bataren edo bestearen alde egiten ez dodana. Iñor ezin leiteke izan alde bietarako bardintsua bere bizitzea begiraten daunean eta beste batzuk euren erara epaitu dabezan jazokizunak, neure irudia ta iire gorputzeko eta gogoko osasunari ikututen dautsenean jazok.Beti izan neban lagun fedea eta fede onek urrea garbitzen dan lez garbitu eban nire izaerea, baita lagun izan neban, ezintasunak emoten dauan nekea.

Bizitzearen bidean gauza guztietan nator ostera eta niri eragiten daustan elburu bakarra auxe da:Edesti au baten batentzat onurakorra izan daitela. Daukadan adiña daukadalako Aitaren Etxeko ate-aurrean nago eta ondo dakit a, Errukiaren Erreiñua, maitasun-tokia be izango dala orrialde oneitan agertzen diran eta KJristo'ren eta onen Eleizearen jarraitzaille agertuta Jokabide orreri dagokion lez jokatu ez dabene guztientzat.

Ba-noa neure eskuak nire gumutamenera sartzen eta nire gurari garbia Jaungoiko Aitaren eskuetan izten dot.

(PIE) 1941n.urtea. Sendi osoaren lenengoa ta bakarra dan argazkia.Sendi osoa gñan Larrauri'ko baratzean "otsefiak eta saridunak".

Kamilo ta Eusebia nire gurasoak.

Juan, Antonio, Martzeliña, Zezilia, Felix eta Patxi neba-arrebak

(PIE) MUXIKA, Patxi Bilbao'ren jaiotza-erria.

ETXEKOAK

Bizkai'ko Muxika'n etorri nintzan mundura 1935n. urteko joixailaren 29n. egunean. Sei neba-arreba, lau mutillak ete bi neskak giñanen artean ni nintzan txikiena. Muxika'ko parrokian bateatu ninduen eta antxe artu neban sendotza urte beratan, Muxifca'sff Mateo jaunaren eskutik.

Erritarren arteko gudea bizi-bizi egoala, eta urte bi egin-egifian nituala, 1937n. urteko jorraillaren 26n. egun negargarrian jausi zan Gemika'ko erriaren gaiñera gizakientzat benetako ekaitza izan zan bonbaketea.

Erria zurtz eginda geratu zan. Gure sendiak al bait lasterren itzi bear izan eban OBARRE baserria. Antxe bizi giflan errentan. Eta etxearen ugazaba Gemika'n bizi zan jauntxu bat zan. Ondo etorri jakon oneri bonbakeraren n[^]stea beronen gurari zantarrak beteta ikusteko. Etxe aretatik bota egin ginduzan, ezelako eskubiderik ez azalpenik agertu barik.

Gabaz, isilpean iges doanaren antzera, astoaren gaiñean ipifii gendun ipiñi al izan genduana. Beste gure euki guztiak baserri aretan geratu ziran. Eta tretxu guztiakaz batera an geratu ziran gure nekeak eta guri egokigun nortasurmren eskubidea.

Diñoenez, nik urte bi orduantxe beteteko nebazala, samit[^]unez beterik negar eta negar egiten ei neban. Nire negarrak ezintasunezko egoera ori geiago ziurtatuten eban.: Gure bizitzan geunkanik barrukoena ostuten euskuen; gure tretxu guztiak eta duitasunezko nortasuna eukiteko eskubidea. Nire ume-negarra entzun egiten zan, baifta nire gurasoena barrukoa zan eta euren gogoa zulatzen eban.

Guda arek gure eukiak eta gure izakerea kendu euskun eta gu isillean geu izatera beartuta geratu giftan.

1937n. urteko jorraillaren 30n. egunean gure aitak, arkaitzez eta esku samin eta dardaratsuz idatzi eban baserrian eta sekula ez eskuratzeko zertzuk tretxuak izten ebazan.

Itzez itz idazten dot agiri ori, idazkerako utsak zuzendu barik eta gure baserrietan erabilten diran lanabesak euren euskerazko izena dabela (Ik. arga[^]kian)

Muxika'n, 1937'ko aprillaren 30'ean.

Prieto Batalloiak ateraten itzi ez eustan gauzen zerrendea.

Abereen zeri^ndea:

4 bei // 3 txal // 40 oillo // 37 untxi(koneju).

Ereinda dagozenak:

10 anega patata // 40 anega gari.

Landara sartuak:

19 madari //12 sagar // mastiak, 300 mats-ondo

5 oge euren altzari, koltxoi ta izarakaz

3 eskaplot // komoda 2 // aspre bat // 6 kutxa // 3 mai //12 aurki // 3 eskegi-toki

**Sartain 2 // balde 2 // galdara 2 // 4 kantin// Txall 2 // 3 dozena koillara-ta
114 kazuela // Kafe-errotia // mai-ontziak // 6 kafe-tresna // 36 plater //
artoa garanduteko makiñea**

**Ormako ordulari 1// itxartuteko ordulari 1 // iru ezpillu // 20 estanfa //
aizto 2 // Ule-tramankulu 2 // 36 zedrillo // 4 orañel // su-burdln 1 //
gabeko maitxu bat.**

Soloko ta eskuzko lanabesak:

**Lanabes aundia-0 // lanabes txikia 1 // esia 1 // mollesozko amak //
zurezko areak // alper-arria 1 // dragea 1 // porkerea 1 // txalma 1 // 3
kodaña // 7 sarda.**

**4 saye adumek // 4 sega // aizkora 1 // serrot 2 // maillu 2 // formoi 2 // 8
kate // kate 2 // 4 saran // kuartoi 1 // zelemiñak // astagaillu 1 // bai 2 //
labako gauzak.**

Koltxoi bi // lume 2 //10 izara // moille 2 // Umeen 3 libreta

Kamilo Bilbao (Izenpetuta)

Baserrian itzi bear izan ebazan gauza guztiak ain zeatz agertuta ikusteak, ikarea sartzan dau. Bairiro idatzikeran urdailla be biurtu egiten jat eta barruko erraiak be okertu.

Oar areik idatzi-ondoren aitak baserri aretatik urten eban berea dan lurraldean urteera luze bat asteko

Muxika' ko etxea itzi-ondoren, bonbaketa bizi-bizi egoala eta mendietan lubakiak[^] trintxerak, agiri zirala, beste askoren artean, Erandio-aldean ostendu gifian mendizulo baten babespean.

Barakaldo'ko etxe baten artu ginduezan eta an egin genduzan egun batzuk, guk ezagutu ez airen ondo be ondo artu ginduzan sendi baten.

Aita estu eta larri egoan bere sendi osoarentzat urtenbide bat billatzen. Bere ardura orrek beeratu egiten eban eta ikubillak estutu egiten ebazan. Ezintasun aretan baserriaren ugazabari errua botaten eutson, baita bere buruari be, zori Dcar ori etorri zanean aurpegia emoten jakin ez ebalako.

Ez dakit nondik eta zelan artu-emonetara sartu zan Derio'ko baserri baten bizi zan sendi bategaz. Antxe artu ginduezan sendi osoa. PERUBI zan etxearen izena eta etxeke andrea, Kostan.

Baserri orretatik datoz urteen lainño-arteana nastauta, txikitxua nintzaneko nire lenengo gomutakiak. Etxetik mentro batzutara Mungia'tik Bilbao'rako trena igaroten zan, egunean lau bider. Atxe igaro genduzan urte bi edo iru. Aitak toki egokiago bat aurkitu eban eta Larrauri'n toki zabalak daukazan Baratz-Txalet batera sartu giflan barazkin-lanetarako.

Ango ugazabak guraso ezkonduak ziran eta ume bi eukezan, semea ta alabea, Gure laearen gainera apa bat, iru mirabe, sukaldari bi, txofer bi eta Bilbao'ko texidun bat eukezan.

Gure amak egiten eban ugazaben, otsefien, sukaldarien eta geu zortziron bogadea.

Nire biotzeko begi-niniak argi ikusten dau ama, garbitu eta garbitu, baratzeko garbilekuan, asteai birritan, ur otzagaz ainbeste kilo jazki garbitzen eta buru-gaiñean baldeetan baratz-bmiiian eun metrorra egoan bola-tokira eroaten.

Aita (^tiro-astiro gaisotzen asi jakun eta diabetes gaisoa artu eban. Eguneaa iru bider artu bear izaten eban insulina Eta osagai au ez zan aurkitzen orduan botiketan eta "extr[^]erlo" lez ordaindu bear izaten *ehm*. Egunean 25 pezeta bear genduzan orretarako, eta ori gure gurasoen ekonomi murriztuarentzat odol-erio aundia zan.

Jazokizun bat bizi izan neban orduan, ulertu barik eta nire ume-buraan neuganatu barik: Nik ikusten neban Txelet-Baratz aretara Zelez eritxon Bermeo'ko arraindun batek lebatz osoak ekarten ebazala asteen birritan. Lebatz arein buruak eta buztanak Lau eta Bobi, gu baifio obeto janarituta bizi ziran txakurrentzat izaten ziran. Nire ume-begiak ez ebazan oraindiño ezaguteen ebanjelioko gauzak baifiabiotzean zomatu nebffli Lazaro ta Aberatz jatunaren parabolea. Nire aitak, gaisorik egon arren, ez ebazan iñoz ikusi lebatzaren ondakiñak be. Ez dot gura ugazaben aurka azterketa garratza egiterik. Notin onak ziran baiña bear ba'da bizi ziran giza-mailJan bizi ziralako, ez eben argi ikusten gure bizikera estua.

Denpora-aldi luze baterako Basurtu'ko gaiso-etxera, Gandarias gaiso-tokira, eroan bear izan gendun aita.

Nire zortzi urteko umearen begiakaz eta urte bi zarragoan zan Felix'enakaz, ama lagun genduala Bilbao ezagutzen asi giñan. Aita ikustera joaten gifan Basurtu'ko gaiso-etxera. Lenengo goizean goizetik lau kilometro egiten genduzan oiñez

Mungia'n trena artzeko. Trenaren geltokian Atheltic'en jokolari ospetsua zan Zarra'ren aifa zan bum. Trenak Mallona'ko maillen bmrenean izten ginduzan eta andik zapa-zapa gaiso-etjcera eltzen gintzazan. Sarritan joan giñan aita ikustera eta joaten giñaii bakoitxean gure nekea arintzeko kopu gozo bat jaii eta sagardau ozkirria edaten gendun

Aita etorri zan etxera. Bere gaisoak ez eutson izten gizarte-bizitza ugaria egiten. Larrauri'ko ostatus edo fondm bere ezagunakaz txikotoren bat edo beste artzen eban. Ogean egoala daukot bere irudia. Bere begirakunea gozoa ta illuna zan eta bere berbak biotz onekoak eta orrelan alegintzen zan apurkE-apurkajaten joakon biozperafe^una eta tristezea alboratzen.. Ezerezean bere burua ikusteak larritu egiten eban, etxeko aitaren arrotasuna zauritu egiten euteon.

Beste ume guztien antzera erriko laterri-eskoletara joaten nintzan. Goizero emakume irak^leak batzen ginduzan guztiok eskolan eta jCara al sol! abestu eragiten euskun. Eta Jaungoikoa gurtzea ba'litzake lez, eskua gora jasota, laterriko banderearen aurrean adoretu egin bear izaten genduzan Franco'tarren oiur oneik: iiiEspaña..UNA!!!,iiiEspafta...GRANDE!!!,siiEspafta...LroRE!!!liArribaEspafta! iiiVIVAFRANCO!!!

Gogoan daukat oraindifto emakume irakaste aren izena^bere amagaz bizi zan Zorrila anderea zan. Geroago Juan Velasco Salvador jauna eritxon irakasle bat etorri jakun. Au Zamora'koa zan eta Katalina beronen emazteagaz etorri zan erbesteratuta, errepublikearen aldeko bide okerra artu ebalako. Larrauri'n aitzu eziñeko gomutakia itzi eben gizazaleak eta onak ziralako.

(PIE):1940-41n. urtea.Nire lenengo argazkia,Larrauri'ko baratzean dan kotxe-lekuaren aurrean.

1943?n. urtean Larrauri' ko laterri-eskoletan.

1944n.urtean 90 egun osatzen B^urtu'ko gaiso-etxean (Baten batek bizirik gura nindim.mMirari bat izan zan ni osatzea...)

(PIE)LARRAURI

Orko arrien artean aundi egin ziran nire goputza ta gogoia, Or joan nintzan eskolarajolastu nintzan, monagillo izan nintzan, okerkeriak egin be bai.Or izan nebazan sendiaren berotasunagaz batera milla lagun.

Bp^X

BARATZEKO PATXI'REN OKERKERITXUAK

Larrauri'n jazoten ziran okerkeri guztien egilletzat ni artzen ninduen. Egia esan, sarritan nireak ez ziranen errua be nire gaifera etorten zan, baiña nire auzokideak ez egozan oker au esaten ebenean: "Baratzeko Patxi izango zan". Ondo irabazita neukan ba, Larrauri'ko betiko trastoaren izena.

Nire gomumenaren atze-atzean daukadaz jazokizun batzuk, xumeak eta barru berokoak, Gogoan daukat sarritan jaten genduzala subeteko txapearen gaiñean patata erreak. Ez jat aitzu erreziñokoa zan ogiak botaten eban gasoliña-atea eta ez nire jostailurik onena izaten zan menbrillu-kutxa uteetatik geratzen zan zurezko txirrinkea.

Arto-arteetan artu eta peridiku zatietan batuta isillean agora eroanda erreten genduzan arto-bizarrak. Mifta, eztarria eta or dagon bide osoa erre egiten euskuezan, baifia txarra eginbearrak poz berezia emoten euskun.

Patata soloetan batzen genduzan eun eskarabajogaitik amar zentimuko saria emoten euskuen. Ori zan ondo irabazita geunken gure saria.

Bein Felix nire anaiak eta biok, txaleteko ugazabentzat gozoki-egillearen mandatariak ekarten ebazan pastelak ikusi genduzan etorten. Zur eta zeatz artu gendun kontuan zer egiten eban. Joan zanean, kanpoko mailletetik sartu gintzazan, aurkitu genduzan gozokiak eta bakoitxak bost jan genduzan. Agirekea etxean entzun gendun, pastelak nok jan ebazan jakin zanean, Pastela agertu egin zan, esaten dan lez.

Beste bein Larrauri'ko auzoa dan Emerando'ko baseleizan jaiak ziran eta arratsaldeko iruretan an inguruan iñor ez egoanean, nik ate bat ikusi neban zabalik eta sartu egin nintzan. Bandeja bat aurkitu neban, altarearen barrenean diruz beterik. Tentazifio aundia zan ezer egin barik izteko. Artu nebazan diru guztiak, nire boltzak bete nebazan ogeta amar pezeta areikaz eta bazkal-osteko ordua zan ezkerro, plaza utsean lo egoan barkilleruagana urreratu nintzan. Barkilleraa urtez aurreratua zan, aundia, eta bera ibilten zan jairik jai umeai bere barkilluak saltzen. Airituta geratu zangizona baifia isildu egin zan eta bere agustua egin eban.

Arratealde baten umeen eskolara sartu nintzanean, Santander'ekoa zan Jose Melon maixua bere eskola-maian lo egoan ezpanetan txokor edo pura-ondakifta eukala. Lo-zorroaren zaratea entzuten zan. Urreratu giñan beragana eta txokor-ondakifta agotik barrara sartu geuntsan. Gizon gizajoari ezterria zarratu jakon eta itoten egoalako antza emon eban. Ez zan ezer be jazo gure barreak eta egin euskun agirikea sendo entzun bearra eta ondoren etorri jakun zigorra baiflo.

Txaleteko aJabearen urte-betetea zalako gau-dantza egoan baten, txapJiegu edo su-ziriak artu genduzan, an urreea egozan-eta. Gero guztiai sua emon geunisen. Patxi izenekoa zan Aresti'ko batek iko-landara baten gaifera igon eban ikoak jateko. Guk bota gendun su-ziri batek txapela kendu eutson eta txapel ori biraka asi zan "platillo volante" baten antzera. Ez eban artu sustu makala eta ez izan makala guk entzun bear izan gendun agirikea be.

Eskolatik urtetan genduanean gure asarre txikiak arrika konpontzen genduzan, gaur Beirat'eko kaleetan egiten dan antzera. "Goitarrak", goitik eta Markaida-aldera bizi ziranak egiten eben arrika "betartak" giñanen eta Emerando ta Larrauri'ko zelaietan bizi gifianen aurka.

Gogoan daukat, baita, "Nabarra" esaten geuntsan bei bat. Berak emoten eban sendi guztiarentzat esnea, Zuria zan eta bere narruak mota baltzak eukazan. Egun baten, maixuak geuk ezagutzen genduzan abereak ingurraztian zelakoak ziran esateko eskatu euskui eta nik onelantze zeaztu neban nire beia: "Gure beiak leioak daukaz" Beste lagun batek auntza zelakoa zan zeaztu gura eban ete auxe esan eban: Euntze, la kabra, okotza ta biserra"

Olako idaz-tankereagaz mro-arro gengoan eta uste gendun ba-dakigula geurea ez dan izkuntza baten gauzak esaten.

Bederatzi urtekoa nintzala parrokian, arratsaldeko lauretan, domeka baten, kristifiau-ikasbidean gengoan. Eta nik, bat-batean, eraso bat izan neban barraan, urdailleko min bizi-bizi bat. Min orrek erdibituta lez, larrituta jausi niitzan. Martzel eta Tomas anaiak erabilen erriko taxi bakarra artuta, Basurtu'ko gaiso-etxean dan estualdietarako tokira eroan ninduen.

Basurtu'n osagilleak nirea apendizitis zulatua zala esan eban. Zulo ori aundia zan eta minutu batzukaitik urten nintzan bizirik, Ebaketa egin eusten eta ira illebete egin bear izan nebazan Aztarain gaiso-tokian sartuta Ni zaindu ninduen lekaime bi daukadaz gogoan betiko: Sor Ramira eta Sor Katalina. Beste batzuren antzera maitasun aundiagaz zaindu ninduen.

Larrauri'ra etorri nintzanean, beste era batera ikusten neban erria. Nire zenfuzumenak dana artzen eban ondo eta erri-dantza egoan Larrauri'ko zelaian gramoleak jo ta jo egiten eban eresa edo musikea be gogoan daukat. Auxe abesten eban erderaz: Urtea da amets bat egin nebala. Urte bat da egun onetan beteten dana...

Edo beste au abesten ebana: "Ikutu zurari: nik egin bear dodana zugaz barre egitea eta gero negar egitea ete da. Suertea berez dator. Ni atz,ean noako,baifia bera aurrera doa..."

Ai, gure gomutamena! Zelan aukeratzen dauzan gauzak, batez be ume-denporan!

Eta barazaiiaren etxean bizi giñan oraindiño. Aita ez egoan bape ondo. Nire anai zarragoak alegintzen ziran etxera lan-saritxuren bat ekarteko edo aroztegietatik edo fonda'ko mirabeen eskutik. Larrauri'ko ostatua, fondea, Athletic'en jokolariak batzen ziran to Mazan: Lezama, Mieza, Panizo, Gainza, Zarra, Ozeja, Nando, Bertol. Larrauri'ko umeak pozik ibilten gifian, gure jolas-gizandiai euren ibillaldietan jartaitzen. Ortik sortuko zan, bear ba'da, munduan bakarra dan jolas-batz oneri dautsadan maitasun bizia.

Ezifta ta kdtegarria litzake nire burura jatord^an jazokizun guztiak edestea. Orri larregi beteko neuke eta nire irakurleak eroapen geiegi bearko leukee,

Amaika urte bete nebazenean pai Tokian laguntzen neban monagillo lez. Egun baten orduan Larrauri'ko parroko zan Fermin Arostegi jaunak deitu euslan etabeste bigaz batera, sakristian itandu euskun ia Seminario'ra pozik joango gintzakezan. Baietzerako gogoia guri sarfzeco, an zelako fjtbol-zelaiak egozan eta ze ondo bizi ziran esan euskun. Eta Seminario'ra joateko buratasunak kili-kili egin eustan. Nire amari oso atsegin izan jakon ni joatea, baifia aitaren eritxia jakin bear zan eta aita, ia beti lez, ogean egoan. Urreratu jakon gora D. Fermin eta txeratsu agurtu-ondoren.

Esan eutson aitari zertarako etorri zan. Aitak arduraz entzun eutson eta entzuten egoala, bere biotza tristetu egin jakon, negarrak urten-arte.:

"Gizajo ori! Gizajo ori! " "Guk ezin izango dautsagu iñoz ordaindu olako karrera bat!

D. Fermin'ek baretu eban aita eta esan eutson bere ardurapean artzen ebala arazo ori.

Kontuz eta maitasunaren zentzun garbi bategaz, zelan bumkoaren azpian biilete bat itzi eutson da/ikat gogoan.500 pezetakoa izango zan.Iradi ori ez jat sekulakendu bizitzaosoan neure burutik.

Iñaki Mintegi, Juanito Gezuraga ta irurok izan giñan Seminario'ra joateko aukeratuak.Nik ez dakik zergaitik egin eben aukeraketa ori.. Ez dot uste bizkorrenak gifialako izango zanik, ze eskolan gu baifio zuo-agoak egozan.

W

GORDEXOLA-KO SEMINARIOA: 1947

^ Bilbao'ko Sañi Nikolas parrokian sarrerako azterketa egin gendualakoan nago. Ogeita amar-bat ume batu giñan. Guk geure parrokoa gendun lagun. Irakaslea, sotana luzejantzita,FRANTZISKOAURTENETXE zan. Urte batzuk geroago Seminarioan mailla baten arduradun zan, gero Eleizbarrutiko Idazkaria eta katedraieko kanonigua izan zan. Larrauri'gaz mugakide dan Meñaka'n jaioa zan eta bere auzokide batzuk gogoan euen eritarrai "Kurutze-Guda"ren alde zelako itzaldi beroak egin eutsezan bere errian. Kristiñauak ziran jarraitzailleak oirelan artzen eben Barri Ona.

Erritik urrekoa zan ezkerro, berak ondo ezaguteen eban gure sendia eta politika-arloan geunkan entzutea..

Egindako azterketearen ondorenak emoteko ordua eldu zanean, D. Fermin parrokoari dei egin eta auxe esan eutson:

Gordexola'ko senninarioai ez dago guztiontzat lekurik.Larmuri'tilc Iñaki Mintegl eta Juan Gezuraga artuko doguz. Iruganrena, Fmntzisko Bilbao, beste baterako itziko dogu.Jakin be ba-dakigu zelako senditik datorrenl

D.Frantzisko'ren berbak pozoia euen barruan eta bere biotzaren estutasuna ta mingortasuna agertzen eben. Bere politika-asarreak,bere auzoko ume baten aurka agertu bear izan ebazan.

Larrauri'ko nire lagun biak sartu ziran Seminariora. Nik lenengo urtea aske egin neban,seminario barik. D.Fermin'ek eta Larrauri'n laguntzaille zan D.Juan Manuel Zengotita'k irakatsi eustezan latifiaren lenengo urratsak.

ZAZPII GAZTELU-ELEXABEITI'KO SEMINARIOAN: 1948

^ Bigarren urterako seminaria joatea, aitaren eriotzeagaz batera izan zan. Aitaren bizitza osoa oiflaze utsa eta barrua austuta eukitea izan zan eta orrek bere gaisoagaz batera azpi-jana egiten eutson.

Nitzat gauza gogorra izan zan eguneroko ainbeste ikas-aldi betetako bear zan araudi estua onartzea, eta, sarritan ezer be ez neban ulertzen. Nire gaztelerea txiroa zan eta ez neban ulertzen esaldi ta berba arruntak baifio. Gaiñera gure irakasleak, aurrezurrejai Titageunkazan eta ez euskuen ezelako laburpenik be euskeraz emoten. Ori egin ba'eben asko erreztuko eben nire ikasketak ulerleza. Oso-osoan egozan euskeraz berba egitearen aurka, eurentzat amagandik ikasitako izkuntzea izan arren.

Egun ezagun batzuk marketan eben gure bizitzearen joana. Urtero sartzen gintzazan San Migel-uiguman, ikasturtea Seminarioan asteko. Seminario-egunean gure errim etorten giñan, sotanaz eta bekaz jantzita, dirua eskatzeko. Gi^nak etxeko giroan igaroten genduzan eta Erregeen egun-inguruan barrero Seminarioa bagillaren 21n. eguneraarte.

Etxera etorteko egin bear genduan bidea nitzat amai-bakoa izaten zan: Arratia'ko trmbian lenengo, maleta-artean eta iñoz baserritarrak erailteko eroaten eben txalen baten ondoan.

Solas-egmietan erri-iiiiguruan ibiltzen gintzazan eta samintasuiiez izten genduzan sagar debekatu areik, uda-goienean sagar-landaretan eskegita geratzen ziran sagar elduak. Guda-osteza zan eta gure urdail makalduetan bere ikutua egiten *ehmi* egoera larri orrek.

Gure ikasketak atzerakuntza aundia artzen eben, amagandik ik^itako izkuntzan ikasi-ezifta zan esiagaitik. Iñoz suspensoren bat, edo urtea barrero egiteko eskariren bat be bai. Larrauri'ko nire lagun biak aspertu eta ikasketak itzi egin ebezan.

Ikas-geletan argi ikusten zan, Seminaria sartu-aurretik geunken gertakuntza-mailla ezbaridña. Nire ik^kide Bilbao'tar asko aljebra'ko ekuaziioak ikasita etorri ziran eta guk biderketa edo "multiplicar" egiteko taulak kantuz ikasita beste barik.

Eguneroko euri aspergarriaren antzera etorten zan gure gaifera "adiskidet^un bereizien" arriskua: "Nunquam duo, salten tres", "cum mulieribus, sermo brevis et fortis" eta "noii me tangere" ("Bi ifioz be ez, gitxienez iru", "Andrazkoa Jcaz berbeta laburra ta gogorra" eta "ez niri ikuturik egin").

Gatx egin jatan esaldi orreik norafiokoak ziran jakitea. Eta urteak geroago be ez dodaz ulertzen.

Jazokizun bat daukak gogoan; Osagilleak azterketa bat egin euskun eta banan-banan joan bear izan gendun osagillearen aurrera eta onek gorputz-zati bizi-emoilleak aztertzen ebazan. Ortik azalpen barre-eragille asko sortu ziran. Guztiok ondo urten gendun azterketa orretatik. Zorrotea zan orduan esaten zan barregaia, Gotzai fiaren aurrean liturji-maixuak abade izatekoak aurkezten ebazanean jazoten zana.

Gure irudimenak entzuten eban alkar-izketa au:

Urliak: Bi daukoz... Gotzaiñak ONDO DAGO

Berendiak: Bat dauko.....Gozaiñak: NAIKOA DA.

Besteak. Bat be ez dauko....Gotzaiflak:ELEIZEA IZANGO DA ORDEZKOA.

DANA LABUR-LABUR:

Urteen joan[^] argiago agertzen dauz azpiratu bear izan nebazan azterketak eta baldintzak. Etxeko giroa oso ona zan, baiña sarritan larria. Ume-denporan batetik bestera ibilli bear izan neban,aterperik aterpe,etxerik etxe, eta aitaren gaisoak eta bere eguneroko illuntasunak neure burua illundu egiten eustan; ni, sotana batzez jantzita, ez nintzan leku guztietan onartua; eta batez be neure barruan neroian zauri larri bat, uste izaten neban aurrera egiteko iñok be ez eustala laguntzen.

Neure fedeak naroa auxe ziurfcatzera: Ba-dagoala BATEN BAT, ZERUKO AITA dan bat, bere ardurapean gu babesten gaituana. Eta ori beti ipifii dot sendia aurrera aterateko bere osasuna eta bizia emon ebazan eta nire sortzaille dan aitaren parean. Nire sortzailleak bere seme-alabakaz ori egin ba'eban, zer ez ete dau egingo maitasunean bardiñik ez daukan AITA'k?

(PIE) ORKATIL-JANTZIA ZAN AGIRIKO GURE EZAUGARRIA.
ATEZAIÑAREN EGITE OSPETSUAK...

1951 Gasteiz'ko seminarioan, Morokil joko-taldea (Txapelak)

1952 Gasteiz'ko seminarioani Filosofi-urteetan.

1954 Gasteiz'ko seminarioan; Filosofi-urteetan, txapeldunak.

ZORTZI GASTEIZ'KO SEMINARIO A: 1962

52-53 urtean Gasteiz'ko Seminario'ra joan giftan. Askatasunerako bidea izan zan. An atzean geratu jakun Gaztelu. Elexabeiti'ko Seminario illun eta egoera goibelekoa.

Azkenean, beste ikaskide batzuen aurrean geunkan gertakuntza laburragoaren arazoa azpiratu gendun. Nire ikas-neurriak geienak "notable" edo "oso ondo" ziran, iñoz "sobresaliente" edo "bikain" en bat be bai, baiña nitzat geien eskertzekoa, ango onartzearen giroa zan.

Nire guraririk bizienak norki normal lez neure burua osatzekoak ziran. Ez neban santu-bidean aurrerapen aundirik billatzen eta ez nintzana baiño ohea agertzeko naierarik be.

Nire lagunen artean biotz oneko jentearen eta alkar-lagunen giroa egoan ikasketan naiz artu-emonetan.

Futbol-taldean atezaita nintzan eta ori nitzat gogo bizkortzen eustan gauzea zan. Nitzat atezain izatea ez zan edozein gauza. Iñoz jokatu gendun Arabarren Ekipoaren aurka be^au orduan 3n. maillakoa zan. Oker ez ba'nago Mendizorrotza'n izan zan joko-aldia eta bi ta bat galdu gendun. Gol irabazlea, penalti baten ondorena izan zan. Orrenbeste, ez gitxiagorikl

Irakasle batzuk euren ontasunaz eta balioaz arrituta itzi ninduen, esaterako Arabiotorre'k, Urbano Gil'ek, Pepe Manzana'k eta Gregorio Yurre'k.

"Aberri eguna" ospatzen neban lagun ziur batzukaz. Euskerazko abesti batzuk abesten ganduzan isilpean. Nire inguruko geienentzat gogoan be artu bear ez zan eguna zan. Nik osterari neure sendian xurgatu neban.

Ezin dot aitzu zelako amorrua sortzen eben nigan laterri.ezaugarriak aurrean ikusteak, esaterako nire maillakoen arduradun eta irakasle zan D.Pablo Bilbao Aristegi'ren maian. Egin-bearrekoa zan itzaltasunezko eta aintzazko arduradunai ikustaldia. Ezin ukatu egin-bear ori betetea gaitxa zala nitzat. Nintzan langoa nitzalako eta euren maian ikusten ziran gauza batzui neutsen barruko gorrotoa nintzelako, nire biotza illundu egiten jatan eta nire sentipenak garrastu. Anderantziz, ezin itzi aintzat artu barik gure maillako arduradun orrek sartu euskun eres kiasikurako zaletasuna, asti-aldietan ipinten euskuzan eres-mintzakaz.. Gaur eres edo musika oirek zaletuta nauka eta ez dot aukerarik galtzen ori entzuteko.

Beti izango da nire barruan Gasteiz'ko Seminarioaren gomutaki eskertsua.

Antxe bete nebazan nire ogei urteak. Aitak itzi eustan utsunea ez zan bete. Astiro-astiro ba-goiazan bizitzan gure bidea zabaltzen. "Baratzetik urteteko" ordua zala erabagi eta Laurrauri'ko parroki-ondoan bizilekua bat artu gendun errentan. Urteak joan, urteak etorri, nire bost anaiak ez konduta joan ziran eta ama ta biok geratu giftan bizi-lekuan.

Ez dot itzi gura esan barik, nire ikasketako gastuak ordaintzeko prest egon zirala baratzaren jabeak, baiña Kuba'ko nire osaba-izekoak artu eutsen aurrea. Zakarias Atxikailende osabea, amaren nebea, eta Mercedes Santos onen emaztea jatetxe baten jabe ziraii, baita Europa Ostatu Nagusiaren jabe be Zulueta'n, Kuba'ko Las Viliás'en .

DERIO'KO SEMINARIO'RA:1956

Gasteiz'ko Eleizbarrutia zatitu egin zalako, Bizkai'ko abadegaiak Derio'ra etorri giñan Teologia edo Jainko-Izti'ko azkenengo ira urteak egiteko. 1956n. urte onetan D.Pablo Gurrutxaga'k artu eban Bilbao'ko Eleizbarrutiaren arteain-ardurea, DrCasimiro Morcillo'ren ordezkari.

Abadetzara eltzeko gertakuntza-ekiñaldia zan. Azken-erabakiak artu bear ziran eta lenengo ordena txikietara eta gero aundietara urreratu. Amets arduratsuak geunkazan abadetzara eltzeko orduan.

BEDERATZI

UDAN AZKENENGO OPORRALDIAK

1957-1959 urteak ziran. Seminarioan barruko ikas-urte estuak igaro ondoren, udako oporraldia gozagarri eta ondo irabazitako atsedeen lez arteen gendun.. Erriko jenteagaz bizitza arrunta bide dala, artu-emonak eukiteko gurari bizia geunkan.

Abadegai lez azkenengo urteak ziran. D.Fermin nire parrokoa, orduai Larrauri'n gengoan, gizon zabala ta kanpo-zalea zan eta gai izan zan ni, jenteteagaz artu-emon arruntak bide dirala, erri.-barrura sartzeko. Musean jokateen zan zalea, ori zan bere ametsik aundiena, pelota-jokoak erateen ebazan eta beti azkenean azkari edo meriendaren bat gertateen eban oso egokiro Sofia bere etxeko andreak. Patatakaz egiten ebazan anraute-opillak guteat benetan gozoak ziran,

Batzutan janariak aldatu egiten genduzan. Lenengo kaskalluak, angillak (txitxardiñak) eta txangurroren bat arrapateen genduzan. Orduan oraindifio ez egoan ekoliji-zaleen begirapen aundirik. Eta geienetan arraintek bere frutuak emoten euskuzan.

Errekeak beti ez euskun emoten gure askariak egiteko bear gendun beste. Orduan katuak arrapatu eta eizatuten genduzan. Bai. Ondo esan dot. Inguruan ebiltean katu[^] eizateen genduzan gure zizpakaz. Eta eiza orretan trebeak izatera eldu ginteazan. Katuak eizatu ondoren, egun bi edo iruan aizetan ipinten genduzan. euren usaintxu bereizia galdu egien. Beti aurkitzen gendu atxakiren bat, olako jaki gozoakaz apariren bat erateeko.

B[^]e lotsa barik esan bear dot katuaren aragia ondo gertatu ezkeron ez dala untxi edo konejuarena baiño txarragoa. Aragi zuria ta bigunagoa da.

Gaur Gomute Bizi oneik idazten nagoan aldi onetan, sinistu-eziña da alako janariakaz eta alkarteeakaz poza arteen genduala. Baten bateuk, bear ba[^]da, ja[^]kizun oneik irakurrita, lotsatu egingo dira, baiña benetakoak dira orri oneitan azalteen dodazan beste gaien anteera. Benetako zorientasunaren urteak ziran.

Bein baten lau katu eder eizatzea lortu gendim, kazuela ederretan gertatu genduzan eta urrean egoan tabema batera eroan genduzan, ERRITXENE zan onen izena,. Anabost-bat lagun batu giftan aparria egiteko. Parrokoak, sukaldariak eta neuk izan ezik, beste [^]iztiak uste eben janaria konejua zala. Baifta beti egoten dan lez, auzoko maltzurren bat egon zan geroago ta katu gitxiago egoala konturatu zana eta ori, zergatik zan jakin barik, Larrauri'n udan eta Patxi inguruetan tH:inbereagaz landetan eta errekatxuetan ibilten zanean izaten zala. Eta, aparria bero-bero egoan baten auzokide maltzur orrek benetako katu baten anteeko miauuuu bat egin eban eta maikide guztiak zutundu eta bazter guztiak billatu bear izan ebezan euren urdail larrietatik katukiak aterateko.

Eta olako giroan, erritarren artean beste edozeiñen anteera, igaroten nebazan nire oporraldiak. Orduko giroak ez eukan gaurkoaren anteik, gaurkoa banaka ibiltekoa eta barru biziagokoa da eta guztiok dakigu ori zergaitik dan. Pelota-joko, katudun kazuela, txangurru eta musaldien artean, arteaintearako gertateen joan nintean, neure giza-osokuntea abedetearako aberastuz.. Orixe zan egimeroko biziteak irakasten ebana, gure irakasleak ikas-geletan eguna igflroteko emoten euskuezan Seminario'ko latiñen eta tomisten teoloji-eztabajen ante aundirik euki ez arren.

Urte areik eta bizi-bizirik ziran ekinaldi areik gure gomutamenaren barrena sartzen dira eta orduan ibilli gintzazan eta ain maite dodazan tokiak ikusten doguzanean, gainera urtetan dira. Osasuntsua dana, zabalkorra da. Kazuela batek zabaltzen dauan usaina, lagunaren barrea, milla bider ikusia dan ikuspegi baten margoak, alkar-izketa luze ta nasaiak... pillatu egiten dira isil-isilik gure biotzean. Olerkari batek diñoana jatort orain burura: "Gogoan daukagunak, izan garana eta geiago ifloz izango ez garana dakarsku aurrera. Bizitzaren joanean bidean izten doguzan urratsorreitan, geure adarjoana gura dogu geutzat Gogoratu egiten dogun artean bizi gara."

Sarritan egin genduzan olako askariak poz-oiuka, zortzikoak abestuz, gure eztarria ozkirritu eta gure berbea bizkortu egiten eban txakolin ozkirria artuz.

Ez noa esan barik izten udako arratsalde baten Larrauri'ko zelaietan jazo zan jazoera polit bat. Ni nengoan zelai aretan apurtu batek eraginda kaniio bat geratu-bearra izan eban kamioidun batek. Ezaguna neban. Beragana urreratu eta neure burua eskifti neutsan laguntzeko. Zerura begira eta ikubillak estututa birau bat bota eban Egillea eta egiftak dana madarikatzen ebazala. Orain be oraindiferio irarrita daukat neure buruan eta, irakurle maitea, egingo neuke ez zarala gai dana jarraian agozkatzeko nik esan-ondoren. Danetarik eta geiago entzun bear izan dot..., baiña a esaldia beste guztiak baiña ikaragarriagoa zan. Nik, bigun-bigun eta bildurrez, esan neutsan ia bota eban orregaz zerbait irabazi ete eban.. Berak au erantzun eustan: "Galdu be ez dot ezer egin"

Alkar-izketa ori ebagi egin zan berak ate-golpe bat emonda eta ni isilik alboratuta. Konturatu zan antza zer esan eban, ze amabi urte igaro-ondoren, gauzea gogoratu neutsan beragaz txikitoak artzen nenbillan baten. Adiskide lez parkeztatu eban. Gero, urteak joan eta gero, itzi eban kamioi-lana, bere izakerea be baretu etaberemiña neurritsuago biurtu zan.

Birauen maratoni luzea ez zan giza-berbea, gaiago ziran tximistak, odei-otsak eta inizituak eta betirako geratu zan nigan irarrita.

Nik nai neban baiña ariño joan ziran asteak, baiña beste au be esan bear dot, ia beti joaten nintzala pozik Seminarioan ikas-urte barria asteko.

Azkenengo udan, nire osokuntzarako atnabigarren urtea asteko sartu nintzanean, biotzetik urtetan eben negar batzuk isuri nebazan. AI neban moduan ezkutatu nebazan eta irri-barre itun bat agertu neban nire etxeko maitatuen aurrean. Argi ikusten neban el-mugara eltzen nintzala. Baiña neure etxekoakandik urrintzea iftoz baiño geiago kosta jaten... Zergatik ete zan etorri jatan illunaldi larri ori...?

Ifio al baleust ori ^aldu, eskerrak emongo neuskioz. Argi geratu beite nik neroan deiari erantzutean emoten neban urratsa, gogo osoz emoten nebala. Jauna! Oneik bai oneik giza-izaeraren ezkutukiak!

(PIES):

Nire abadegintza-eguna, 59. D. Klaudio Gallastegi nire lenengo mezako *Mmiñ*.

Neure... (como estd)

NIRE MEZA BARRIA, 1959n. URTEAN.

Eskuau mun emotea ta j ai-giroko bazkaria.

AMAR

ABADEGINTZA. 1959

' 1959n. urtean, bagillaren 28n. egunean, Bilbao'ko Frantzisko Deunaren parrokian, Bizkai'ko 34'k artu gendun abadegintza. D.Pablo Gulpide Gotzaifta izan zan eleiz-ekintza aren bum.

Larrauri'ko pmTokian emon neban meza barria. Neure gurari agertua zalako, Maite ta Luis Jabier Arana izan ziran aita bitxi-amabitxiak, biak gu bizi izan giñan baratzeke jabeen seme-aiabak. Ezin etorri izan ziran Kuba'tik, nik eurai nire abadegintzako aitabitxi-amabitxitza eskiñi arren, Kuba'ko nire oasaba-izekoak

Eleizkizuna bero-beroa izan zan. Ama, anai-arrebak, senideak eta, zelan ez, an aurrean agiri ez zan nire aitaren irudia naikoa ziran nire biotza beteteko. Larrauri'ko ume-aldian *izm* nebazan auzokideak, gogo beroz egon ziran nire eleizkizunean. Eurak an egotea niri eusten maitasunaren ezaugarria zan. Larrauri'n eta inguruetan ume ekintzetan aurrelari izaten zan eta egiten ziran okerkeritxuen egille zan ume arenganako maitasuna agertzen eban areik an egoteak.

BerbaJdia D.Klaudio Gallastegi Bilbao'ko San Anton'go parroko ospetsuak egin eban. Gorputz aundiko eta biotz aundiagoko gizona berau eta ebanjelioko inñutzaren antzera artu nebazan bere berba oneik: "Patxi, orain arte Patxi izan zara, baifia oraindik aurrera D.Frantzisko esango dautzue. Zuk ez aldatu zeure izakerea, Don entzuteak ez dagitzula aiztu-eragin Jaungoikoagandik zenbat artu dozun.

D.Klaudio'k naikoa ezagutzen nindim biok geunkan lagun bat geunkalako.

(PIES)

MEÑAKA. Nire lenengo izendapenaren erria.. Andra Maria'ren eleizea, Orma orrein barruan egin neban berba eta fedez sinisten nebana ondo agertu neban. Eta pentsetan nebanaren bidetik ekin neban

Erria, aidetik ikusita.

Udaletxearen plazea eta frontoia.

MEÑAKA.

Josu Agirre da, erri onetan Patxi Bilbao'k indartu nai *izm* ebazan oituren agerbidea bat.

Josu Agirre'k 73 urte daukaz eta gogoan dauka aldi aretako egoerea, Euskalerriko probalekuetan aberedun guztiak egiten ebezan demak, euren idi-buztarrien indarra agertzeko.

LARRAURI, 1965

UMORE ONA joko-taldea. Atezain, Felix nire anaia, Futbolean areriorik gogorrenak giftan. Jolasetako norgeiako polita errien artean. A bai gauza polita!

1959n. URTEA: Ama, bere aunditasunean bakarra. 63 urte eukazan.

Felix nire anaia Larrauri'ko eskolan.

AMAIIKA LENENGO ARTZAIN-LAN LEKUA: MEÑAKA, 1959-07-13

/''' V

"Meiaka' ko laguntzaille eta Mefiaka-Banreneko lekaimeen kapellau" da izendapena. Zure parrokoa D:Pask^io Etxezarraga izango da.

Eusebia nire ama lagun nebala, abade-etxeetariko batera joan nintzan bizi izaten.; beste abade-etxean parrokoa bizi zan, Beatriz bere lobeagaz.

Egunero joaten nintzan Meñaka-Barreneko lekaimeen etxera, joan-etorria lau kilometro.

Meñaka'n poz bereizi bategaz artu ninduen.Ezaguna nintzan, Larrauri'tik urrean egoalako.

Bape gogo barik, D.Paskasio'gaz berba egin-bearrean nengoail. Emen diflodan au iñor irainduteko asmo barik diflot. Baiña nire bizitzea diran oar oneik idazteko erabagia artu ba'dot, berez datorren gauzea da nigaz bizi izan ziranak agertzea. Bizitzan ez gara ugarte bakartiak.

Nire abade-lana asi nebanean, Eleizan sakon sartuta egozan burubide batzuk kendu bear izan nebazan. Oiturea lege biurtzen da eta legea zuzena ta onena dala uste izaten dogu.. Baiña ori ez da bidezko gauzea. Goazen aurrera.

- A) Urtean bein kanpoak bedeinkatzera urten bear izaten zari,etxerik etxe, monagillo bi bakoitxa bere sakuagaz lagun genduzala. Eta saku orreitara baserriterrak dirua botaten eben. Ain lotsari aundia artu neban ze, partokoari esan neutsan aurrerantzean neu bakarrik joango nintzala, "eleiz-zergak" batzeko ziran lagunlzaillak barik. Urrengo urtean, neure motorrean joan eta parrokiaren lau ertzetan geratu nintzan eta andik kanpoak bedenkatu. Ori orrelan egin arren, nire parrokoa ez egoan gertu lengo irabazi ona galtzeko eta ondo izango zala erabagi eban, aste guztian monagilloak biatzea, etxerik etxe, baserritarren "borondatea" batzeko. Bigarren urtean amaitu *zmi* egoera ori, nik nire artzain-laneko ulerbidean sartu ezin nebalako.
- B) Aldiaretan gorpuak etxetik kanpo santura "sorbalda-gaiflem" ekarten ziran.Sarritan iru kilometroko bidea egin bear izaten zan..Bide-kurutzeetan guztiak gelditu eta abadeak"Patemoster" bat esaten eban eta gero bonetea pasau limosnea batzeko. Bigarrenez egin bear izan nebanean, nitzat eziña izan zan.
- C) nietea egiten zanean, illetara etorritako ildakoaren senideai bazkaria emotea zan oiturea eta illetan izan ziran abadeak be joaten ziran. Meftaka'n erriko abade bi gifian eta Larrauri'tik etorten ziran beste bi eta beste bi Airieta'tik,bata bestea baiño eun metro aurrerago eta agurtza edo errosarioa errezetan inguruko landa ta soloen artean. Gauza benetan ikusgarria zan. Errazoia irabazia ugaritzea zan eta gaiñera sei abaderentzat bazkaria. Lenengo illeta bietan baiño ez nintzan joan bazkarira.Lotsea nitzat galgea zan.

- D) "Goiko eleiz-agintarien" agindua zan latinezko meza-otoitzak onelan amaitzea: "Et faniulos tuos Papam nostrum Pium, Antistiten nostrum Paulum ,ducem nostrum FRANCISCUM, cum populo sibi commisso ete ejercitu suo, ab onni adversitate custodi, pacem eta salutem..." (Eta zure serbitzaille diran Pio gure Aita Santua, Paulo gure gotzaiña, eta Frantzisko gure buruzagia beronen menpean dtran erri ta gudarosteagaz, kalte guztietatik zaindu egizuz,emon bakea ta salbamena...) Ifioz ez neban izan almenik "Goiko Eleiz-Agintariak" agintzen eben era orretan otoiteak amaitzeko.
- E) Ezin izan neban jazaii sendiak abadeena eritsona ordaintzera beartzea, etxekoren bat ilten zanean dana ordaindu bearko ebela zemaia eginda. Eta pMTokoak orrelantxe egiten eban. Eriotzearen saminasunak sendia menpean eukanem parrokoaren ustez une egokia zan ekonomi-kontuak i^katzeko ildakoaren etxekoai. Ba-da ori gero, kristiñauen zurt^una ta ont^una agertzeal
- F) Laikoen antzera kaleko jazkia jazteko baimena etorri zanean,eleiztarrak ondo be ondo artu ninduen.

Bai. Asko izan ziran apurtu bear izan nebazan oiturak, baiña ezin guztiak aitatu orri onetan. Nitzat onartu-ezifteko gauzak ziran eta kendu egin nebazan, naizta beti euki parrokoaren ezetzik biribillena.

Mefiaka'ko eleiztarrak ondo artu ninduen. Gazten eta elduen arteko fiitbol eta pelota-jokoak eratzen genduzan. Gazteen et elduen arteko anaitasun-bazkmak eta apariak egiten ziranean, geienak erantzuten eutsoen deiari. Alkartasun ederra ikusten zan aititen,gurasoen eta seme-alaben artean. Abadeak eta erriak bat egin eben ain ondo ze, neurri baten ulertzeko gauzea zan "guardi zibilla" bekaitzez edo enbidiz beterik egotea.Izen ori ipifii eutsoen D.Paskasio parrokoari.

Orri oneik artu neikez bide lez gizon orren jokabidearen zeaztasunak botateko. Ez dot gura, zintzoa izan bear dodalako, berari buruz erriak uste ebanagaz poztu. Nik ez dot egin bear besterik emen, neuri jazo jatenaren agertzaille *izm* baifio.

AMABI

AMAREN ERIOTZEA: NIRE BARRUA UTZITUTA

1960n. urteko bagillean il jatan ama. Begofla'n, Salaberria'ren klinikan egin eutsoen ebaiketea eta ebaiketa-ostean ogei egun egin-ondoren, telefonoz esan eusten amaren billa joateko etxera ekarteko.

Motoixean joan nintzan klinikara taxian etxera ekarteko. Klinikearen atera eldu nintzanemi esan eusten amaren eriotzea bat-batekoa izan zala. Bum-makur, igon neban neure motorrera. Ez dakit zelan eJdu nintzan etxera. Nire begiak zur begiratzen eben bide zabalera, baiña nire biotzaren begiak urterik urtera amagaz izan neban alkar-bizitza ikiBten eben.

Meñaka'ko neure parrokian egin zan illetea, Eleizea bete-beterik egoan, Larrauri'ko ta Meflaka'ko jenteagaz. Azkenean^Meflaka'ko illerrian lurperatu gendun. Beragaz joan zan neu nazanaren zati bat,semeari dagokion neu-zatia. Bera neure biotzean geratzen zan ama lez. Aitaren Etxean dagoala,azkenean, neukan itxaropena ondo alkatu neban bera aurrean ez eukitearen samintasunagaz eta maite gaituenak bizi diran artean lurrean bizi garala diflon ziurtasunagaz.

Amaren ilietea egin eta urrengo egunean, parrokoak "illetearen gastuak" ifloan agiria ekarri eustan. Bere boiotz-zabaltasun biguna berba oneikaz agertu eustan:Neurea ez dautzut kobrauko, baiña eleizako argien kostua eta abeslariena 700 pezetak dira. Abeslariak beti parrokian abesten ebenak ziran. Zurtz eginda geratu ziranjakinebanean.

Ez dot ukatuko orri oneik idatzikeran nire barruko miña biztu eta orduan asmau neban barruko zauria barrizatu egiten dala Samintasunaren eta ezintasunaren gomutapena oraindifio neure biotzean daukadaz. Parkatzeak ^katu egiten dau, egia da, baiña ze gauza gatxa dan gomutapena aiztutera beartzea! Gomutapena buru-gogorra da, bear ba'da beti biotzetik igarota dagoalako. Gure gomutapenak biotzaren bidetik aukeratzen dau.

"Ondo be ondo ulertua" dan parrokoaren biotz-zabaltasunagaz bat egiten dau Meflaka'ko etxe illunean aurkitu neban utzak. Gatx egiten jatan etxe aretan lo egitea be.

Egun areitan agertu zan TELEBISTA'ren barritasuna. Leio zuri ta baltz aretako "ametsezko betetasunagaz " bete nai izan neban amak utzik itzi eban lekua.

Baserrietan oraindifio ez egoan zabalduta telebista. Eleiztarrak nuntzebam egozala jakiflik,etxeareii azpiko aretoa egokitu eta antxe ipifli neban bere tronuan telebista. Jentea batzen zan, batez be umeak eta amak. Zine arruntak,baltz eta zuri, eta danetariko ekifialdiren batzuk izaten ziran. Baten batek otzara bat ipiñi eban atean, nire gogoaren aurka, argia ordaintzeko. Aldi baten telebista izan zan amak itzi eustan uts-unea apur bat biguntzeko eta pentsanientua alboratzeko bide bat. Apurka-^urka telebista etxeetara zabaldu zan eta geroago ta gitxiago ziran etorten ziranak. Orretarako gertatu nebaii aretoa gazteen batzar askotarako be ondo etorri jatan.Egunak joanez, asieran sartu nintzan neure bakartadetik urten neban.

(1960-05-30)

1960n. urteko maiatzaren 30n. egunean, Gotzain euskaldunai egindako agiri bat izenpetu gendun. Askatasunik-eza, giza-eskubideak bein eta barririo zapaltzea eta manifestapen guztiak debekatu eta aurremi erabiltea salatzen gendun. Gutariko askorentzat izenpetze ori izan zan "suzko bateoa", Beingo baten Gobemuak eto izparringi Franco-zaleak agertu eben euren asarrea abade euskMunen aurka. Egokitasuna zaindu bear eben indarren ziurtepen lez Ildebrando Antoniuti Nuntzioak, Seminario'ra egin eban ikustaldi baten, gu, agiri onen izenpetzailleok, "abadeen artean kaskarrenak" gifiala esan eban.

Esimña'ko Gotzain guztiak, geureak barru dirala, fede^purfailleak edo antzekoak giñala esan eben.

Baserrietako gure parroketan, Katoliku-Ekintzaren zati lez "Erri Gaztedia" sartzen alegindu gintzazan. Orduko gazte meñakarrak alegintzen ziran erriaren eskubideak aldeztutea fedeari baietza emotea zala ulertzen. Dana zan gauza naikoa xumea, baiña urte areitan Meñaka nire errian egoan giroak artzain-lanaren ondoren onak itzi dauz. Ori agertzeko naikoa da jakitea, gaur, espetxean aldi luze bat igaro eta beste erri batera aldatua izan eta 40 urte igaro-ondoren, euren gomutamenean eta biotzean naukala jente oirek eta urtean bein, beste ogeita amarreg^ batera apaltzera deitzen daustela.

Gogoan daukat urte batzutan, Begofia'ko Amaren egunaren aurreko gabean, gure gaztedia, abadeak aurrean zirala, Amatxu ikustera joaten zala Begoña'ra. Illuntzean urten eta, 15 km. 'ko bide luzean abestiak eta otoitzak egiten genduzan. Qr artzen zan aukerea gure gazteak autortzeko. Goizeko laurak-ingunian Basililan mezea egiten zan eta gero, Mungia'ko trenean etorten giñan etxera.

Egunero esaten neban mezea Meftakabarreneko lekai-me-etxean, joan etorrian lau km. eginda. Asikeran bizikletan joaten nintzan, gero motorra erosi neban. Urte batzuk igaro ziranean, parrokoak kotxea erosi eban parrokiaren zerbitzurako eta berak beratzat erabilten eban. Iñoz nik artzen ba'neban, egualdi txanra egoalako-edo, neure dirutik ordaindu bear izaten nebazan kilometroak. Illero ordantzen neban zorra berag^ kontuak eginda, kotxea paiTokirako izan arren.

Kotxe bat neuk erostea erabagi neban eta Martzeliña nire arrebearen senarra zan Juan kofietuaren izenean ipifii neban

(PIES): 1959 Bartzelona'ra ibillaldia Julen Kalzada, Martin Orbe eta Balendin Zabalo neure adikideakaz.

EUSKERAZko iragarkiakaz artuak-

Arro-arro erakusten dot nire praken lotura, IKURRIÑAREN margoakaz. Au zeero galazota egoan Esukadi'n. Eskerrak Fragak ori jakin ez ebana, ostantzean lotura orregaz korbatea egingo eustan eta ondo estutu neure sama-inguruan.

Derio ko Seminarioan Jesus Arrien adiskideagaz.

Gogo-jardunak? Orreik izango ziran. Ostantzean ez da ulertzen ainbeste artzain ardiñetakoak alkartutzea...

zar lagun dogula, Txomin Onaindia, Arostegi, Kortabitarte, eta beste bat.

in ziraneakoa.

oitzagaitik

BERBALDI BAT ETA...BA-DATOR NIRE BIDE LARRIA(ODISEA)

Jazokizun batek izan eban ikutua neurea ta artzain-lanarena zan bizitzan.

Irailaren 2n. eguna zan eta Gamiz'en zaindari eben San Antolin'en jaiak ziran. D.fCristobal bertako parrokoak dei egin eustan egun orretan berbaldia egiteko. Eldu zan beraldiaren ordua eta, berba-lekutik metro bira, lenengo jesarlekuan, Erriko Udal-Batza egoan alkatea aurrean ebala. Erriko bandera ba-eroien baiña au ondo eslalduta eukan Laterriko bandereak.

Berbaldia asteko, bare-bare itxaron neban eleizako isiltasuna oso-osea izan arte..Gero esan neban:

Eleizea sinistedun guztiok otoitz egiteko batzen garan tokia da.Orregaitik eleizearen barruan sobran dagoz banakuntza sortzen daben ezaugarri guztiak. Bakoibcak kalean agertu dagizala bere pentsaerak eta bere ezaugarriak. Eleizea alkarlasunaren eta otoitzaren tokia da eta, orregaitik, emen sobran dagoz estutasunak eta banakuntzak sortzen dabezan ezaugarriak.

Ziur nago iftok ez dauala gogoan izango gertatuta eroan neban berbaldia, baifta ziur bai gogoan izango dabela izango dabezela bereztasun arduratuagaz niri urten eusten esaldi areik.

Lenengo aurkian egozanak, batez be alkateak, bere gorputzari eragifia egin eutson aurkian, "bere gizontasunaren gorputz-ezaugarrietan bertan " ardiren batek pika egin ba'leutso lez.

Ospi^izuna amaitu zan eta alkateak sakristira etorrita abadeari esan euteon sendo eta gogor, arazoa Gobematzaillearen eta Gotzaiñm"en aurrean salatuko ebala. Zemai egin euteon, gaiñera, urrengo egunean, ildakoen alde egiten zan mezan izlari berak berba egiten ba'eban, baitua izango zala. Eta ni berbaldi biak egiteko berbea emonda nengoan lez, parrokoak ez eustan eragozpenik ipifii, zer jazo leiteken esanda. Urrengo egunean egin neban bigarren berbaldia. Egia esan, Udal-Batza ez zan etorri; baiña onen utsunea gaiñezka bete eban etorri ziran eleiztarren ugaritasunak. Erri guztian zabaldu zan baikuntzaren zemaia eta ikusi-gureak jentea eleizara ekani eban euliak eztira batzen diran lez.

Andik iru egunera, D. Pablo Gurrpide Gotzaiñaren deia artu neban. Nik esan neutsan ez nebala ezelako banderarik aitatu berbaldian, bakarrik esan nebala " eleizan sobran egoala banakuntzaren edozein ezaugarri". Berak ez euteon jaramonik egin nik esanari eta aginpide osoagaz erantzun eustan: "Laterriko bandera guztiena da eta orregaitik eskubide osoa dauka jai-egun baten erlejifto-ekintzan amrean egoteko".

Nik itealtasunagaz baifta sendo erantzun neutsan: "Ori bere eritxia zala. Laterriko bandereak banakuntza sortzen ebala eta ezin leikela onartu eleizan".

Erri-Gobemaritzatik arazo onetan estu artzen ebela agertu eustan. Eta zigor lez, parrokian illebetea berba egitea debekatu eustan.

Nik esan neutsan: "Ori idazkiz esaten ez ba'daust, zigorra ez nebala onartuko, zuzentasunaren aurkakoa dala uste nebalako.

Idazkiz esan eustan eta nik berbaldiak egiten jarraitu neban.

Urrengo urtean, Gamiz'en bertan eta jai bardiflean 25 abade batu gintzazan. Udal-Batza ez *zm* etorri baiña "isilleko polizi" askok begiratzen eben eleizeM^n inguma. Agiri-agirian egoan larritasuna, baifla ez zan gauza bereizirik jazo.

Jazokizun onen ondoren, nik uste neban gauzea aurrera ta geagora joango zala, baifia ez zan orrelan izan. Antzeko estutasuna agertzen zan beste parroki batzutan eleizpe batzutan egozan oroitarri batzuk kentzen ziranean. Arri orreik 36-39 urteetako Kurutze-Gudan Jainkoagatik eta Espafiagaitik il ziranen izenak egozan. Guk alegifia egiten gendun eleiztarren artean banakuntza ta zatiketa soilzeko oifiarri zan dana kentzen.

Or bitartean, Meñakabarreko lekaiameak Gotzaiflari eskatu eutsoen euren eleizatxuan esaten zan domeketako mezea erderaz izan daitela. Meza orretara auzo aretako 50 eleiztar euskaldun batzen ziran eta lekaiameen artean amairuk ba-ekien eta ulertzen eben euskerea. Ez neban onartu gotzaindegitik esan eusteia, egokia ez zalako.

1967n. urteko aprillaren 12n. egunean Bilbao'ko Kale Nagusian manifestapen bat eratu gendun. 77 abade joan ginteazan. Guztiok sotana to guzti. Josulagunen eleizatik urten eta Corte Ingles'en ondotik Kale Nagusian gora joan eta Erri-Gobemariaren etxe-aurrean batu giñan. Ikusle asko eta estutasun aundia. Oiñazeen eta tratu txarren aurkako agerpena zan. Minutu batzutako isiltasuna egin gendun baifia arin banatu bear izan ginteazan ze polizien furgonetak gaiñera jatorkuzan eta sotanaren baten gaifian porraren batek emondako golpea be entzun zan.

AMABOST

MEÑAKA TA NIRE BIDE LARRIA (ODISEA)

' 1966«. urtean Mefiaka nire errian Juan Abaroa zan alkate. Nitzat barm onekoa eta oso erlejiflo-zalea. Bein baten etxem etorri jatati bere barrua zabaltzen eta ni salatzeko Erri-Gobemaritzatik ekin aundiak eukazala esan eustan eta ori egiteko bera ez egoala ifioz be gertu. Beste alde batetik, parrokoak esan eutsan bera egiten ebalá egingo ziran pekatu guztien errudun, gabeko amarretan erriko jaietan erromeria amaitzeko agindua emoten ez ba'eban.

1967n. urtean udal-batz barria sortu zan, aginduta egoan lez francozaleak osotua. Eta aurrean alkate lez Julian Abando jairi zan.

Argi egoan nire billa etozela. Ba-^kien Gamiz'en zer jazo zan eleizan bamderea egoalako eta orain neure errian ni zirikatzero etozan.

1967n. URTEKO EGUEN GURENA, MENAKA'n

Alkatea paxokoagana joan zan eta baimena ezkatu eutson eleizkizunera laterriko banderea ekarteko. Parrokoak emon eutson baimena niri ezer be esan barik. Urten gendun altarara parrokoak eta biok. Aurrez-aurre aurkitu neban Udal Batza laterriko ezaugarria eroiala. Ni arrituta nengoan. Ezin neban sinistu ori. Berbaldia egin nebanean auxe esan neban:

Ba-dakizue orain Iru urte Gamiz'en zer jazo jatan. Eta orain neure errian aurkitzen naz egoera bardiñean. Orduan lez,barriro diñot eleizan sobran dagozela banakuntza agertzen daben ezaugarri guztiak.

Une orretan abots aundiaz erantzun eustan Federiko Abando, alkatearen osabeak:

Joan orduan etxera.

Eleizkizuna amaitu zanean auxe esan neutsan panroko^i:

Zuk ba-zenklen orl egingo ebela,ezta?

Aurpegia aldatu egin jakon eta ez eustan erantzun ezer be.

GORPUZTI EGUNA: MAIATZAREN 25N. EGUNEAN

Eleizkizun au egin bear zanean,satu ziran bandereagaz eleizara. Sagara-denporMi, udalkide batek, Felix Mantzorriskoak, artu eban banderea,eleizearen erdira joan eta "errenditua" egin eban eta orrelan eleiz osoan giro estua sortu eban. Une orretan, erantzuna emoteko, eleizatik urten eta etxera joan nintzan. Eleizpean egozan 4 edo 5 guardi zibillen aurretik joan bear izan nintzan.

Benemerita edo guardi zibillak an egoteko zioa ,eleizatik erantzuteko urtetan ebanak zigortuak izango zirala alkateak egin eban zemaia izan zan.

SAN ROKE JAIA:AGUSTUAREN 16N.EGUNEAN

IUe gitxiren barruan iragarrenez ekarri eben eleizara laterriko bandera. Nik,erantzun lez, eleizatik urten neban barriro be. Nire duintasuna zaurituta ikusi neban eta auxe esan neutsan parrokoari: Urrango egunean, arimen egunean, ez nintzalamezarajoango. Eta bere jokabide okerra dala-ta, geiago ez nebala eleizan berbaldirik egingo

Erriak bizi bizi oiukatu eban Udal Batzaren aurka,Eta parrokoaren aurka be bai, olako zapalkuntzagaz batera egon eta orretarako baimena emoten ebalako,

Gizon elduen talde batek parrokoagaz berba egiteko guraria agertu eben. Auxe izan zan parrokoaren erantzuna:

Ni zuen artzaiña naz eta ez nago zuek etortearen aurka, geiago, nire eginbearra da. Baldintza bat bakarra ipinten dautzuet:Ez zalfaiet batera artukoJbanan baiño.

Joan ziranetariko batzuk zemaia aundiak enlun ebezan eta isiltzea erabagi eben. Ez dakidaz artzaiñaren eta eleiztarren alkar-izketa aretako berbak zeintzuk izan ziran eta naiago dot alkar-izketa aretako iraiñak ez gogoratu. Ez dakigunean, oba da isilik egon.

Alkatea ta parrokoa okerrerako bat eginda egozan.

Giro larri onetan gengozala,maiatearen 30n.egunean 5 abade sartu ziran gosegrebara, Uste dot bagillaren 2n. egunean eroan ebezala Zamora'ko konkordatu-espexera.

Urrilaren 21n. egunean il jatan Joan nire anai⁴⁵ urtekoa zala. eta Basurtu'ko gaiso-etxean egotaldi bat eginda. Bere gelako lagun lez, Gorozika'ko abadea zan Agustin Idoiaga euki eban, au osatze-maillan.

Azillaren 19n. egunean baitu eben Jose Luis Jauregi, Gamiz'ko abade laguntzaillea. Gotzaiñak ez eban emon epaitzeko baimenik eta aske urteii zan. Jakingarri au kontuan artu bear da, gero nigaz euki eben jokabideagaz konparatzeko.

AMIASEI

BERBALDIA ETA UDAL-BATZAREN SALAKUNTZA

Agoz berbaldiak egiterik ez neukan fez, estuaidia geroago ta lamagoa zafa ikusirik, berbadii bat idatzita atera eta zabaltzea eragabi neban eta abenduaren 3n. egunean banatu neban eleizako ateetan.

Abenduaren 18n. egunean ziñegotzi guztiak salakuntza bat izenpetu eben nire aurka. Idazki ori ez daukat neure eskuetan, oar oneik ez idaztea erabagi nebanean ap^lirtu egin nebalako. Izenpetzailleak banaka oneik izan ziran: Julian Abando, alkatea, eta zifiegolzi oneik: Daniel Ureta, Jesus Izurieta, Anizeto Zelaia, ta Jose Elorriaga. Izen geiago be ba-egoan, baiña ziur gogoan ez daukadazan lez, naiago dot ez aitatzea, ifiori izen ona kendu ez dagiodan.

Zifiegotzien salakuntza, guztiena zan anteekoa eta auxe iñoan:

Nik, urlia nazen onek, eta Udal-Batzean ziñegotzi lez, D. Frantzisko Bilbao salatzen dot abenduaren 3n. egunean eleizan banatu eban berbaldiagaitik, olako gauzak eieizan esan bear ez diralako.

Argi dago guztiak izenpetu ebela euren itsu-begien aurrean ipiñi jaken eskema bardifia .Alkatearen salakuntza zan apur bat luzeagoa eta bereziagoa.

Ni sendi abertzale ta banatzaille batekoa nintzala... nire berbaldietan banderearen eta España'ren aurka berba egiten nebala... Kotxean asko ibiltzen nintzala... Mezea esan ondoren erritik kanpora joaten nintzaia beste abade batzukaz alkartzeko eta batzarrak eglteko ...eta beste salakuntza asko...

Len esan dodan Iez, salakuntza oneik eta beste agiri asko apurtu egin nebazan. Ori jazo zan salakuntza agin-aurretik zabaldu neban itzaldiagaz be. Euskeraz eta erderaz idatzia zan.

Orain emen agertuko dot Erri-Egokitasun edo Orden Publico'ko epaitik artzen dodana.

SALATUAIZAN DAN BERBALDIAREN IDAZKIA..MEÑAKA.-3-12-1967

Ez daukat eskuetan berbaldiaren idazki jatorra. Emen idaz[^]ten dodana ERRI E60KITASUNAREN APAITEGI edo TRIBUNAL DE ORDEN PUBLICO' tik artzen dot. Epai orretan kondenatu ninduen ela epaian itzaldia dator erderaz, nik elebilasunaz idatzia izan arren.

LENENGO ONDORENA: Baieztatua da eta auxe diño: auziperatua dan Frantzisko Bilbao Atxikallende, Bizkai'ko Meñaka'n, Andra Maria'ren parrokian abade jaguntzaille danak, zortziretako meza naguslan, entzule asko egozala, 1967-12-03'an mezan ziran eleiz[^]rral, mezako berbaldiaren ordezkopiakiñean Idatzifako orriak, berrogei ta ama ale baiño geiago, banandu-erazo ebazala ete elebilasunezko idazkiak (euskeraz eta españeraz) auxe iñoala.

ABENDUKO I IGANDEA.-MEÑAKA'N, 1967-12-03

" Guztok ondo be ondo dakizuezan zloakakitik, ba-da ainbat denpom nire berbaldiak entzuten ez dozuezala. Eta ba-dakizue nire Jokabidea, oraingo, orielan jarraitzea daia. Baiña jazokizun larriak arin-bearreko argibide bat emotera beartzen nabe, eta gaur beartuta nago bide au artu eta zuekana eltzeko eglak okermratua izan ez daiten.- Oinarrizko glza- eskubideak argi ta garbi zapalduak diranean, zuzentasunak eskatzen dauana da Eleizeak dauka ozen berba egin-bearra edozen unetan eta lekutan eta benetako askatasunagaz. Berba oneik Batikano'ko II Batzar Nagusian dagoz, Eleizea eta gaurko mundua deritxon agiri nagusian, IV atalean, 76 zenbakian.

Edestlko Jazoera lez antxiñakoak dira erritarren arteko guda errutsua ta anai-illzaillea jazan genduala. Guda orrek neba-arreben arteko gorrotoa izan eban oiñarri eta okerkeri astun bat egin eban: Batzuk irabazie eta eskubidez beterik eta eta beste batzuk galtzaille eta isiltasunaien egoera gizagabea eta negargarrian ezartea, norberaren burua zaintzeko askatasuna ta zuzentasuna eziñak dirala.

Gorrotoak gorrotoa ta apentza dakaz.

Urrin dagon larri-aldi arendoren latzak artzen gagoz gaur. Areri "Kurutze-Guda" izena ezarri jakon baiña izen ori ezarteko ez eukan beste errazolrik auxe baiño: asko izan zirala "kurutzean joslta 11 ziran kristo anai-arrebak". Kurutzeak ez dau eretxia beraganatzen e[^] irabazten maltasunagaz eta parkamenagaz baiño. Ainbeste erru barik baituak, ainbeste izun-zigor larreglkoak, ainbeste oiñaze ziurtatuak, eta

abar eguneroko barri itun eta larriak dira. Argi be argi dago oitura onen aurka dagon gauzea dala beste euren legezko eskubideak zainlzeko berezko bideak kentzea eta Laterriak bide guztiak eskuetan eukitea bere eskubideak zaintzeko. Aspaldion sarriegi datoz izun-zigorak, salakuntzak, ondasunak baitzeak eta abar abade askoren aurka, eta ori berbaldiak egiteko abade-zeregiña beteten dabeiaiko eta giza-eskubideak erri-aurrean aldezen dabezelako.- Oraintsukoa da oraindiño, gure erriaren auzokoa da erri baten egin dautsoena: Poliziak Bilbao'ko Komisarira eroan dabe.- Baltze orren errazoa abade orrentzat omenagarri dan auxe da:Pulpitutik argi ta garbi berba egin dauala..-

Ezia dan edozein erritan baikete bat egiteko etikako baldintza arruntak bete bear dira.- Esandako kasu orretan baiketa auri[^]tiaz ezer esan barik egin da,gaiñera abaderentzat gaizpidekoa ta Iraingarria izan da jai egun baten, eguerdian, kale-kalean,abadeak esandako mezea entzunda etorren elelzarren aurrean egin zalako.- Abadeak poiziaz itaundi eutsenean, ia Gotzain Jaunaren baimenik euker baiketa orrelarako, baietz esan eutsoen e[^] ori,geroago Gotzaindegitik jakin dan lez, guzurra izan zan.- Ez Indarkeria eta ez guzurra ez dira bide garbiak gizarte kristiñaua eta zuzena egltera eroateko.-

Anai-arreba maiteok:Lerro oneik domeketako berbaldiaren ordez doaz, eta zueri adorea emoteko bidea izan gura dabe guztiok jaraitu daigun batzutan gogorra dan eglaren bidea, Jesukristo gure Jaunak egin eban iez, eta orregaitik irabazi eban kurutzea bere azkena izatea. Artu daiguzan kontuan San Paulo'k gaur diñoskuzan berbak: Itzi daiguzan iunaren ekintzak eta jantzi daiguzan argiaⁱⁿ izkiliuak. Argia ta egia Izango dira aske egingo gaituenak,Apostoluak diñoan lez, eta ez illuntasuna ta guzun[^].

Izenpetuta:Frantzisko Bilbao

Idazki au auzipetuak berak idatzia da eta au jokabide onekoa eta zigorketaiako adin eldukoa da.

SALAKUNTZAREN ONDORENAK : 1968

Martiaren 6ii.egunean:Gozaindegitik auxe diñoste:Erri-Bgokilasunaren edo "Orden Publico" epaitegitik ni auziperatzeko barri-emotea artu dabela.Zioa: 1967n. urteko abenduaren 3n. egunean idatzi neban berbaldia

Aprillaren 10n. egunean:Gai ori dala-ta Gemika'ko epaitegira deia.

Maiatzaren 4n.egunean: Epaitegi boratatik bigarren oarra,"Auziperatze-ekintza" legez niri bialtzeko. Epaiketa Madrid'en 1969n.urteko urterillan izango da.

Bagillaren 3n. egunean:Ondasunen ba!keta.Meñaka'ko Udaletxeko Idazfcaria zan Jose Ugalde etorri jatan errikoak ziran lekuko bigaz: Pedro Agirre ta Jose Garmendia. Ez eben aurkitu baitzekorik ezer:kotxea koñatuarena zan,idazkiña lanerako bear nebana, liburuak jakintza-arloko gauza bearrezkoak, telebista umeak erabilteko ete denpoara-pasagarria zm. Etorri ziran lez joan ziran.

Bagillaren 6n.egunean: Neure aldeko lege-gizon lez, Bilbao'ko Jose Antonio Etxebarrieta artu neban, baifia azkenengo unean ezetza emon eustan egun areitan Guardi Zibillen aurrez aurre Txabi Etxebarrieta bere anaia il ebelako. Au izan zala uste dot erakundearen aldetik polizien aurrez il zan lenengoa. Txandako lege-gizona artu neban eta Madird'etik izendatu eben: Jose Arroyo Lopez-Soro. Epaitondearen aurretik birritan egon nintzan beragaz. Ez eban ulertzen zeren alde berba egin bear eban, nire itzaldiaren gaiak beretzat ulertu-eziñak ziralako.

Baiketak geroago ta geiago ziran.aberri egunaren ospakizuna gogoikeriz galazoten eben.Fraga Iribarne ministroak argi esan eban, "Jkurriñari baimena emon baiño lenago bere gorpuaren gaiñetik igaro bearko zirala".

Bilbao abadeak egindako kaleratzearen ondoren, eta olako egoeran Eleiz-Arduradunak isiltasun loteagarria eukelako, Gotzaindegia ^rtzea erabagi zan.Orduan Mazarredo kalean egoan.

Bagillaren 14n.egunean:Lenengoz Gotzaindegia artzea:28 abade egon giftean gau ta egun batzutan toki txiki baten. Elburua Gotzaiñari bultz egitea zan, artu bear eban jokabidea artu eta ulertu-eziñak eta illunak ziran isiltasunak alboratu egizan.

Aguztuaren 16n. egunean:43 abadek ela bederatzi egunetan bigairenez artu gendun Gotzaindegia. Bigarren sartze onetan auxe lortu zan: Gotzaiñak Aldirako Ordezkarri bat izendatu egiala,abadeen arazoetarako. Orderzkari onek etaberonen taldeak ardurea itzi egin bear izan eben iraillaren Sn.egunean.Baina lortu zan guk Gotzaindegian egiten genduati bigarren sartze ori guk iztea. Baifia Gurrupide Gotzaiñaren jokabideak gogor jarraitzen eban. Egoerak gogorragora jo eben. Izparringiak eta irratiak sua biztu egiten eben euren atariko idazkiakaz, beti agintarien aldera makurtzen zirala.

Zeaztuz joian GOGOR izena eta GOGORKERL^REN AURKA GOGORTASUNA lema lez ekarren ^aden alkarte.

Gauzak joiazan lez joiazalako eta erantmnak ain sendoak ziralako, beste Barruratze bat egitea erabagi zan.

ZEMENDIAREN 4n.eguna: Laugarren Bartumtzea, Derio'ko seminarioan.60 abade batu giñan. Eta geroago ta geiago etozan, baiña bildur aundia egoan Agintariak eta

Eleiz-Arduradunak zein jokabide artuko ete eben. Salakuntzaren agiriak bialdu ziran Aita Satuagana, eta beste mailla batzutara. Izan be, Agintarien eta Eleiz-Arduradunen arteko alkartasuna oso-osea ta mingarria zan.

Gurpide'k bat-batean erantzun eban. Barruratzea egin eta urrengo egunean etoiri jakun albistea: Barruan gengoan guztiok "Abade-lanetarako eskubide guztiak" kenduta, "suspensi a divinis" geratzen gintzazan.. Inguruan Polizien fiirgonetak egozan gu zaintzen gau eta egun. Seminarioaren aurrean. jenteak gugaz agertu eban alkar-laguntza arritzekoa ta pozgarria izan zan. Ifioz ez jakuzan falta p^okietatik eta taldeetatik ekarten euskuezati janarien kazuelak

Barruratze au egiten egoala, zemendiaren ISn.egunean il zan Gurpide Gotzaiña. Barri-bide batzuk eriotza onen errua guri bota euskuen. Baifta jazokizun au ez zan naikoa izan guk gure jokabidea alboratzeko eta Seminarioan jarraitu gendun. Artzaiña ardiai parkamena emon barik il zan... agirian beinfczat.

Santander'eko Gotzai fla zan Zirardajauna izendatu eben Bilbao'ko Eleizbamitiaren Apostolu-Zaintzaillea

Aurreko Gotzaiñak kendutako abade-ekintzetarako baimenak emon euskuzan. Baifla egoereak sendo jarraitzen ebaa Ogeta zazpi egun barruratuta egin-ondoren, urten gendun Derio'tik. Gure arpegietan argi agiri zan larritasun estua eta barruko nekea eta geiago aurrera jarraitzeko ikuspegia gatx eta illim ikusten zalako.

(PIES) 1967. GERNIKA'KO EPAITEGIAN.
Abade-lagunak Gemika'ra egin eusten dei baten
Au Madrid'eko epaiketearen aurrekoa izan zan.

MADRID'en, 1969n. urteko uztaillaren 7n. egunean
Abade adiskideak nire epaikunde-egunean,
Erri-Egokitasun edo "Orden Pubiico"ko Epaitegitik eskillaiak bera.

1965n. urtean
Bide-kurutze baten isilleko eskakizuna.

MEÑAKA'n 1965.66
"Gaztedi" batzeko gazteen joko-taldea.
Erriko jaiak eratzen eta parte artzen.

Urterillaren 24n.egunean eta Erri-Egokitasun edo "Orden Publico"ren epaitegira 30 edo 40 abade joan giñan. Ez zan iñor be agertu Gotzaindegiaren izenean. Ezertan lagundu al eusten be ez eustan ifiok itandu.

Epaikundearen egun onetan, Mefiaka'n meza bat egiii eben, eleiztarrak eskatuta eta entzule asko egozala, Agiri bat emon eben izenpetzeko eta 8 baifto ez ziran izan izenpetu ez ebenak. Ekonomi-arloko laguntza be emon eben, nai ebenen emoitzak batuta. Meflaka'ko erriak une aretan egin ebanaren gomuteki oso ona daukat.. Maitasuna beti onartzen da, baifia batez norbera estualdian dagoanean oksijenezko baloi baten anteera artzen da.

EPAIA

ERRI-EGOKITASUN EDO "ORDEN PUBLICO"AREN EPAITEGIA

ZUZENDARIA:

JOSE FCO. MATEU CANOVES JAUN GUZTIZ ARGIA

EPAILARIAK:

CARLOS M^A ENTRENA KLETT JAUN GUZTIZ ARGIA

JOSE REDONDO SALINAS JAUN GUZTIZ ARGIA

Madrid'en, milla bederatzireun eta irurogefa bederatzigarrengo urterillareii ogeta zortzigarrenean.

IKUSIRIK agozko eta ate itxiz Epaitegi onetan Erri-Egokitasun edo "Orden Publico"aren epaitegitik etorri dan auziajegez aurkako zabalkundea egin daualako FARNTZISKO BILBAO ATXIKALLENDE'REN aurka, bemu 33 urtekoa, Bizkai'ko Muxika'n jaioa, Kamilo 1a Eusebla'ren semea, lanbidez abadea, Ikasia, aurretiaz zigorrik izan ez dauanajokabide onekoa, nondik ordaindurik ez daukana ela auzi onegaitik aldImko askatasunean dagoana, eta Salatzalllearen Ministerilza parte dala, eta auzlpetu orren ordezkko Juan Felicado Bermudez jauna dala eta aldeko lege-gizon Jose Arroyo Soro jauna dauala, eta Agerle Carlos Maria Entrecha Klette jaun guztiz argia dauala

LENENGO ONDORENA: Baieztatu da ete orrelan agertzen da, auzipetua dan FRANTZISKO BILBAO ATXIKALLENDE, Bizkai'ko Meñaka'n dan

Andra Maria'ren parrokian abade laguntzaille danak, 1987n. urteko abenduaren Irugarren egunean, doniekaz, jentetza aundia egoten dan zortziretako meza nagusian etorritako elelzarrai eldu-azo eutsezela mezako itzaldiaren ordezkopikiñaz irriritako orri batzuk, kopuruz berrogeta amar baiño geiago, elebitasunaz (euskeraz eta erderaz) egoan idazki orrelan auxe esaten ebala:

(Poneraqui el documeiito traducido en la pagina 33) **

p r-

BIGARREN ONDORENA: Salalari-ministeritzak, artu dauzan azken erabagietean, auzi onetan jazokizunak legearen aurkako zabalkundearen errudun dirala, Zigor-Kodearen 251 ataltxuan, 4 zk/an sartula dagoan lez eta orren erantzukizuna dauala, egiile lez FRANTRZISKO BILBAO ATXIKALLENDE auziperatuak, errudun erantzukizuna aldatzeko zertzeladarik ez dagoala, auxe eskatzen dau: zigor lez amaika illebeterako espetxe txikia ezarri daklola eta gaiñera bost mila pezetako dir-izuna, au ordaindu ezin ba'dau ordezkogeta amar eguneko espetxea ezarten Jakola, gaiñera dagokiozan gaiñerakoak eta kostuak berak ordaintzekotan.

IRUGARREN ONDORENA: Auzipetuaren ordezkokoak beronen azken-ondorenetan uste izan dau ez dala egin ezarten jakon errua dakarren egiterik eta bere babespekoaren askezpena eskatzen dauala

LENENGO AZTERKETA: Baiezlatuta agertzen diran egiteak legeez legearen aurkako zabaikundearen errua daukela eta ori Zigor-Kodearen 251 ataltxuan 4 zenbakian dagoala, or agertzen da zigor-kasuak eskatzen dauzan aurre-iritxi guztiak dagozelako, auzipemtuak berak idatzi eta banatu-azo ebalako, berrogeta amar ale baiño geiagoko kopuruan aurrean idatzi dogun eta elebitasunaz dagoan itzaldia n; mezako itzaldiaren ordezkodiran orrialde orreitan bere ustez egunekoak diran gaiak aztertzen dira bere buruz eta alderdikariz, ez erlejiño gal lez, erritarren gauza lez baiño, eta onelako esaldak agertzen dira: baikete oiñarri-bakoak, diru-izunen ezarketa larregikoak, baieztatu al izan dimn oiñazeak, eta abar, eta orrelk eguneroko barri negargarria diraia diño. Oituren aurkako gauzea dala, errez lkusten dan lez, besteal euren Intems legezkokoak aldeztuleko bldeak kendu eta Laterriak bereak diran eskubideak zalintzeko blde guztiak berak bakarrik artzen dauzan artean... "Gudak okerkeri astun au egin eban: Balzuk iiazle biurtu eskubide guztiakaz e^ beste batzuk galtzaille isiltasunaren egoera giza-

aurkako eta negargarrian, euren buruak askatasunaz eta zuzentasunaz zaintzeko eskubide barik... diru-izunak, salakuntzak, ondasun-baiketak, eta abar... artzen dabez abade askok, indarkeri farregizkoak eta guzurak ezin daitezke izan era garbiak gizarte bat sortzeko bideetan.

BiGARREN AZTERKETA: Esandako erru ori krimen fez erantzukizunduna dala auzipetua dan **FRANZISKO BILBAO ATXIKALLE**ND'E'k zuzen , egitez eta gogoz parte artu eta bete ebalako, Zigor-Kodea'ren 12 eta 14 arauetan eta onein 1° zenbakielan agerteen dan iez.

IRUGARREN AZTERKETA: Erru ori gauzatu danean ez dala agiri erruaren erantzukizuna aldatzeko gai dan zertzeladarik, orregaitik Epaitegiak almen osoa dauka ezarri bear dan zigorra neurtzeko, Zigor-Kodeamn 61 n. ataltxuko 4n. arauan ezarten diran baldintzen aiauz.

LAUGARREN AZTERKETA: Auzibidearen kostuak gaiñeraten jakozala errudunari legez, erritarren arteko auzibidean egiten dan lez. (Zigor-Kodearen 1S eta 109 alaltxuak)

IKUSIRIK, esandakoen gaiñera, Zigor-Kodean eta 1963n. Krimen-Auzietarakoan eta 1963n. urteko abenduaren 2n. eguneko Legea n oiñarritutei, auxe

EBAZTEN DOGU: Kondenatu bear dogula eta kondenatu egiten dogula auzipetua dan Frantzisko Bilbao Atxikallende legearen aurkako zabalkundearen errudun lez emntzikizuna daualako, aldakuntzarako zertzeladarik ez dagoala krimen-erantzukizun onetan, **ESPETXERATZE TXIKIAREN ZORTZILLEBETEKO ZIGORRAGAZ ETA AMAR MILLA PEZETA ORDAINTZERA,** efa nondik ordaindurik ez ba'dauko ogela amar eguneko ordezeko baiketara, eta gaiñeratzekoa dan erri-aurreko kargurik ez eukitera, ez bizibiderik eta ez aularkia emoterik, kondena orrek irauten dauan artean eta sortu diran kostuak ordaintzera.

Eta ordaindu-eziñaren auzia be onartzen dogu, auzieragillleai Bn eritxia jakin-ondoren.

**Orrelan ba, epai au dala-ta, baiezena eroango da sala onetan I rollo
'ra,esan,agindu eta izenpetu egiten dogun iez.**

BARRIA EMON ZAN 1969N. URTEKO URTERRILLAREN 31n. EGUNEAN.

GOFIA DEIA EGITEKO EPEA ZEZEILLAREN 6n.EGUNEAN AMAITZEKO.

AMISORTZI KOPIAKIÑA: ESPETXERA BIDEAN

/ 1969n. urteko martian gagoz. Bakio'ko abade laguntzaillea zan Jose Maria Madariaga abade adiskideak telefonoz deitu eustan mezedo bat eskatzeko. Bakio'ko parrokitik urrera eldu nintzanean, ogei metro-ingura falta ziran, etxe baten aurrean gelditu guitzazan, baserri-antzeko etxea zan, erdi-jausian eta biztanle barik egoana. Kopiakin bat itzi ebela an esan eustan, ezkutatzeko. Etxe ori ez zan toki ziburra eta arazoren bat agertu ezker, kaltetun geratuko zana bertan bizi zan atso zarra izango zan, eta onek ez eban zer-ikusirik politika-arloko eskariakaz. Laguntza eskatu eustan aretzatik urrean egoan bizileku baterakotxean eroateko. Egin gendun alegifiaz nekatuta geratu giftan, ba-eukan euki be metro kubiku baten neurria.. Gatx eginjakun goiko bizi-lekura igotea. Indarrak barrizatzeo Bakio'n Jose Mari'rena *zm* edatetxera joan gintzazan. Jose Mari gure adiskidea zan eta ain izerditsu ikusi ginduzanean, zeozer jazoten ete jakun itandu euskun. Egia ezkutatu egin gendun eta aretzan ariñeketa bat egin genduala esan geuntson.

Aprillaren 25n. egunean baitu eben Jose Maria Madariaga.. B[^]auri'n bere lagun bat aurkitu eban, Josu Arenaga, eta onek orduantxe, egun areitan, urtetan eban espetxetik. Onen bidez oar idatzi bat bialdu eustan eta kopidciflaren arloan epaikariaren aurrean nire izena salatu ebala iñostan. Kopiakin ori oztua zala eta Deustu'ko josulagunak zirala jabe, gazte batzuk oztu eben lapurrak. Kontuz ibilteko iflostan. Poliziak ba-ekiala kopiakifta non egoan, prezintatu egiti ebela eta Epaikariaren esku itzi, "Erruaren lekuko "lez.

Oar ori artu nebanetik Mefiaka' n gabetan, kotxeak geldituta eta argi baragarri batzuk ikusten nebazan. Egun batzuk igaro-ondoren, lo egiteko etxera ez joatea erabagi neban. Egunez errian egoten nintzan, baifia illuntzean Fruniz'en abade egoan Jabier Ozerinjauregi'ren etxean egiten nebaii lo, Au amagaz eta arrebeagaz bizi zan. Guztiz ondo artu ninduen. Ze ondo jokatu eben nigaz eta beste askogaz!

Uztaillaren 30n. egunean deia artu neban Garellano'ren Kuartelera joan eta neuk dakidana esateko. Gauza illunen bat izango zala uste izanik, erritik kanpora sarriago joaten asi nintean eta kuartelera ez nintzan joan.

Agustuaren 12n. egunean bigarren deia artu neban eta orduan be ez nintzan joan, ez nekialako zeren billa ebiltzen.

Astean bein etorten nintzan Meñaka'ko neure etxera kartak-eta artzeko, soñekoak aldatu eta Bilbao'n bizi zan arrebeari eroateko.

Alde batetik bestera iges ibilteagaz naikoa eginda nengoan eta ziurt[^]unik ezak barrua nora-ezean izten eustan.

Bein, parrokoak ikusi nindun etorten, urreratu jatan eta arduraz esan eustan:

Zu ez zara iibilliko diru larregiaz eta eutsiz bi milla pezeta oneik.

Eskerrak enion neutsazan bere esku-zabaltasunagaitik eta besterik ez neban egin, agur esan baiflo.

Zikotza zala jakiñik, arrituta itzi nindun esku-zabaltasun orrek eta mirari bat izango zala uste izan neban. Baiña noizean bein illeta, meza, errespontso ta olakoakaitik diru apur bat emoten eustan eta etxera joan nintzan baten kartazal txiki bat aurkitu neban atepetik sartuta 700 pezetagaz eta kontuak oneik ziran:

Errespontsoena.....1000pezeta
(Ez dakit zerena).....1700pezeta

Aurreratua.....2000 pezeta

Gutziz artzekoa700 pezeta

Ez dago geiago ezer be esan-bearrik.

Ziurtasunik ezak bere ikutua egiten eban nire barruan. Larrauri'ko parrokoa zan D.Fermin Arostegi'k,ume nintzala Semonariora eroan ninduanak berak, nire egoerea agertzeko Ostzaiftagana joateko esan eustan. Bera eskifti jaten laguntzaille. Orretarako gurarik ez nebala agertu neutsan, eleizirako arduradunakandik ezer ez nebalako itxaroten. Joan giñan Zirarda Gotzaiñagana eta andik ona dabilenaren nire egoerea agertu neutsan, epaitegitik dei bi artu nebazala eta nire susmoa zala kopiakiñaren arazoagaitik izango zala. Beste errazoirik ez n ebala ikusten. Berak baretu egin nindun eta errian trankil ibilteko esan eustan eta barri ro epaitegirako olako deirik arteen ba'neban joateko. Eta eskerrak emon eustazan egoera onen barria emon neutsalako. Nik adorea emoteko berba orreikatik eskerrak emon neutsazan eta Larrauri'ko parrokoa da orren lekuko.

ZImrda Ootzaiñak auxe ziurtatu eus1an:Auzirlik sortzen ba'zan ez ebala baimenaik emongo.

(Aqui seis paginas de fotocopias, sin pie)

EPAIKARIAREN AURRERAIRUGARREN DEIA

Oraingoan gauzea argiagoa zan.Alboko fotokopian agertzen dan lez

Bandidaje y terrorismoko "Sumarisimo" izena daroan auzibidea zan Eta Miguel Frantzisko Solaun eta beste batzuren aurkakoa.. Dakidana esateko zan egiten eusten deia. Deiak fotokopian izki txikian agiri dan lez, joaten ez ba'nintzan, atxillotua eta epaillearen aurrera eroana zango niutzan. Ulertu-eziñeko gauzea au da: aitatutako Solaun eta beste orreik nortzuk ziran be nik ez nekiala.

1969n. urteko zemendiaren 30n.egunean, San Andres egunean goizeko amarretan joan bear nebaln kuartelera nekiana esateko. Zeanuri'ko Ogaragoiti auzoan ziran jaiak An bizi ziran Fruniz'ko abade laguntzaillea zan Jabier Ozerinjauregi'ren ama ta etxeakoak.

Dakidana esate ori laburra izango zalakoan, Jabier eta Karmelo Zamalloa lagun nebazala,besegu eder bat erosi gendun eta neure kotxean joan ginan Garellano'ra gero Zeanuri'ko auzo orretanbeseguajateko ustez.

Urreratu neban neure berebilla kuartelera eta nire lagun biak kafetxu bat artzera joan ziran.

Herrero komandatea zan epaikari militarra, txikitxua, bigote txikiduna, eta bigote ori astiro labantzen ebana, eta aurpegiz eta begirakunez gogorra Uste dodanez beiii be ez eiKtan aurpegira begiratu iru ordu ingurukoa izan zan itaunketa aretan.

Maiaren gaiflean eukan Solaun eta beste batzuren aurkako Auzibidea. Epaikariak bein eta barrero irakurten ebazan Auzibidearen orriak eta alako itaunak egiten eustazan:

Kopoakiña dala; nork oztu ete eban; Baklo'ra nor eroan eban eia nok an ostendu eban; Zutlk aidizkaria ezagutzen ete neban; Solaun nor zan ete nekian;elelzan laterriko banderea...

Orriak atzera ta aurrera erabilli eta erabilli eta arazo guztiak n[^]tatu egiten ebazan. Eta orrelan iru ordutan. Azkenean.erlejifto-giroan barrua agertu gurean, garbi esan eustan bera egunero joaten zala mezara baifia abadeak emoten eben jarraibidea ikusita, itzi egin ebala.

Aspertuta nengoan itaunketa aregaz eta beste pentsamenturik ez neukan kafea artzen itxaroten eusten lagunena eta kotxearen maleta-lekuan geunkan beseguarena baifio.

Eguerdiko ordu batetan epailariak baituta geratzen nintzala esan *mstm* eta polizi biri agindu euteen kotxera arte laguntzeko.Eurak barruan zirala,kotxeagaz eldu giftan kuartelaren banuko be-barruraino eta an geratu zan kotxea prezintatuta urte bian. Gaur be oraindiño ez dakit zer izan zan besegu aregaz. Edozelan be bigarren urtean kotxea emon eustenean ez egoan barruan.

EMEREITZI

BASAURI'KO ESPETXERA ELTZEN

IOarellano'ko kuartelean Herrero komandanteagaz 3 orduko itaunketa izan ondoren, polizien furgoi baten eskuak lotuta eroan ninduen. Gela batera sartu eta argazki batzuk egin eustezan, neure alzararren atzak artu eta izenpetze batzuk egin.. Laterriko nortasun agiria, diru-boltzea, ordularia, samako katea eta fraken loturea emon eragin eustezan. Guztiai IZ neure petatea emon eusten: izara bi, estalki bat, buruko bat, jabo bat, esku-sorki bat eta agifietarako eskudillea.

Geiago *bmk*, zaintzaille batek gela batera eroan nindun. *esp* *D*ceratu ammtak egozan galeriko azkenengora. Metalezko plater baten garbanteu jauzikari eta otz batzuk ekarri eustezan ogi-zati bategaz.

Lenengo ira egunetan ifiogaz ezelako artu-emonik ez nebala izango *Qsm* eusten Gelearen neurriak 3m. luze eta bi zabal eta goitik bera 4m ziran..Leio txiki-txiki batek goitik tallerretara jotzen eban eta emen egiten eben lan espetxeratu arruntak. Oge tolesgarri bat, komuna edo olako zerbait, agirian. Eta pasiilora ate bakarra. Atea itxi edo zabaltzen zan bakoitzean txapa-zarateaz trumoiaren antzeko zaratea entzuten zan, Atean begira-zulotxu bat egoan eta ortik ikusten eban zaintzailleak gela barrura sartu barik. Atearen eta gelearen bitartean burdiflezko ezi lautu bat egoan, au giltzagaz, zaintzailleari kalterik ezin egin izateko. Argia biztu ete amatau kanpotik egiten zan.

Goizeko zortzirak inguman jotzen eben turuta. Jagi eta garbitu egiten nintzan. "Turko-erako" ogea batu bear neban eta au gabeko bederatzirak arte ezin zsitekean zabaldu. Zutunik egon bear neban ,ara ta ona ibiltzen, noria baten antzera, gela-barruan. Zori apur bat euki ezkerreko, oge tolestuaren ertzean jazarri neitekean, baiña beti atearen begira-zulotik ikusia izateko eraz, eta ogearen ertzean egon ezkerreko, oar garratza entzuten ne b[^].

Abenduaren asierea zan. Kanpoan edurra eta leia. Eta niri otzak ikutu aundia egiten daust, batez be ezotasuna dagonean. Otzagaz, ezotasunagaz, estresagaz eta kirio-Iarritasunagaz lunbalgiak min egiten daust. Orrelan iru egun ifiogaz ezelako artu-emonik barik egoteak gorputzean ondorenak izten dauz.

IÑOGAZ ARTU-EMONIK BARIKIRU EGUN

Ez eukan iñok ni ikertzera etortzerik, gelarik gela jatekoa banatzeko arduratzen ziran iru espelxeratu arruntak baiño. Atea zabaltzen eben eta zaintzailleak ondo begiratzen eban ojalatazko plater bakoitzean zer isten eben. Ez egoan tenedorik, ez aiztorik, ojalatazko antzeko kollara bigun bat bailfio ez. Espetxeratu bik eusten eutsoen aundia zan perolari eta irugarrenak emoten eutzun dagokizuna. Goizean, *barasB*teko, txali bat bete kefe-esne ta ura ogi-zati bategaz. Txakurtxu bateri emoten jakon lez, atearen barruan izten eben eta atea itxita eguerdiko bazkarira arte. Bazkaltzeko metalezko edontzi baten ardaua ekarten eusten eta, nai ta nai ez, jaten asi baifto lenago edan bear neban eta edontzia eurai emon. Garbantzu gogorak, txilista zikiñak, edo patata-ura eta atza eukan arrain-zati bat edo oillaskoa. Ez egoan beste aldakuntzarik. G[^]ean, janari-ondakiñak, salda epela eta fruta bat.

Ira egunak ezelako artu-emon bakoak izan arren, ez zan orrenbesterako izan. Lenengo egunean espetxeko kapillaua-fimtzionarioa etorri jatan misterioz beterik Bere berbetan igortzi aundia eta isiltasuna agertzen ebala, abadea zala esan eustan eta gertu egoala mezederen bat egiteko. Bilbao'n bizi zan eta Bilbao'ko San Nikolas parrokian egiten eban lan. Espetxean ez egoan ikustaldia egiten baiño.

Alako egoerMi bularra zabaldu egin jatan amasea nasai artzeko. Rekaldebeiri'n bizi zan Martzeliña nire arrebearentzat oar bat emon neutean idatzita, Meñaka'ko nire abade-etxean egon zeitekean zabalkunde agiriak "garbitu" egizan. Izan be, asko ziran guri etorten jakuzan papelak eta orduan dana zan legearen aurkako zabalkundea Gau aretan apur bat nasaiago lo egin neban, esku-zabala zan batek ikertu nindualako.

Urrengo egunean espetxeko zuzendaria etorri jatan gelara eta kapellauari emon neutsan papela erakutsi eustan. Oneik izan ziran bere berbak: "Au emon daust kapellauak eta onegaz zu leku txarrean itzi zaikedaz. Etoia ez nazela ikusi dagizun, zeure aurrean apurtzen dot." Eta orrelantxe egin eban. Benetako jauna izan zan. Baiña ez, etoia izan zan kapellaua. Geiago ez zan etorri ni ikertzera, espetxeratu baten bidez esan neutsan geiago ez etorteko, zer jazo leiteken ez dakidala-ta.

Orduan Bilbao'ko Eleizbarrutiaren Libura Gidarian agertzen dan lez, kapellau orren izena Andres Izquierdo Saldon zan, eleizbarmitik kanpoko, Basauri'ko eskualde-espetxean kapellaua. Au be adua! Bigarren abizen ori euskeratik etorria izan leiteke, saldu/vender dala. Dakigun lez Palentzia'n jaioa da, Aradi'ko Ampudia'n, 1912-11-10'ean eta 1941-08-15'ean abade egifla

Kapellauaren eta Zuzendariaren ostean, artu-emonik bako aldi onetan imgarren ikartzaillea Herrero komandantea izan zan, ni espetxera eroateko agindua emon ebana. Herrero'k itxaroten eustala eta iker-gelara joateko esan eiistenean, aske urtengo nintzala uste izan neban. Nik sendo artu nebazan Komandanteari entzundako berbak: Gotzaiñak auziperatzeko baimena, berrogeta zortzi ordu baiño lenago eta idazkiz emoten ez ba'eban, aske itziko ninduala.

Herrero komandanteak ekarri eustan albiste au: Ni baitu ninduen egun beratan, arratsaldeko lauretan, Epaikari Eratzaille lez, barria emon ebala Gotzaindegira. Esan eustan, gaiñera, Espetxeko Zuzendaria bera joan zala Eleizbasrarako Ordezkar nagusia zan Leon Maria Martinez jaunagana eta onek esan eutsoia ba-eukela orren albiste. Eta azkeieez, ni ikerfzera etorri baiño lenago barrero deitu ebala gotzaindegira idazkiz emondako ezetza eskuan ez ba'eukan, ni auziperatzeko erabagiaeien barria emoteko. Esfli eustan Gotzaindegitik erantzun eutsoela Zirarda jauna Madrid'en egoala batzar batzutan eta eurak ezin leikeela ezer be egin.

Gotzaindegiaren jokabidea ikusita, Herrero komandanteak auxa esan eustan: Erantzuteko 48 orduko epea emon-bearrean 70 ordukoa emon neutsela. Eta ezelako erantzunik ez neukan lez, isilik dagoanak baietza difloa la esaldia kontuan artuta, nik zu auziperatu egiten zaitut.

Zorrotz eta leor berba egin-ondoren bere izketa amaitu eban. Berak urten eban iker-gelatik eta nik len baiflo gogorrago somau neban nire gelearn gogortssuna,

Egun batzuk geroago espetxeko Zuizendariak autortu eustan, egia zala. Bera joan zala gogo onez Leon Maria Martinez, Ordezkarriagana eta onek erantzun eutsolajakitun egozala.

Epaikari Eratzaillearen barria artu-ondoren esan eusten gertatu naitela Sumarisimo epaierea, mili lai Ta Jakiña, izango nebala-ta. Neure aldelari izango zan lege-gizona artzea gogoratu eustan.

Asaratuta biurtu nintzan Gotzaindegiko isiltasun aurkariagaitik eta kapellauaren etoikeriagaitik. Orduan, senitartekoa ta kristaua dan nire sendian oztasuna eta isiltasun kaltegarria emon eustezan lagun .Artu bear dauanarentzat oso gogorra da isiltasunaren diktadurea. Qr ikusten dau bere asarrea isiltasunaren orma zikiñaren auika doala eta jo eta atzera etorten dala,

Kanpoan abade batzuk eta senide batzuk ibilli ziran nitzat lege-gizon baten bilia. Infantes aurkitu eben, lege-gizon Bilbaotarrata ospetsua. Onek 60 urte-inguru eukiko ebazan eta espetxera etori jatan ni ikerteera. Nire aurrean kg^ela bat eta Montekristo txokor bat agertu ziran, gizon bategan. Berba egin gendun eta Epaikari Eratzailleagaz berba egiteko geratu zan. Laster etorriko zala ni ikertzera esan eustan eta olantxe egin be egin eban.. Etorri zanean auxe baiño ez eustan esan: Epaikariak zure auzian dakiana esateko fraille p^iotar bateri deitu dautso. Au, misiñoetatik etorrita egun batzutarako egoan Meftaka'n senideen etxean. Justo Pinuaga da izena eta zure alde esan dau dakiana. Pasakasio Etkezarraga Meñ^a'ko Parrokoari be deitu dauteat Onek Epaikariaren itaunai jarraitu dautse. Onelanagertzenda Epaikari militarraren egin dauan agerpenean:

EPAIKARIAK: Ezagutzen dozu Frantzisko Bilbao jauna?

PARROKOAK: Bai. Meñaka'ko nire laguntzaillea da.

EPAIKARIAK: Ze bizi-modu egiten dau parrokian?

PARROKOAK: Errian gitxi egoten da ela kotxean dabil asko.

EPAIKARIAK: Zenbat irabazten dozue zuek abadeok?

PARROKOAK: Illean 5 millatik 7 milla pezelara.

EPAIKARIAK: Ez dozu uste diru orregaz kotxean ibillaldi asko ezin leikela egin?

PARROKOAK: Neu be arrituta nago.

Parrokoak epaikariaren gustora erantzun eban ezkerro, ez da ain zurra izan bear, niri begira ondoren au atera ebala uste izateko: Txori orrek beste erakunderen batetik artzen dau dirua.

Auxe da jazokizun gogorra, bai Gotzaindegian, bai espetxeko k^ellauak eta bai iieure parrokoak asko erreztu ebela ni kaiolara sartzea.

Ni eleiz-agintarien eskuetan nengoan, zeatzago, Zirarda Gotzaiñaren eskuetan, eta onek baimena emon naiz ez emon egin leikean ni auziperatzeko. Eta ez eban egin, ez bata eta ez bestea. Aiztu? Itzitasuna? Ardurarik eza? Arazora sartzeko bttdurra? Zioa izan zana izan zala, nik eskubidea daukat len esan dodana uste izateko. 32 urte joan dira ordutik ona. Eta Nire eleiz-arduri^unen artetik iftok ez daust emon azalpenik. Eta azalpen au orain ez dot bear. DIÑODANA, GARRAZTASUN BARIK DIÑOT, baifla jakin daitela. Gomutamena biotza baifto bum-gogorragioa da-

OGEI BASAURI'KO ESPETXEKO IKASI BANAKA BATZUK

Bein baten Karmelo etxenagusia etorri jatan ikertzera, Bilbao'ko Gotzaindegian Idazkaria zan orduan. Neure izen onagaitik, egia diflot, ez diñot guzurrik. Ez daukat gogoan gure autu-mautua zein izan zan eta ez dakit ni ala beste espetxeraturen bat ikertzera etorri zan. Gaur Bilbao'ko Gotzain Laguntzaillea da. Bitan gogoratu dausat alkar-ikuste a eta berak ez zala etorri ni ikertzera diiio..Zalantza barik, egia izango da berak difloana. Nire gomutamenak sarritan izaten dauz olako labankadak, baifla au bai ba-dala ziur esan neikena, neuk asmatu ezer ez dodala esaten, ikustaJdi a asmatzeagaz ezer ez nebalako irabaziko. Azkenengoz beragaz egon nazenean barrero gogoratu dausat. Bera izan da nire gomutapen guzti oneik idazteko adoretu nauana.

Espetxean,espetxeratu arrunten artean ipifti ninduen. Espetxeratu politiluak eurentzat beste galeri bat euken.

Egun bafzutaii mezea esan neban bazkaritik artzen neban ogi -zati eta ardaugaz,ori al nebanean.Gelearn bakartadean os|Mtzen neban mezea, ateko ikuslekutxutik begtratuko ete eusten bilduna neukala.

Espetxeko nire laguti batzuk ez dodaz aitzu, ziran lakoak ziralako. Begiratu egiten neutsen eta iñoz berba egin be ba euiakaz. Gobelduta konturatu nintzan espetxea ez dala oker dabillen gizona zuzentzeko toki egokia. Bi daukadaz batez be gogoan,Padilla ta Luis.,droga-arazoakaitik espetxeratuak. Ain ondo bertakotu ziran toki zikin aretara ze, egoneroko bizitzan balegoz lez bizi ziran. Euren jokabidea ona zan eta orrelan eskuratzen eben zaintzaille batzuren uste ona. Ardaug zaatoa eta kopaua eskuetan euki ezker, erreñu ullun aretako errege ziran. Espetxean aurrera urteteko gogo ain aundia sortzen jatzu ze, norberaren onerako beste balzukaz artu-emon onak eukitea gauza bearrezkoteat artzen dozu.. Nik artu-emon onak euki nai izan nebazan Padilla eta Luis'egaz, euren zaintzailleren bateri eskerrak, kanpokoakaz artu-emon^ eukiten ebezelako. Gogoan daukat bizardun gizon "bohemioa*" eta beronen begirakada ta pentsaera galdua. Bergara'koa zala esaten eban eta bidean aurkitzen neban bakoitxean "gora Euzkadi" esanda agurtzen nindun,naizta ori emi aundiko gauzea izan.

An egozan "Manoli" eta "Eskos" marikitak biak Bilbao'ko Kortez kalean alkartzetxeetan bizibide ori eukenak. Onein gelak ikustaldi asko izaten ebezan une batzutan Euren gorputz eragifiak ibiltegietan ikustea nitzat irri-barrea sortzeko modukoa zan, baiña ori ezkutatu egin bear izaten neban al neban neurrian.

Beste bat, aurpegi garratzekoa, lodikotea, jitanua esana, eta bortxaketa bat egin ebalako ara ekarria.

Barakaldo'ko Teo. Onek bere bizitzea azaldu eustan lau edo bost orritan. An iftoanik erdia egia ba'zan be, oraindiño an egongo dalakoan nago.

Bilbao'n bizi ziran aita-semeak,oneik euren kotxe-lekuaren aurrean berebilla itzi eban bateri zaplakoak enion eutsoe^ako baitu ebezan. Kotxedunak arro berba egin eutsen aita-semeai eta adrenalinarean berotasunean oneik ondo zigortu eben. Persona

onak ziran, espetxean egoan inguru illunak i kar^ta egozan. Laster urten eben aldirako i^katasunagaz.

Bibanko gazte naparra be ez daukat aitzuta. Kaleratze baten baitu eben. Komunistea z^ . Beronen begi ubelduak oiiiazearen ezaugarri ziran. Onek aspirina bat eskatu eustan eta nik ezin emon. Gure alkar artu-emonetan esan eustan oiñazetu egin ebela nai izan eben eta euren bami benetako ta "legezkoak" eskatzen eutsen neurrian.

Eta azkenez, gizarteko biziera emikarriak zapalduak ziranak. Erruak eukitearen gaifera euren txirotasuna lotsa-bide ebenak. Beste espetxeratuakaz artu-emonak izan baiño lenago, laurentzat zan gela batera sartzen ebezan eta kutxol edo olako pozoi-kentzailleren bategaz buzti-buzti egiten ebezan kaletik ekarrezan bizi-kideak kentzeko. Edaituko aundia zan ardi-kentze aretatik zelan urteten eben bizirik. Qri, bai,manteotuta bai urteten eben.

Zerrenda au geiago ez luzatzeko^adin laburreko bi aitatuko dodaz. Oneik adiii eldukoengandik bananduta eukezan. Be-barrua utzik egoanean ordu birako ateraten ebezan ara Nire gelearen ormea, azkenengo gelea zalako, be-bamiaren ondokoa zan. Ormeak zulo bat eukan eta andik sartzen zan nire gelarako uraren odia. Or geratzen zan ertzeko zuloa artzen eben euren mezuak nire gelara bialtzeko. Autor-leku bat zan,baiiia astokillo girokoa. Zelako okerkeriak idazten ebezan eurak eta nik artu. Orrelan eurak asaskatu egiten ziran eta nik iztegi luze bat ikasi neban,entzumen garbi eta zuzenak entzun bear ez dabena.

OGETA BAT

SOLAUN

"EspetxVatu politikuak euren alderdian sukaldetxu bat euken eta an gertatzen ebezan euren jatorduak. Laster jakin eben abade bat sartu zala eta baimena eskatu eutsoen Zuzendariari eurak gertatzen eben jatekoa niri ekarteko. Jateko orduan mutil lodikote bat etorri jatanjersia sama-inguruan zarratuta eta lapiko baten indabak ekazela.

Barretxua aurpegian ebalatzen bat-batean *Qsm* neustan:"Beitu! Ni Solaun naz eta au gertatu dogu zutzat. Nire aurpegia ta nire gorputza artez eta gogortuta geratu ziran. Azkenean,ba-nekian nor zan kopiakin ospetsua oztu ebana. Epaikari Eratzailleak ainbestetan aitatu eban Solaun zan, nik ainbeste bidar ez nebala ezagutzen esan nebana.

Ez dodanz iftoz indabak gozoago jan orduan baifto. Gaifera lapiko utsa emon bear jakon une beratan eta ez egoan astirik urdaillak eskatzen dauzaii geldi-aldietarako.

Ez geuntsan alkarrari esaldi askorik esan. Auxe bai esan eustan: Al ba'dot edo izten ba-dauste, biar etorriko naz baniro eta isilleko gauzatxu bat esango dautzut Barreka joani zaii,agur esanda. Isilpeko orrek arduratuta ilzi nindun.

Solaun'ek ain txeratsua eta ondo azia zalako eta Zuzendariaren eta zainteailleen aurrean ain ondo jokatzeko ebalako guztien itzaltasuna eta maitasuna lortu ebazan.

Urrengo egunean etorri zan Zuzendariaren baimen barik, nigaz minutu batzutan egon zan ekarri eustena jaten neban artean eta ain arin iruntzi bearrean aurkitu ez naiten.Lebatz jantzia eta patata erre batzuk ekarri eustezan.

Denporarik galdu barik esan eustan: Begitu, espetxeratu politikuak iges egiteko zulo bat amaitzen gagoz. Amairu gara eta gugaz batera iru espetxeratu ammttek urtengo dabe.Oneik lan au egiten laguntzen daskue eta guk berbea emon geuntsen dirutza aundi bat artuko ebela,euren kontura nai eben lekura joan al daitezan.

Joan zan eta esan eustan zeaztasun geiagogaz egun bi geroago etorriko zala. Isilpeko asko entzun dodaz neure bizitzan, baiia axe izan zan geien arritu nuiduana, Gelan ez neukan beste lagunik neure irudimena eta loa galazoten eustan estutasuna baifio.

Zuzendaria etorri jatan neure gelara neu agurtzera. Jatekoa ekarten itei ebalako nire esker ona gura ebalatzen argi egoan. Nik eskerrak emon neutsazan espetxean sartu nintzanean nigaz izan eban artu-emon aregaitik.Berak,nitzaz arduratsu, esan eustan:Begini,espetxeko eleizatxua espetxeratu politikuen arloan dago. An mezea esan gura ba'dozu, ori egin zeinke eurak be-barruan dagozanean,orrelan eurakaz alkartu ez zaitez.

Berriro be eskerrak emon neutsazan orregaitik. Euren tokian asmatuta euken ertilanera ez sartzea oba zala uste izan neban. Neure mezak gelan eta ogi-zatiagaz ta ardauagaz ospatzen jarraitu neban, isillean eta orregaitik erru bat ba'neuko lez. Neu meza-ospatzaille eta neu meza beratan entzule. Nitzat meza areik esangura aundia euken eta Baten Batek idar aundiz laguntzen eustala sentitzeko esaten nebazan.

,. n

(Aqui hay'dos lotdcopias)

L Beste j[^]ari gozo bategaz etorri z[^]barrero Solaun. Etxegifia edo arkitektoa zala esan eustan eta al dauan neurrian iru espetxeratu arrunteri laguntzen euteela zuloa aurrera joan daiten. Urteteko artu eben bideagaz pozik egoan,

Espetxean banakuntza apur bat egoan espetxeratu arrunten eta politikuen artean. Taide bakoitxak bere aretoa eukan telebista ikusteko. Sukaldarieii taldeak be bere aretoa eukan. Baiña ni ez nintzan egokia ez talde baterako eta ez besterako. Eta naiago nehati ffitbol partidua ikusi barik egon, nitzat zaletasun aundi bat ffitbola izan arren.

Eidu zan 1969n.urteko abenduaren 12n. eguna. Domekea zatti eta baimena eskatu neban telebistan partidua ikusteko. Sukaldarien taldeagaz itzi eusten, talde onek arazo gitxiago eukaldco. Joan nintzan ba, sukaldeko aretora partidua ikusteko eurak janariak gertatzen ebezan artean.

Egun berataii etorri jatan Solaun beti lez janariakaz eta iges orduantxe egiteko amesa agertu eustan: Gaur gabean urtengo dogu zulotik, zuek futbol-partidua ikusten zagozen artean. Agur eta ia egunen baten kalean alkartzen garan.

Nire kirioak gogortu ziran eta beti lez negoala agertu nai izan arren, ez neban ori lortzen. Artega egon nintzan eguerdiko ordu bietatik artatsaldeko zortzirak arte, au zan partiduaren ordua. Ez nekian zelan jokatu. Neure burua gaiso egin eta ogerateeko baimena eskatzea otu jatan. Baiña ez da gauza erreza gaisorik egon barik gaisoa agertzea. Partidua ikustera joatea ei[^]agi neban. Zaintzaille batek lagundu eustan sukaldeko aretora. Partidua asita egoan. Ez daukat gogoan nok jokatzen eban eta zelan jokatu eben. Nire begiak pantallan eta nire burua orduantxe jazoten egoan arazoan geldi egozan. Sukaldariak arrautza prijidu batzuk eta patata erre batzuk ekarri eustezan. Iruntzi egin nebazan. Partidua amaitzeko ordu-erdi falta zala urdailleko miña naukala-ta ogera joateko guraria agertu neutsen. Zaintzaillea izan neban laguii nire gelara arte.

Gabeko amarretan egunero espetxeratuak zenbatu egiten ziran. Zaintzailleak joaten ziran gelarik gela. Ain zuzen,zaintzailleak aldatzeko ordua zan eta gu an gengozala eta espetxeko egoerea betikoa zala ziurtatu bear eben.

Amar eta erdietan asi ziran estu-alarmaak zarataka. Begiratzailleen argien dizdizak ambulanzien antzera egiten eben diz-diz. Kanpoan sirenak gortuteko lakoak zira gau illunean. Zaintzailleen oinkada larriak entzuten ziran. Gure geletako argiak gau osoan geratu ziran biztuta. Lenengo ordu bietan baten baiño geiagotan zabaldu ebezan nire gelako atreak, baifta laster ikusi eben an nengoala izara ta estalki-arteon batute. Baten zer jazoten zan esan neutsen eta isillik egon eta lo egiteko izan zan erantzun larria.

Espetxeratu politikuakaz iges egin eben iru espetxeratu arruntak nire pasilluaren ondoan eukan euren gelea.Irurak egozan batera. Bi anai kanariartak ziran,uile-gorriak eta jokabidez zentzunezkoak. ffior konturatu barik bizi izatea nai eben, iges egiteko lurpean egiten eben euren lanak asko ibilli eragiten eutselako. Irugarrenaren barririk ez dakin Lukin esaten eutsoela baiño.

Gau osoan iñok ez euskun ezelako azalpen ofizialik emon eta argiank isiotuta geratu ziran.

Urrengo eguna astelena zan eta goizeko seirak inguruan Zuzendaria etorri jaten ikertzera. Aupegia larria eukan eta betondoko baltzunak ondo agertzen eben nekatuta egoala. Kiriotsu eta bat-batean esan eustan: "Zuk ba-zeunkan jazokizun onen barria,ezta? Nik ezer ez nekialakoa egin neban eta besterik ez neban agertu, zeozer jazoten egoala konturatu nintzala baiflo eta ori sirenak entzuten ziralako eta argiak biztuta egozalako. Jazoten egoan d^iaren barria emon eustan,espetxeratu politikuak iges egin ebela. Solaun'en izena ^ertzen eban batez be eta astiro. Ni konturatu barik geratu ez naiten. Espetxeratu guztiak askatasuna nai dabela, aintzat artzai eban. Baiña espetxeratu oneik ori lortzeko, berak bere lan-lekua arriskuan ipifli ebala esan eban. "Azkenemi be" goibel esanaz joan zan nire gelatik.

Ezin neike ukatu gizon arek errukia sortu eustala, baiña poztu egin nintzan bami-barruan, iges egin ebenakaitik.

Une aretatik aurrera amaitu ziran Solaun'en janari bereziak. Rantxo' ra emon neban izena eta zaintzailleen aurpegi gogorak onartzen joan bear izan neban. Jazo zanaren emianeuri botaten eustela zirudian.

Iges egin eben^ zelan amaitu ebeiL, jakitun izango zaree albiste-bideetatik. Kanpoan kotxe batzuk eukezan itxaroten. Mungialdeko mendi ta baserrietan ibili ziran ara ta ona.

Ba-dakit zetan amaitu eben iges egin eben ira arrantak.Eskuetan askatasuna ta dira-moltzoa eukela Bilbao'ko Txino-auzora joan ziran zuzen. Kotxe bat oztu eben eta edonorako bidea artu. Jokabide okerra euren. Eurak ondo jakin bear eben erra bat aurkitzen danean,espetxeratu arruntak or dagozenez, lenengo billaketea auzo orretan izaten dala. Euren atzetik jartaitu eben eta ira egun geroago Bartzelona'ko gasolindegi baten artapatu ebezan. Bilbao'ra ekarti ebezan. Lenengo gauetan nire gelatik euren min-uluak entzuten nebazan, emoten eutsezan zigor^dakaitik atereak.

Ni nengoan arranten pasilloan erruki-giroa,eurakaz alkartzekoataprotesta sendoa egitekoa sortu ziran. Min-oiuak gela guztietara eltzen ziran.

Giro larri onetan eldu ziran gabon-jaiak. Olako egunetan sendia egiten dogu amets,neure jentea, neure ertia,neure askatasuna eskatzen daust bamiak.

Askatasuna berbea espetxeratuarentzat sakratu biurtzen da. Galtzen danari, kentzen dautzunari balioa emoten dautsazu. Askatasuna ez da ifiondik obeto oiukatzen espetxeko gela batetik baiflo..kalean ez dira esaten bra-ba zarateu eta utsak baifio.

Espetxeratu arranten miftak alkartesan-giroa sortu eban guban. Gabon-Gau aretan ez gendun apaldu,platerak maien gaifian itzi genduzan. Beste batzuk telebistaren aurrera joan ziran gabon-ametsak aiztuteko eta beste batzuk euren geletara joan ziran.

Nik be agertu neban neure alkartzea eta gau aretan ez neban ezertxu be jan, Durango'ko espetxeratu arrunt batek sari baten ordezkariak garbitzen eustazan eta jazki garbiak eta onein artean kolonia botilla baten kofiaka ekarri eustan eta, ondoren erakutsi eban lez, zerbait gogortagoa eukan nastean. Tragu baten iruntzi eta botilla utsa une beratan emon neutsan. Ez neban ibilli bear olako txantxetan gauza bakanak aurkitzen ba-euskuezan alako egoeran. Laster asi nintza n barrukoa botaten eta buraa zoriabiatuta zomatzen. Kofiak aren ondorenak kendu ebazan nire buratik g^on anets guztiak. Zorabiatuta katrera sartu nintzan eta laster artu ninduan logtt.

Ba-neukan Basauri'ko espetxea izteko guraria. Barri batzuk eldu jakuzan laster Zamora'ra eroango ginduezala eta an egozala beste abadeak.

OGETA IRU ESPETXERIK ESPETXERA....ETA ZAMORA'RA

' Zamora'n Konkordatu-Espetxea egoan. Izen polta da ori, an egoan biziarea ezkutzatzeko. Gobemuaren eta Batikano'ren artean, alkar artuta, euraka batera ez etozan abadeakartzeko. Eleiza ofozialaren aldetik lotsabakokeria oraindiño bere abadeak giflanen alde jokatzeko ardurarik artu ez ebalako. Ordurako agiri zan epstxeratuak baiiatuta eukiteko jokabidea eta esaldi labur onetan agerteeai da:

EUSKAL ABDE ESPETXERATUAK... ZAMORA'RA.

1970n urteko urterillaren 6n. egunean etxekoen ikustaldia itjaroten nengoan B^auri'n. Gabeko 12'eta itxartu nindun zaintzaille batek eta erak gordeta eukezffli neure tretxuak artzeko esan eustan eta polizien fiirgoi baten sartuta Zamora'ra urten gintzazan. Ez eusten baimenik emon telefonoz etxekoai deitzeko, ikustaldira alperrik etorri ez daitezkan. Etirri ziran eta ez nengoala ikusi ebenean jakin eben eroan ninduela.

Bidaldia larria izan zan. Gau illuna eta bidean leia,izotza. Gidaria, indo begiratu neutsan denporea pasateko, aijeliar-itxurakoa zan eta gorputz aundiz "gorila" baten antzekoa. Gidariaren ondoan Bilbao'ko polizien bura zan Criado jauna jesarri zan Au oso ezaguna zan baituakaz egin ebazan oiñaze edo torturen ekintzakaitik. Gidariak ez ekian zeintzuk ziran Zamora'rako bide zabalak. Samtan itaundu bear izaten eutson alboko bateri zein bide artu bear eban. Gaiñera igon eta Legutiano (Villareal)'era eldu giñanean kotxea gelditu egin zan Guardi Zibillen kuartelaren aurrean. Ori Guradi-Taldeen ezaugarria zan, "Santo y Sefla".

Erdi lotan goiazan eta Burgos'era urreratu giñanean itxartu giñan, Bruiulagaiñean. Gure kotxean labankadea izan eban eta bide ertzeko solo batera jausi giñan. Ez zan ezer be jazo, ikara-aldia baifto. Goizalde iruiak baifto gehiago ziran eta txixa egin bearrean nengoala esan neutsen. Lanean ebillan gasolindegi baten geratu giñan. Euran ekaita,kafea artu eben eta ikusi neban esoetxeratuak eta guardi zibillak bearkizunorretan batera gengoza. Komuneraniñoiala zemai au egin eusten: "Ez egin gero, tentelkeririk." Nik ez neukan orduan iges egiteko ezelako gogorik, areik iru baitu arruntak zelako ondorenak jazan bear izan ebezan jakin-ondoren.

Goizeko zazpirak edo zortziretan eldu giñan Zamora' ra.

ZAMORA'KO ESPETXEAN

Lenengo egunak ezelako artu-emon barik igaro nebazan. Egun batzuk geroago urreratu ninduen neure lagunakana. Ni ara eldu eta urrengo egunean urten eban aske Guardi ZibU baten semea eta josulagun madrild^ra zan Gacia Salve'k. Bere boltzan eroi^ orrazi bat emon eustan.

Oneik gengoan batera espetxean:

ABADE EUSKALDUNAK:

Nikola Teileria
Alberto Gabikagogeaskoa
Xabier Amuritza
Julen Kantzada
Jesus Naberan
Jon Etxabe
Martin Orbe
Luis MariaBereziartua
Jose Maria Madariaga
Periko Solabarria
Petko Berrio
Patxi Bilbao.

FRAILLE EUSKALDUNAK:

Frantziskotarrak: Felipe Izagirre ta Zulaika.
Pasiotarrak: Paskual Inlxausti

EUSKALDUNAK EZ ZIRAN ABADEAK:

Garcia Salvejosulaguna
Aita Ganio, madrildarra.
3 abade kataluniatarr^
abade bi galziarrak: Nikanor Acosta Outeinran eta Vicente Couce
Abade bi erru arrunta eukenak, bata sebillatarra eta bestea kazerestarra.

Onein gaiflera beste amabost Bizkai'ko abade egozan izuna artu ebenak eta illebeterako ordezeko zigorra beteten ebenak.

ZAMORA'N ESPETXERATUTA EGONDAKO BATEN GOMUTAKI BEREIZIAK

Zerrenda orretan izendatua dan edozeifiek kontau leikez bere gomutaki biziak eta nireak osotu. Nik neuk zomau nebana esan baifio ez dot egingo.

Alkar-bizitza gogorra ta gatxa zaii. Ori jazateko an egozan ia guztieii giza -balio aundia euki bear da. Eguneroko bizikera beti.bardiña ta illuiia jazateko, iltzikeritxu batzuk ziran naikoa.

Guztiok batera geratu giñan mezea esateko,baifianai dauana joanda Gabean, gaure tokira sartzen giduezanean, talde birillean batzen giñan eta, zutunik, azalpen eta azterketaren bat egiten gendun. Sagaratu eta jaunffltu egiten gendun eta, isilladi baten ostean, banandu egiten giftan. Ogia ta ardaua jantokitik etorten ziran. ffior ez gendun beartzen an egotera. Ospakizunera sartu gura ez ebenak, aintzat artzen genduzan eta eurak be bai geu. Nire egotaldiaren azkenerantza, iñor ez zan etorten niezea ospatzeko. Abade espetxeratuai ez euteen laguntzeii euren gogoak.

Abade espetxeratu bakoitxak ziur ekian, espetxetik urteterakoan,bere bizitzan zein bide artuko eban. Askok artu eben erabagia izan zan, espetxean egozan artean abadetza alboan iztea; beste batzuk ,zetara-ezean gengoan, arik eta urteten genduzanean zein gizo izango zan ikusi-arte, ia al izango ete eben kanpoan itzi eben eniagaz barriro alkartu.

Ango egunak luzeak ziran. Batzuk euskerea osotzen eben,beste batzuk gaurko izkuntzak ikasten ebezan, beste batzuk kontabilidatea. Geure artean berba egiten gendun edo be-barru txikian jolastu.

Ifiongo mifiik zomatzen ba'zendun, urrengo egunean osagillea etorri-arte itxaron bear zendun.,baiña etorri arte ez eutzuen emoten aspirina bat be. Nik 30 egun egin nebazan ogean neure lunbaljia mingorrak geldituta. Gaiso ori noizean bein zomatzen nebati eta iñoz ogean egon.bearra be izaten neban. Ordutik ona gaiso orretara daukat jokerea,ez da gaiso aimdia baiña mingorra bai. Espetxetik urten nebanean 19 kilo gitxiago neukazan sartu nintzanean baifio.

Lagunen batek espetxetik urteten ebanean, gure barruan sentipen bik egiten eban burruka: Poza doana doalako eta garraztasuna geratzen gifienakaitik.

Udan eguzkiak gure gorputzak eta gogoak beeratzen ebazan. Be-barruan mazo baten antzera jotzen eban. Eta iraillean asi eta bagillera arte ez egoan eguzkirik be-barruan. Ormeak 6m'ko goierea eukan eta ezin eldu be-barmra diz-dizak.

Neguan sarritan utsaren azpitik 10 maillako otza eukiten gendun. Iñoz uraren odiak lertu be egin ziran izoztuta. Lo egiten gendun aretoan kanpoan egoan besteko otza eukiten gendun.

Be-barrutik zozo baltz eta zaratatsuak ikusten genduzan txorro-txioka eta zeruan naiz espetxearen itugin-lekuetan egazkadaka talde aundiak. Gora egaz egiten ebanean ezin kendu berez datorren bekaitza,enbidia, txori baltz baten antzeko egoak be ez daukaguzelako.

Bein baten Madrid'eko Nuntzioa etorri jakun ikertzera. Zamora'ko Gotzain barria sagaratzera etorri zan. Mai baten inguruan artu gendun. Papelezko iruditxu batzuk

emoten asi jakun,baifta toer sartu bear izan ebazan bere boltzara, pik zelan begiratzen geuntsoen ikusi ebanean.. Gu ez gengoan amabirjiñearen iruditxu batzuk emonda pozik geratzeko giroan. Geroago jakin gendun zer esan eban: Arrituta geratu zala eta gau bateutan gatx egin jakola loak artzea. Baiiia lorik-ezin batzuk arin osatzen dira. Egin bear dana, besteen arazoak kontuan ez artzea da

Komunak lenengo etxe-maillan geunkazan ete zabalik, alkarren janaim egozan.. Sarritan izaten gendun "gorputzeko bearkizunak"alkar-banatzea,bat baifio geiago batera an batzen giñanean. Toki zikin ori alkar artzeko areto lez ikusten gendun, Dutzak be baterakoak ziran eta ez egon norberaren barrukotasuna zaintzeko erarik.

Gabean txixa egitera jagi bear ba'zendun, izoztu egiten jatzun bidean joan eta etorri 60 metro eginda^otz-beroa utsaren azpitik 10 maillan egoala.

Egunean ira bidar zenbatuten ginduezan: Goizeko 9'retan urteten zan zaintzailleak, sartzen zan bere ordezkoiari izten eutsan lekua,.Gabeko amabietan egiten zan beste ordezte bat.: Lotan zengozala iziotuten ebezan argiak txapa- zarata aundiakaz eta kanpoko otza gaiztoa zala. Zaintzaille bik, guda-martxan, zenbatu egiten ginduezan ia guztiok gengoan jakiteko. Itxartutze polita, an egotea pozgarri biurtzeko! Espetxea giza.biguntasunaren aurkako ertza da.

Sarritan, denpora-pasa, eta irudi adore-emoilleak gogoan eukiteko, Meñaka ta Meñakabarreneko baserriak bmiaka ikusten nebazan irudimenean eta erriko eleiztar bakoitxaren izen-abizenak gogoratzen alegintzen nintzatt

V. Frank gogo-osagilleak esaten ei eban,nazi'en lan-zelaietan espetxeratuta egin ebazan aldien gomutapenak gogoan artu ezkeru, argi dagoala gizona olako larrialdieten nonml biurtzen dala eta bere buruaren osagille be bai, eta orrelan jokutzen dauala. Esaterako, nire lagun baten lo-korrosoak barre eragiten eustan neure barruan. Eta nire lagun batzuk ain ziran onak lo-korroso ori ateraten ze, esan zeitean txilibitu zulatuak zirala. Zaratatxu bat eginda lortzen gendun korroso orren *zmati* aundia biguntzea, beste guztiak begiak erdi-itxita egotera beartzen ginduzalako.. Oitu gintzazan lo-korroso orretara ondo be ondo eta gero, ori falta izaten jakunean erdi-lotan egote ori gogaikarri ta beti-bardin biurtzen jakun.

Gure zaintzailleetatik asko abadegai izanak ziran. Ikasketak ondo etorri jakezan lan irabazkorra lortzeko. Beti da ona kristiñau makdeen serbitzaille izatea.. Zuzendaria bera be abadegai izana zan. "Josulaguna" ipifii geuntsan ez-izena, emeretzigarren gizaldiko santu baten antzeko aurpegia eulakao, baifla guk egiten genduzan eskariak alperrekoak ziran,bera len lez geratzen zan. Euren artean bat Laureano zan, ^adegai izana, eta berba egiten euskun bakoitxean gorri-gorri egiten zan; Casaseca laster jubilazifloa artzeko egoan eta "Talletu" ez-izena ipifli geuntsan bere abizenagaitik. Beste bateri "Torero" ez-izena ezarri geuteon,andaluziar gaztea zan,barritsuaj kanpo-bizia eukana, eta txeratsu agertzen alegintzen zan. Gutzat onena Jose zan,xumea, ikusle ona, dana ikusten eban, baiña gu asarre ez ikustearren joan egiten zan eta ikusten ebana barruan gorde. "Enrikito esne txara", Zamora'ko falanje-

burua zan eta espetxean be zaintzailleen burua. Bere erraietatik urteten eutson gure aurkako gorrotoak gu euskaldunak giñalako beste barik. Bere aurpegiabeti egoan illim, eta bera etortea beti zan zori txarra. Gugana etorten zanean, beti, ekarten eban kaJtegarri jakun albisteren bat Beste zaintzailleak be al ebenean bere ondotik kentzen ziran.

Klemenciamo zan espetxeko gure kapellaua eta espetxeratu arruntak D.Klemen zas esaten eutsoen. Domeketako berbaldia asten ebanean, mezara joaten ez ziranak kanpoan abots-galluetan entzun eikeen mezea. Baifia berbaldiak entzuteko gogorik ez euken lez^i rriatiak kendu egiten eben "Zas" batean,

Gure egoerea politagoa izan daiten egun baten jantokian loraz beterik landara batzuk ipiiii euskuezan. Batzuk uste izan gendun landarak leor egozala eta gure fcdxak aundi egiten lagunduko euteela. Leortu ziran eta ez ebezan geiago ipiñi. Landara senideari abesten egoteko toki egokia ez zala espetxea ulertu eben.

Antzeko zerbait egin geIntean zuzendariari be:Zorionak emoteko Gabon eta Gabonzar gaueko ^arira etorten zan. Janariak iruntzi eta iruntzi genbiltzazan eta orrelan ez eban eukiten aukerarik gure kontura biotz onekoa izateko.

OGETA BOST KANPOAKOAKAZ ARTU-EMONAK

/ Jakifial Ez geunkan irratirik eta ez telefonoz dei bat egiteko ^kubiderik be.

Zamora'ko egunkaria ekarten euskuen egun bi beranduago. Sei orrikoa zan eta zatiak kenduta emoten euskuen Euskadi'tik ezelako albisterik *mtja* ez dagigun.

Etxekoai astean karta bat egin geikien. Adiskide eta lagun bateri idgBteko baimen bereizia eskatu bear zan idatzita. Gure gutun edo kartak iregita joiazan eta artzen genduzanak be irekita artzen genduzan eta sarritan berbak kenduta Euskadi'ko erriren bat aitatzen ba'zan edo ifiok agurrak edo goraintziak bialtzen ba'euslaizM.Eskutitza euskeraz ba'egoMi illebeta beranduago etorten zan.Madril'en zentsura egin ondoren.

Telebistan ez euskuen izten arratsaldeko ume-ekiñaldiak baiño besterik ikustenAlbistegirik pentsau be ez. Futbol'eko ekifialdiak ikusi geinkezan, aurretiaz i d ^ i z baimena eskatu ezkeru.

Ikustaldiak eta "barriketak" esaten jakenak ogei minutukoak ziran eta illean bein. Konturatu barlk berbaren bat euskeraz esaten ba'z^dun, gaiñean agertzen ziran eta bigarrenez ori j ^ o ezkeru, barriketea amaitu egiten zan. Esptetxeratuen ondoan beti egoan zaintzaille bat metro erdira,zutunik, alkar-izketa begiraten. Jarraian sare bat egoan,balaustra batzuk eta metro baten zabalerea eukan bitarte bat, gero beste sare bat eta atzean ikertzailleak. Etxekoak aurreko egunean urtetan eben Bilbao'tik autobusean, urroigo epmean lenengo orduan an egoteko. Ikustaldiak ariñago ibilli daitezkan, batzutan birenak batera egiten ziran eta eziña izaten zan alkar-ulertzea txandaka isildu ezik.

Esker onez artzen gendun etxekoen ikustaldia, baiña samintasunez egoten gintzazan alan 20 minutuan egoteko zelako ibillaldi neketsua egin bear eben ba-genkialako.

Abade baten amak ez ekian erderaz berba egiten eta ulertu be ez eban egiten. Ez jakon itzi bere semea ikertzen alkar ikustea euskeraz izan ez daiten. Ab;^e ori Busturi'ko Julen Kaltzada zan.

Geran guztia aztertzen ginduezan, aurretiaz ezer esan barik, edozein egunetan.Ifioz billoztu be egin nai izan ginduezan gure jazkiak aztertzeke eta buzo batzuk emon euskuezan, guztiak neurri bardifiekoak eta guk bear genduzanak baiño txikiagoak. Ezetza emon geuntsen guztiok batera buzo orreik jazteko, zapalkuntza ori jazan-ezifla zalako.

Gabean, geure lo-aretora sartzen ginduezenean, nai ebenak mezea egiten genduii. Eta katrera lo egiteko sartu-aurretik, aretoan alde batetik bestera ibillaldi batzuk egiten genduzan gudari-antzera, eta *Eusko gudariak gara" abesti^. Orrek gure sentierak sendotu egiten euskuzan eta ondo etorten jakun neguan gure oiñak apur bat berotzeke.

OGETyBQST^x NI BURGOS'EN MILimRRAK ERAITUA(1970-07-07)

1970n.urteko uztaillaren 7n. egunean asi zan "bandidaje ta terrorismo*"gaitik SOLAUN BTA BESTE BATZU'REN AURKA EPAIKETARIK LABURRENA.

Beste *mm.0* batzuren artean epaitu bear zana Solaun'en taldekideak oztu eben kopiakin ospetsua oztuteazan.

Bakio'ko abade lez Jose Mari Madariaga eta ni gengoan arazo orretara sartuta kopiakiña eroan gendualako eta epaituko ginduezan, baita, iraultza militarri laguntzearen sal[^]aintzagaitik.

Biok eroan ginduezan Zamora'ko espetxetik Burgos'kora. Irugarenez izango nintzan ango biztanlea. Astebete egin gendun an. Nikola Telleria'k kuruteetxu bat emon eustan bular-gaiñean jakean eroateko. Burgos'ko espetxera sartu gñanean, zaintzaille batek auxe esan eustan: Kendu egizu kuratze ori, emen beste edozeiften modukoa zara-ta.

Epaikunde- egunean biok eroan ginduezan ftirgoi baten eta beste furgoi baten espetxeratupolitiku batzuk, gure ezagunak ez ziranak. Beren-beregi nai izanda be, ezin egin lefke eroate zaratatsu eta ikusgarriagorik. Bide-argiak gelditu ebezan, eta Burgos'ko kaleetan fiirgoiak eta polizi berebillak alkarren atzean joiazan argiak kiñuka eta sirenak al ebenik ozenen joten ebezala. Eroateko bear zan ordu-erdi orretan, Biirgos'ko kale guztiak geldituta egozan.

Epai-maia 12 militarrek osotzen eben, euren jazki bereziak, bularreko ikuri[^] eta jakeko domiftak eukezala Ipiñi ebezan mai gaiñean euren lantzak, eta maiaren erdian kurutze aundi bat. Mai *W*ize orren barrenean erruaren agergarrik ipifii ebezan:Kopiakifla, izkillu batzuk eta kotxe-matrikula batzuk.

Salatuak aurrez- aurre gengoan, epai-maitik metro bi ingurura. Abade biok ezkerrean, eskoian espetxeratu politikuak sei edo zazpi. Solaun eta Basauri'tik iges egindakoak aurrean ez dagozela, eta iraultzaille lez,"en rebeldia" epaituko ebezan.

Epai-aldiaren bidean, Fiskal militarrek ardura aundia artu eban trebetasunez, talde armadunaren ekintzak gure abade bizitzako jazoerakaz nastatzeko. Dana zan ona bere auzia aurrera aterateko. Pistolak eta berbaldiak batera aitatzen eb[^]an,orreikaz nastean banderen zabalkundea, berbaldiak eta batzarrak, kopiakifta eta Mde armatua, abadeak etaETA'koak. Eta orrelan, berreun orrialde baifio geiago irakurriz, elebarri nastetsu bateai antzera, dana zan kuratzearen aurrean epaia emoteko. Epaialdiak goizeko bederatzietatik ordu bietara arte iraun eban.

Epai-aretotik, barriro espetxera. Oraingoan ibillaldia ez zan izan goizekoaren antzekoa. Luzaro ibilli gintzazan Burgos'tik kanpora eta erri-bideetatik eroan ginduezan espetxera.

Azken-epaia au izan zan:lru urterako espetxea iraultza milifar bateri iaguntzeagaitik.

Andik egun bira [^]mora'ko espetxera eroan ginduezan barriro.

OGETA SEI ZAMORA'KO ESPE'DCEAN ZULOA EGITEKO ASMOA

Urte areiten ez jakon zuloa esaten[^]urteen joanean, gaztelerea aber[^]tu egin zan eta "zulo" esaten jakon baituta eukiten ziranak eukiteko lekuari. "zulo" esango dausat nik iges egiteko gertatzen dan zuloari

Ainbeste egun, ille eta urte barraan dagoanak ba-dauko astia iraditu leikeii edozer iraditzeko. Bairuan egozan abade askok 8,10 edo 12 urteko zigorrak eukezan.

Nik ez neban izan zuloa egiteko asmora sartzeko gogorik, iges egiteagaitik artu zeitekean zigoiraren arriskua askoz aundiagoa zalako.

Asmoak ifioanez, zuloa espetxearen berrengo maillan egingo zan,diitxak dagozen lekuan,be-baiTuaren parean. Ez geunkan beste be-barrurik. An eratzen genduzan pelota.partiduak, eskuakaz gomazko pelotak ormetara botata. Gure alegiña ez zan izaten besterik, beian ez dagiala sakarik artu ,beia okertua ta zuloteua zalako. Jolas onetan nekatu egiten giñan, baiña otrelan beintzat adrenalina erreten gendun Batzuk pelota-joko ori egiten gendun artean beste batzuk "zulo"an lan egiten eben., beste batzuk be-barruan ibilli egiten ziraii eta oneik oarra egiten euteen satorrai alarma deirik egin-bearrik ba'egoan.

Lan alkartua egiten gendun txandakoa zan zaintzaillea ezergaitik be be-barrura joan ez daiten. Berbea emoten geuntsan beste gauza batzuk pentsau dagizan, edo xake jokoa egiten gendun beragaz edo bere egite ospetsuak enzuten geuntsozan. Txandako zaintzailleak ez ba'eban onartzen gure jokoa, zulo-lanean besoak geldi euki bear izaten ziran.

Lenengo egin zana lau baldosa lautu otma-ondoan, dutxak berotzeko bero-galdarak egozan lekuan, kentzea izan zan .Lan egiten zan bakoitxean IsBi-egunaren asieran naiz azkenean, baldosak eskulauta geratzen ziran serrifiagaz eta dutxak berotzeko suak bear eban egurragaz.

Baldosak askatu-oiidoren, metro ta erdi lurrean sakondu bear zan eta gero bide laua egiteii jarraitu lurraren azpian eta oraia bien azpitik eta erdiam euken ibil-lekutik jmxaitu. Guztiz 22 metro izango zirala uste gendun. Orma biak 6 m.'ko goierea euken. Lenengoak gure be-barraa raugateen eban, leu metroko ibiltokia egoan erdian eta azkenean espetxearen kanpoko ormea.. Onek gaiñean arantzadun alambreak eukazan. Ertzetan gau ta egun guardi zibillak euren tokitxuetan begira egozan.

Zeintzuk izan ziran lan au egiteko lanabesak? Jakifta, barruan ez egoan ezer orretarako balio ebanik, jateko kollarak eta olakoak be ondo begiratuta egozan.

Kmpotik ekarten euskuezan atun eta bonito-latak aundiak izatea lorlu gendiin. Orreik egiten ebezenak gure uste onezko lagunak ziran. Ontzi orreik azpi bikotxa euken,gaiñean, ez sakon, atuna etorten zan eta azpia kablez, gomazko maillu tolesgarriz, zaratarik ez egiteko, eta beste tretxu batzukaz baterik etorten zan.

Latazko ontzi orreik gela baten batzen genduzan,zaintzailleak begiratzeko moduan. Zabaldu gura genduzanean[^]txandako zaintzaillearen aurrean zabaltzen genduzan.Zaintzailleen aitean bat egoan, D, Jose eritxona, larregi begiratzen zalea ez zana. Onen txandea artuta eta, beronen aurrean lata-ontziaren gaiñea idegiten gendun. Lata-ontzia zabaldu ezkerro, zaintzaillea joan egiten *zm*. Orduan, milla

aldrebeskeri eginda, beko alde idegiten gendun eta an aurkitzen genduzan anabes guztiak etobe-barmko azpiaren arepean gordeten genduzan.

Zelan lortu gendun lanabes guzti oneik kanpoko laguntzailleai eskatzea? Ori ezin zeitekean egin bide nomialakaz, ez ikustaldietan, ez kartetan, ezelan be ez. Dana egoan ondo begiratuta, baiña...

Baiña azpi bi eukezan olako atundun late-ontzi baten guri walkitalki bat bialtzea lortu gendun, orrelan kanpokoakaz artu-emonak euki al izateko. Gure artean "OSABA JOSE" esaten geuntson, esandako D. Jose zaintzaillearen *omm&z*.

Amabostean bein etorten ziran kanpotik kotxeetan abade-lagunak eta eguna ta ordua bateim ipinita, gabeko amarretan eta orduan eukiten genduzan kanpokoakaz artu-emonak Ordu eta egun orretan gu gaueko aretoan egoten giiian, irugarren etxe-maillan eta lo egiteko batuta. Gau-aietoaren leioak leiar lodidunak ziran lauki txikietan lautuak. Olako lauki txiki bat zabalik egoten zan beti aizea s[^]lzeko. Kanpoko lagunak al zanik geien urreralzen ziran espetxera, Duero ibaiaren ertzetik 400 metro ingurura.

Orrelan, Osaba Jose'ri eskerrak, bear genduzan lanabesak eskatzen genduzan. Esaterako, argi-kordelak, bonbiliak etapalatxuak etorri jakuzan.

Alkarze-bide trikimau Uutsu ori amaitu zanean, sarritan alkartzea gatxa izaten zan gau isilla zalako edo berbea argi eltzen ez zalako edo ari Hegi egiten zalako, arazo barri bat agertzen zan: Zelan gorde urrengo alkartzera arteko amabost egunetan OSABA JOSE. Batzuffli, gau baterako- edo, lo-gelako koltxoietan beste batzutan be-barruko are-antzekoaren azpian. Baifla beti aurkituko ete dauskuen bildur aundi bategaz.

Gizandien lana izan zan. Batzuk lanean zuloaren barruan satorren moduan; beste batzuk zainlzailleai begiratzen; beste batzuk txandako zaintzailleakaz beiba ta berba. Guztiok estu ta larri or asko jokutzen zalako.

Egin [^]kotan ezin izaten zan zuloa egiten jarraitu, edo zainteaillea aldatzen zalako edo orduz kanpoko ikustaldi bat egoalako. Gauza jakingairi lez esan neike, Martzelifla nire arrebeagaz eta Juan onen senarragaz jazo jatena, Oneik ez euken seme-alabarik eta ni eurentzat seme bat lez nintzan. Nigandik urrago egoteko opor-aldia igm-oteko Zamora'ra etortea embagi eben, orrelan txitean pitean, egun bi edo irurik bein, aniabost egunerako baimen bereizi bategaz ni ikustera etorteko. Nik ori pozik entzun neban, baiña etorten ziran bakoitxean zaintzailleen lana euren eguneroko zeregiftetan aldatu egiten eben. Orrelan ezin jakin zaintzailleak non egozan, gure zuloaren lana ziutasunaz egiten jmraitzeko. Ezin esan nire senideai olakorik ezer eta Duero'ren ertzera joateko eta an dagozen ikuspegi ederrak ikusteko esaten neutsen. Nire arrebea arrituta egoan Duero'k ain ur loa eroalako. Neure barruan barre egiten neban, ibaiaren lupetz-margo ori geuk botaten genduan lurra zala jakinda. Espetxetik urten nebanean eta nire senideai au esan, samintasunez egozan opor-aldia igaroteko Zamora'ra joatea otu jakenelako.

Oraindifto neugaz daukat 71 -06-21 eguna daukan txartei bat, neure etxekoai zizendua, onek ezkutuan baifla ondo agertzen dau zer egin bear izan gendun etxekoai lar sarritan ez etorteko aoikua emoteko. Euskadi' ko ondartzetan udea igaroteko esaten neutsen.

Zamora'tik,1971-06-21

Anai-arreba ta loba maiteok:

Txartelean idaztea errezena dalako,orixe egilen dot Emen ikusten dozue Duero ibaia. Orrek gogora dakast ze ondartzat edenak daukazuezan or. Onegaz esan gura dautzuet, ona etorten ibilbarik, azkenengo kartan esaten zenduen iez, obeto egingo zeunkeea egun orreik odartzan edo edonon ortik igarotea Ez dau merezi orrenbeste km. egiteak zuentzat ain leorak eta itunak dlmn lur oneitaia etorteko. Atzo artu nuen anai-arreben ikustaldia. Ondo biurtuko zira la uste dot Ez daukat zer-kontau geiagorik. Besarkada bat zuen osabea ta anala dan Patxi'k.

Zuloaren lanak ondo alkartuta zeatz jokatzera eskatzen eban. Lan egin gura *zm* bakoitzean kontuz kendu bear ziran lau baldosak eto amaitzen zan bakoitzean barrero ipifti bear ziran serriftagaz eta egurrakaz ondo oztenduta. Lanabes guztiak zuloaren barruan godeten ziran. Baten baiño geiagotan izan genduzan larrialdiak, zaintzilleetarikoren bat etxe barrenera etorten zanean, zuloaren barruan lanean egozanak ebiltzan ondora.

Ateraten zan lupetzak be arazoak ekarten euskuzan,zenbat eta sakonago zulatu lurra buztiagoa zalako eta ariskua egoan baten bat lurperatuta barraan geratzeko. Olezko kuxa bategaz eta kordelagaz dutxelara atera bear zan, eroapen aundiagaz, ur ^ko eta arrisku aundiagaz lortzen zan lur ori desagertzea. Agertzen ziran arriak zuloaren ormak sendotzeko izaten ziran,zeaztasun aundi barik. 15 edo 20 metro zulo luzean banuratu gifianean, gatxa zan amasea artzea eta bonbillearen argia be txikiegia zan. Ezotasunak, leku estuegiak lagun bateri baiño geiagori ekarri eutsezan kalanbreak gorputz ataiik isillekoenetan eta onein oiua, txala egiten dagoan beiazen orroen antza euker. Gizonak ez dagiala ifioz al dauan guztia sufritzeko bear-izanik izan. Zuloaren goierea 50 zm. Ingurukoa zan eta beste orrenbestekoa zabalerea. Amaitu ezkerorjuzerea 23 m. ingurukoa izango zan.

Azkenean amaitu gendun zuloa. Urteerako agoa kanpoko ormearen ertz-ertzean ondo ezkotauta egoan. Urtengo ebenak guardi zibillen zain-toki bitatik 20 m.'ra egozan. Dana ondo batuta eukiteako, igesa baiño illebeta lenago, zain-tokietan egozan guardi zibillen oiturak begirateeko txandak eratu genduzan. Gabeten, argi-dizdizak botaten ebezan espetxearen inguruetara, inguruak eta ormen bitarteko ibil-tokia argitzeko. Guardi batzuk oitura lez euren dizdizak amar minutuko botaten ebezan,beste batzuk ogei minutuko. Iretargiaren aldiak be zeatz artu genduzan kontuan. Iges-eguna 1971n. urteko iraillaren 20" izango zan.

Dana egoan gertu ig[^] egiteko. Kanpoko laguntzailleak gugaz bateratute geunkazan. Zulotik urtenda 50 metro egin bear ziran lurraren gaifean eta katuak lez arin-arin ibiOita.. orrelan kanpoko zain-tokitxueta egozan begiralzailleak tiroka asi ez daitezkan. Bide ori egin ondoren berebillak artuko ebezan eta Madrid'era edo Sebilla'ra eroan. Bideetan zaintzailleak non egozan aurretiaz ikusita.

Iges egiteko ustea euken batzuk, zuloatik katu-antzeran arin ibiltzen ikasteko, espetxeko be-barruan ariketak egin nai izan ebezan. Kanpora urtekeran ziurtasuna gura eben metralietan tiroketari iges egiteko.

Esandako igeserako eguna eldu zsbiean, ordua aukeratu bear zan eta ba-egozan aukera batzuk: Bat zan apari-ostean bat-batean zaintzailleak euren batzarra egiteko espetxe-bamjra joaten ziranean. Aukera au ez zan ain ona gutzat gauzak gertatgeko asti gitxi enioten euskulako, ordu bat barm lo-gelan egon bear gendualako eta orduantxe agertuko zan arazo guztia.

Beste aidcera bat zan artu zana. Gabeko amabiak igaro-ondoren, zainteailleak gure zenbaketa egiteko lo gengoan gure lo-gelak ikusi eta gero, lo egiteko aretoaren atean egoan balaustre bat ebagiko gendun eta etxe-mailla bi berago joan zuloaren agoa egoan lekura eta an galduko gintzazan. Orretarako naste aundia egoan, lau iges batera egitea zalako: lenengo balaustrea ebagitea, eta beera joatea; gero zulo luzea igaro eta, azkenean, kanpoko lurretako igesa. Dana zan nastetsua eta gatxa ondo urteteko.

Zazpi ziran iges egiteko egozan espetxeratuak. Zigorrik luzeena eukenak, 10 eta 16 urte. Beste b[^]zuk zigor gitxiago, neuk be iru urte, eta guk zer egoan alde eta zer aurka aztertu ondoren, uste izan gendun ez ebalu merezi arrisku orretara sartzeak

Irakurleak itaun asko egingo dauz lerro oneik irakurten dauzanean: Zelakoak izan ziran igesaren aurreko egunak? Zelan susmatu eben zaintzailleak zeozer gertatzen genbiltzala.

Emen neure susmoak bakarrik agertuko dodaz.:

- a) Argi egoan ez geunkan baretasuna [^]ertzen alegintzen gintzazaia. Gure alkar bizitzako bareti[^]una aundiegia zan. Ez gendun ziorik txikienik be emoten ezerezkeriakaitiki gu zigortzeko.
- b) Zerbait gure aurka etorreanean ez kendun eskaririk egitenjoi beti egiten gendun gauzea. Orain arditxu mantso batzuk euren artegian lez giñan, azagariari asarratzeko ezelako biderik barik.
- c) Zuloaren eginbidem bizien jokatu eben batzuk ezin eben eskutatu euren kirio-estutasuna ta barra larria.. Ez egoan beste biderik, kirioak joan-etorri ariñakaz geunkan leku estuan baretzeabaiño.
- d) Gure errietako edo gure urtebetzeetako jaiak ospatzeko gertatutako bazkaria ekarten gendun, mandatari bateri Zmnora uritik ekarteko eskatuta. Iru egun lenago eskatzen gendun eta beti jan bear izaten gendun bildots erreka. Iraillaren ISn. egunean baskaria ekarteko eskaria egin gendun ezelako jairik ez urtebeterik ez egoala. Igesaren jazokizuna izango zana ospatu gura gendun.

- e) Bear ba'da espetxeratuen baretasun ain aundia, etajai ezagun barik bazkaria eskatzeak susmo txarra sortu eutsen zaintzailleai.
- f) Konturatuko ziran, bear ba'da^ guk begiratzailleai begiratu egiten geuntsela. Gaiso-etxe baten gaisoen aurpegiak ez dabe arritzen alboan dagon gaisoa berak be olakotxe aurpegia daukalako. Baiña osagiliea ikustera datorrenean laster igarten dau gaiso bakoitxaren astuntasuna. Gaisoen artean konturatu barik ikusten diran zertzeladak, ez dira gartantzi bakoak osagille bereizituarentzat Gure zaintzailleak airituta egongo ziran gure normaltasuna ain aundia zalako.
- Gauzak orrelan egozala, olerkeri latindarrak esango leuken lez. "Quae cum ita sinf", azterketa sakona egin ebeii espetxe osoai. Beia joten eben makillakaz, katxabakaz, Santa Ageda mutiJlak egiten daben antzera, batez be ormak eta tabikeak eukezan barrenetan. Etxepean, berogailluaren ondoan eta serrifiez eta egurrez ezkutauta egoan lekuan zaratea ez zala bardiña konturatu ziran. Ori ikusi eben gu lo-aretoa gabaz joan eta gero egin eben azterketa baten.

OGETA ZORTZI EGUN IZENDATUA:1971-IRAILLAK 13

dau guztietoi lez, gaueko amaïretan lo-aretoan itxita geratu giñanean, beti lez ibillaldia egin genduan" Eusko Gudariak Gara" abestuz eta, ordu-erdi geroago guztiok gere abietan gengoan. Sarritan loak artzea gatxa izaten ba'zan be, gabeko amabietan itxartuko ginduezelako, estiiak ziran gau areitan gatocagoa izaten zan loak artzea. Ez gendun uste jazokizunak aurreratu ziranik. Ebanjelioak diñoaï lez, "quia qua hora non putatis, venief", Gitxien uste dozuenean etorriko da...

Gukgeure poz larregian uste gendun urrego (^uneko aparrigietan izki aundiakaz etorriko zala: Abade euskaldunak Zamora'ko espetxetikiges ^in dabe. Eziña.

Goazen atzera 13n. eguneko gabera, Gabeko amabietan zuzendaria etorri jakun sei bat zaintzaille lagun ebazala. Onein artean "esne txarreko Enrikito" ospetsua. Onek pozezko aurpegi irrigarria ekarren. Jagi-azo egin euskuen eta aize bera jo egiten eben berbakaz auxe esan euskun zuzendariak:

Jakingo dozue zerfarako gatozen ordu onetan. iges egiteko asmoaren arduradunai eskatzen dautset autortu dagiela iges egiteko asmo au ainbat lasterren. Ordubete emoten dautzuegu pentsateko eta gero banan-banan igaroko zaree or beean ezarriko dogun eimltegitik.

Gure goibeltasuna, ezintasuna eta asarreabarruraiflo sartu jakuzan. Bateuk giarrak be legortuta geratu ziran eta odola be izoztu egin jakun. Izerdi otea geunkan geure arpegietan eta eutsi-eziñeñeko asarreak ikaregaz batera argitu euskin gure pentsabidea. Beste batzui eztarria, biotza eta adimena bera, geratu jakuzan legortuta.

Mosketenien antzera guztionk arduradun lez agertzea erabagi gendun. Zigorrik aundiena eukenak lar biotz zabalak giftda eta eurak artuko ebezala erantzukizun guztiak esan euskuen, gu igesaren eta zuloaren asmo orretatik kanpo geratzen gintzala. Eskintza ori euren omenerako da eta zazpi edo zortzi baifto ez ziran geratu erantzule.

Epeategi txiki orretan, espetxeratuak eta zaintzailleak alkarrari txalkur-begirakunerik gogorrenak aurkeztu geintsezan. Aurpegiak maitasima naiz gorrotoa agertzen dau,

Batzuk abote aundiz esan genduii ezer be ez genkiala. Eta ori ziurtazeko agiria izenpetzeko ez eban euki ikararik gure eskuak, izan be biziten jarraitzeko bear dan esaldi au beteteko unea zan:" Norberaren buruaren alde eta iñori kalterik egin barik, batez be «^katasun barik dagoanak, ez dau norberaren aurka arririk jaurti bear"

Errudun lez agertu ziranak gela bereizietara eroan ebazan eta gero Mediterraneo'ko espetxe batera aldatuak izan ziran. Ez dakit Tarragona'ko izan zan.

Ordurik aurrera espetxe-barruko araudi zapaltzaillea estuago biurtu zan, zaintzailleak geiago egoten ziran aurrean, etxekoen iki^taldiak gitxiago ziran, kartai geiago begiratzen jaken, ez ziran etorten izpar-ingi ebagiak be eta umeen zinea izaten zan telebista be kendu eben.

Jazokizun lez esan dagid^, jazokizuna ospatzeko eskatuta geunkan bildotsa ez euskuela itzi berotzen, beste egun batzutan izten euskuen lez. Otz egoala eta koipea gogor eukala jan bear izan gendun. Espetxetik urten nultzanean urteetan be ezin jan

izan neban jaki ori.. Nire agoa atzeratu egiten zan eta nire barruko zauria agertzen zan kanpora,

Ainbeste lagundu euskun Osaba Jose'ren barririk ez dogu jakin geiago. Antza, euren artean nasterik sortu ez daiten, eurak aldendu eben.

Espetxean egote a, berez baltza, zuloan itxaropen apur bat eukana, illunago, baJtzago, eta itaxopen bako biurtu zan. Batzuk, zigortuak, eroan egin ebezan, beste batzuk, geratzen gifianak, geure jausitasunean bertaon-bera itzita geratu giñan.

"Zigor-kentzea" eritxona ezarri zalako eta C C C 'n kontaketarako ikastaroa ikasi nebalako, nire espetxea ille batzuk gitxiagotu zan, 15'ean bein epaikariaren aurrera aurkezteko baldintzagaz.

Guztiak euken konkordatu-espetxea itxiteko guraria, bai Gobemuak eta bai Eleizeak eta bai^ batez be geuk. 1968n urteko agustuan asi zan espetxea,, lenengo sartu ebena Ibarruri'ko abade laguntzaillea zan Alberto Gabikagogeaskoa izan zan. Zamora'ko espetxea izan da bakaira munduan, beste iñoz ez daualako Eleiza Katolikuak kartzela bat euki Laterriagaz baterabatera. Emi abade baifio geiago igaro gintzazan ango burdiftezko sareen barrutik.

OGETA BEDERATZI ESPETXE BATEN BESTE ESPETXE BAT

Urrengd es^go dodan au esango ez ba'neu, ez nintzake izango zintzoa nire irakurle izan leitekezenen aurrean eta neure buruaren aurrean be ez. Gure sentipenak inguraan dauke^un edozein gauzaren mitzera dira benetakoak.

Zamora izena idazteagaz bakarrik, saminasunaren gomutakiak estuteten nau. Nire bizitza osoan aJdirik ankerrena axe izan zan. Samintasun au eutsi-eziñeko mugetaraiño eldu zan eta ni an egotea luzatu ba'lilz ez dakit noraiño elduko nintzan aJa bear ba'da beti gura izan dodsDna izatea be itziko nebaii.

Kopiakifiatokiz aldatzeko lagundu neutson abadea, adiskide aundia neban. Ni Konkordatu-Espetxe aret^a eroan ninduenean^ bera an egoan. Guztiz langillea zan, norberekeri bakoa eta egiteko gauzetara oso emona. Bere gogo-izdc:erea bat-batekoa zan, zeaztasunik bear ez ebana. Beretzat gauzak baltzak edo zuriak ziran.Inoz ez eukan maillarik, itzi-bearrik. Arentzat edo laguna izan bear zan edo arerioa.

Espetxera joan baiño lenago be izan ziran alkar-ulertu-eziñak beraren eta besteen artean.

Besteak jakin ebenean ni Basauri'ko espetxetik Zamora'ra neroiela, asko poztu ziran, ni ara joan ezkerro lagun gaiago eukiko ebelako alkar fidateeko eta alkar bizitea biguntzeko. Zamora'ra eldu nintzan eta an bizi egin bear zan, Astero geunkazan geure alkar-izketak eta tertuliak taldean Laster ikusi neban nire adiskide ori eta frantziskota biak ez zirala etorten alkar-izketara. Ni bai, joaten nintzan. Joan gura neban. Ori zan bide bat uioresifloak eta sentipenak alkarrari agertzeko eta jausitasunean besteen laguntza zomalzeko. eta espetxeko denpora amaitu-ezifia igaroteko.

Nire la^in orrek ezin izan eban jazan ni alkar-izketa orreitara joatea, Bere arrokerian zauritu neban eta berak uste eban 'lagun izatea eskuan eukitea "dala bere ustea bera bota neban. Arrezkerro ez eustan berbari ez egurrik egiten.Orrelan urtebete ta geiagoan^ba^aririk bazkarira. Askatasunean ez neban-^^beste sentiduko baiña egoera aretan jazan ezifia egin jatan, zergaitik zan jakinda. Ez eban barbarik egiten franziskotM" biakaz baifio, ez nigaz eta ez besteakaz. Besteak alkar-bizitzako arazo lez artzen eben baiña nik nazelakoa

nazelako edo kopiakiñaren arazoan emon neutsan laguntzaren gomutapenak arri aztun baten anteera nire biote mindua zapalteen ebalako, nire gomutamen biozkorra minduta egoan abade-lagun arek orreJan alborateen nindualako. Egia da sarritan alkar-lagun bat areriorik gogorren biurtu leitekela. Len baterako errua zana orain oztasun edo aiboratee eta bestea beerateeko gogo eta despreziateeko gurari biurteen da. Eta norbera arintasunez agertu ezkerro bere jokabidea aztunagoa izaten da.

Beste nire lagunak ikusi eben maitasunetik datorren eskizofrenia ori,berak be jazaten ebalajakin barik, eta euren babesa eskifii eusten eta nik esker ona agerteen dautset,ori eta euren giza.biotea agertu eustelako.. Zelan ez gogoratu Xabier Amuritea'k, AJberto Gabikagogeaskoa'i:, Jesus Naberan'elc, Martin Orbe'k, Julen Kalteada'k eta beste batzuk emon eusten laguntea ori. Beste iruren jokabidea aiztuta euki nai neuke.

Ni ara eldu baiflo lenago Zamora'n egon ziran abade bateuk, euren zigorra lekaide-etxe baten beteteko aukerea izan eben Eurenteat oso gaitxa zan ango egoerea.

Nik itzaltasunez ikusten dot euren jokabidea. Bakotxak daukoz bere neurriak eta al dala ez jauztera jo bear dau.

Espetxetik urten gitzazenean barrero lagun egin gintzazan iztillua izan eban abade a eta ni. Kanpoan, kalean, beste bide batzuk dagoz bizitzako egoera emikarriak eta adiskidetasunarenak diran gomutaki garratzak kutxa aundi baten izteko.

Asko dira nik apurtu dodazen agiriak. Beste batzuk aldean daukadaz, esaterako Zamora'ko espetxeko libreta bat. Neure izenean dago eta libreta ori zabaldu eben D.Franco Franco Bahamonde España Laterriko Buruzagi giMiz agurganriaren grazi-urtean esker onez. Libreta orretan 158 pezeta eukitera eldu nintzan, ez dira ezereza, baiña ez nebazan eskuratu. Zori txar oneik idazten nagon aldi onetarako, 2001n. urtea amaitzera doa, pezetatxu orreik ugaritu egingo ziran eta gaur euro bat izaiigo dira, zentimu ta guzti.

Nire s[^]iñaren frutu dan ogiagaz j[^] dagiela Alan bedi.

(PIES) "GOGOR" taldea oztendu da: Abade batzuk sekulartu egin dira, beste batzuk bide [^]kean lanean diardue, beste batzuk ezkerreko alderdi pilotikuetara sartu dira...

Bizkai'ko eleizan estutasunik estuenak sortu ebazan abadeen eragiñaren iñoz argitaratu bageko edestia

Oarra: Ikusi zeinkeen lez, oraindifto nire izenean dagoan Zamora'ko espetxeko libretan, Francisco Franco España Laterriko Buruzagi guztiz agurganriaren grazi-urtean ain gitxi ez dan 158 pezeta dagoz... nik kobratu barik. Jazokizun oneik idazten nagoan aldi onetarako pezetatxu orreik emongo eben euro bateko dirutza oraentsua, zentimu ta guzti,

j jEuren ogiagaz eurak jateko izan daitela dirutza aundi oril! Alan bedi.

OGETA ^AMAR ZAMORA'KO ESPETXETIK URTEEREA (1971-11-17)

Espetxetik iirtetetik urtean egoteak emoten eustan barruko artegatasunak ez dauko atitzeko besterik ezer umea izateko dagon amaren ametsa baiflo. "Askatesuna" berbearen oiartzuna espexeratuaren biotzean zeruko musikea da, norberak norberaren burua mundura ekartearen antzekoa. Norberak aurkitzen dau barrero norberaren burua. Nik ez neukan askatasunaren biJdurrik,alderantziz, nik barraan zomatzen neban banriro neu izateko almena lerketa baten moduan agertzea.

Ez eusten esan nire askatasunaren eguna zein izango zan.. Ori^antza, espexeko arduradunen erabagia iz^go zan eta oneik beti izaten ziTm barruko bizitasunean larritasuna sortzera emonak. Eguna jakin nebanean, nire lagun batek "kartutso" bat gertatu eban,zentzura barik kanpora ^erateko. Orrialde tolestu batzuk zkm, ondo estututa, benetako kartutxo baten antzera eta neure gurputzean sartu nebazan fisiloji-zeregiñetarako dan goputzaren leku baten. Urtekeran egiten ebeai azterketa ez zan eltzen gorputzeko atalik barrukoena aztertzea.

Espexeko egotaldian nire diratza guztia ez zan besterik, ain esku zabalez nire libretara Laterriak sartu ebazan 158 pezetak baifto. Nire etxeoak ondo ekien duruz urri nebillana eta itzi eben diratza bat espexeko sarreran, urtengo neban une aretarako.

Zemendiaren 17n. egunean, goizeko amarreten, iire erropak zakutxu baten dodazela eta beste neure gauzak eskuratu-ondoren, zorientsu eroan ninduen espexeko ateetara. Amasa sakona artu neban etenire biriak, azkenean, aize askea artu eben.

Kanpoam egoan telefono-tokitik taxi bateri dei egin neuton Zamora'ra Bost minutu barra igon neban taxira eta atzera begiratu be egin barik, nire begiak mm urdiñetara eta ain gitxi maite neban Zamora'ko lurrera begiratu eben.

Laster untengo nintzala jakin nebanean, nire barraan sentipenen burraka bat sortu zan. Alde batetik poz ugaria eta negar kiriotsuak eta euki-eziñekoak; b^te alde batetik barraan geratzen ziranakaitik samintasuna. Alaitasuna bakarrean bizi izaten alegindu nintzan, an geratzen ziran lagun zauriak ez barriztatzeko. Espexeko ziurtasun beartu eta begiratutik "askatasun barrira" pausuak emotera, etorkizun zeaztu-bakorantza nifloian.

Askatasunagaz urtetan eben beste espexeratu arrunt bigaz batera urten neban. Eurak bai, eurak askatasun arduratuak dakarren bildurra eta ziurtasunik-eza eukezan. Bak^ zomatzen ebezan euren buraak,bizi-ezifiekoa iraditzen jaken munduan kanpotar lez bizi izatea. Ia-ia naiago eben espexeko babesean bizi,an zeozer ziralako,besterik ezean, orixe, espexeratuak. Eta urten eben atearen ondoko kale-egalean okerkeriren bat asmatzen egozan barrero espexeko ama-sabelera biurtzeko.

Taxiaren barrara sartu nintzanean, al danik geien iparralderantza eroateko eskatu neutsan gidariari. Erakutsi neutsan diraagaz, Balladolid'era, Zamora'tik 100km. ingurura eldu gintzakezala esan eustan.

Barebil.bizkar-zain batek lagundu euskun Balladolid'era sartu arte eta an ezkutatu zan betiko Ez neban ulertzen zertarako izan zan orreik gugaz joate zeloti ori.

Taxidunak ostatu baten aurrean itzi nindun. Beingo baten deitu neutsen nire arrebeari eta Bilbao'ko koñetuari. Ezin eben sinistu Balladolid'tik deitzen egon neitekenik. Negoan ostatuaren zuzenbidea emon neutsenean asi ziran sinisten. Nire abade-lagunai esan eutsen aske nengoala eta bidea artu eben. Arralsaldeko zazpiretarako Xabier Ozerin, Jesus Arrien eta Karmelo Zamalloa etorri ziran nire ostatura eta Garellano'n prezintauta itzi neban kotxea ekarri eusten

Berezko bultzada batek eraginda neure kotxeari mun emon neutsan. Mun emokeran uste izan neban bere jabea^ betikoa dan neure "neu" aurkitzen nebala.Ostatu beratan gaba igarotea erabagi gendun eta aparria egiteko eta kopatxu batzuk artzeko joan gintzazan. Egia esan, edariak ez eustan kalterik egin baiña nire lagunak Balladolid'eko kaleak ikusten ebezan giro etiliko baten barruffli.Ostatuaini bare-bare egin gendun lo eta urrengo egunean Euskadi'ra etorri giftan,

Nire lagun batek eroian kotxea. Ni aurreko jesarlekuan imifii ninduen.

Isillik artu neban txeratsu ez izate ori eta ez nebazan agertu gidaria izateko nire gurariak. Kilometro batzuk igaro ziraneanjertu jatan barrua eta gelditzera beartu nebazan "nire kotxea" neuk eroan al izateko. Bota eben barre-sanJsoa aundia izan zan eta oiartzuna uste dot Gorbeia'n be entzungo zala. Ain gogotsu artu neban bolantea ze, Euskadi'm eldu arte ez neban itzi.

Bilbao'n Errekalde auzoan Bizkargi kalean artu neban ostatua, an eukelako euren bizilekua nire arrebeak eta koñatuak.

Lenengo egunetan ezin neban sinistu aske nengoala, Ikustaldi asko artu nebazan,deiak be asko, albisteak ugari, taldeetan jatorduak be bai eta ainbeste alkarren barri-emote ta inpresiflo agertze. Ni aurrean ikustea gauza barria zan. Nire Zamora'ko egoerea eta nire abadetza naikoa ziran nire buruan eurak diadema bat ipinteko, "Septimo de Caballeria"koaba'nintzan lez.Zuloaren arazoa, ain zabal albiste-bideetan ibillia zanaren barriak jakin gura ebezan. Euren barruan kezka gaisoti bat lez zan, espetxetik kanpora eta abfue-lanari buruz artuko genduan erabagia.

Espetxetik urteten danean gauza errez askoren "goseak" ekarten dira: Lagunak eukiteko gosea, aukeratutako bakartasunarena, eguzkiaren diz-dizak artzeko guraria. Gozean jagikeran udagoieneko argi-izpiak ikusten nebazanean, berez joten iieban eurakaz neure buraa betetara,nai neban besteko neurrian eurak ez artzeko bidurragaz. Argiak berak be itzi egingo ete nauan barruko ardureak larrituten nindun.

Espetsea zer dan ez dakianak, ez daki askatasuna zer dan. Nire kondenea bikoitxa izan zan aurreko orrietan esan dautzuedan lez. Nik jakin dot parkatzen,parkatuez osatu egiten nintzalako. Iñoren iraitak parkatzean barru-barruan noraitoko norberekeria dagoan iñok ez daki.

OGETA AMAIKA GIRO EZBERDIÑEmN ZELAN ARTU NINDUEN

kire etxeakoak eta meftakarrak ondo artu ninduen. Guztiak urten eben ni agurtzera. Batzuk otzago agertu ziran eta eurek jakingo dabe zergaitik.

Askok ekin eusten neure abadetza Meñaka'n jarraitzeko, baifia eurak be ondo ekien ori ezifia zala D.Paskasio ospetsua an egoan artean.

Goiko eleiz-arduradunak maltzur agertu ziran nire eldueran batera ez betera erakutsirik emon barik. Eurentzat "arazo labana" gintzan Gauzak argi aipegira esateak be askatasuna dakar biotzera. Ez nintzai kikildu Añoberos eta Uriarte gotzain bien aurrean, au esan neutsenean: Eurak Jaungoikoari eskerrak emongo leuskioezala Zamora'ko abade guztiak sotanea eskegita itzkoi ba'lebe. Esaldi bat dago erderaz gurari ori ondo agertzen dauna: ""Arerioa iges doanean, egiozu zidarrezko zubia:" Ori pentsatu nebaii eta orretan jarraitzen dot. Neure barrutik aterata inpresio ori agertu neutsenean, euren erantzuna isiltasuna izan zan. Barriro be erriko esandietatik aterako dot neure zioa:"Isiltzen danak, baietea difio".

Abadeen jokabidea geienetan gugazko artu-emonetatik urrintzea izan zan Gure betiko lagunak alde batera itzita, besteak gugandik iges egiten eben izurriak artuta ba'gengoz lez. Gure jokabidea, jokabide galdua zan eta Zamora'ko gure egoerea fedea galtzeko edo okerlzeko ardatz-lekua. Abade asko ez ziran gugana urreratzen,iñok esan ez dagian artzain-laneko euren lagunakaz ez ziralak alkartzen. Ni neure lagunen aurrean txeratsu agertu nintzan, *niri kili-kili egiteko" etozenakaz izan ezik. Orretera etozanen aurka gogor jokatzen neban asperteailleak ziralako.

Gotzaindegian ba-ekien ni aske jarri ninduena. Iftok ez eban itaunik egin nire osasun makaJa zaiako edo nire gogoaz zelakoa zan jakiteko edo nire artzain-asmoak zentzuk ziran itauntzeko.

NIRE BARRUKO ZAURIA ADRENALINAZ AGERTZEN

Espetxetik urten eta illebetegarrenean zan, bidautxu'ko plazan bide-argi baten Jesus Garai eta ni espetxeratu ninduenean Artzain-Lanerako Ordezkarria zan Jose Anjel Ubieta aurkitu nebazan eguna.Onek, Jose Anjel'ek, ondo ekian zein zan nire egoerea eta nigaz alkartze-bide argi lez, sorbaJdan ikutu eustan eta zelan nengoan itaundu. Une batzuk itxaron neban erantzuteko, nire begirakunea eupadazkoata zorrotza zala:

Ez dago Iztegian berba egokirik gotzaindeglkoak nigaz izan dozuezan ekinfzak zelakoak izan diran agerlzeko. Arltoak... ela pute-semeak esatea gauza bigunegia eta berba orreik ez dabe ondo agerlzen zuekaitik sentitzen dodana edo zuek zareena. Alde egizu *mm* aurretik.

Besterik ezin neike esan, bide-argia gorri egoala bidea igaroten ikusi nebazela baiño.

Ez dakit txarto ala ondo egin neban. Adrenalina bota nebala bai ba-dakit. Jaurti neban irailia giza abotsez datorren aize zakarra izan zan eta aizeak eroiazan nire urte areitako bakartadea, asarrea, ezintasuna ta alkar-laguntza gabekeria. Gaur oraindificio ez daukat barruko berotasiin a agertzearen damurik.

Egian dan lez agertzeko, esan bear dot, baita, Ubieta'k karta bat egin eustala bere zuriketa egiteko eta auxe ifioala: Nire gogo-egoerea ulertzeko bera ez zala izan egokia. Ez daukat beste ezer esan bearrik, zuriketa ori onartzen dodala, baifla ezifita dala nitzat eurak Gotzaindegiko idatz-maitik aukerea euki ebelako arazo guzti an alboratzeko. Bide-argi baten suertez alkar ikusteari itxaroten egon bear ete da zelan nagoan itauntzeko?

ZORIONEKO ALKAR AURKITZEAK

Egunak joanez nire barraa baretzen joian. Artu neban kaleetan ibilteko eta nenbillen metro bakoitxean poza artzeko oiturea. Pozik niftoian barrero eskuratu neban neure askatasunagaz. Gazte batek gidari-txartela lortzen dauanean lez, pozik joaten nintzan neiire kotxean etaKastroUrdiales'kokairata Arrate-ganera joateko gogoia neukan. Ibilli eta ibilli egiten neban nure bakartadean, ikuspegiak eta neure gogoetak baiño beste lagunik ez nebala.

Athletic'en lagun bizia nintzan lez, Korufia'ra arte be laguntzeko erabagia artu neban eta ifioz aurreko eguneko ariketea ikiistera be joan nintzan. Biotz beroz gogorateen dodaz Txopo eritxon Iribar edo Txetxu Rojo. Beste bein Castellon'era arte joan nintzan, ango joko-taldea orduan lenengo maillan egoalako. Antxe aurkitu neban Larrauri'ko ezkondu bikote gazte bat. Bizileku bat euken an lanaren arazoakaitik eta ni lez, gure joko-taldeko jokolariak agurtzera etorri ziran., oneik egozan Ostatu Nagusira. Bikote onek ekin eta ekin egin eustan euren etxera joan eta egun batzuk igaroteko eta orralantxe egin neban. Futbol-jokoa zan egunean, domeka-goizean, Ostatu aundira urreratu nintzan eta aukerea izan neban Txopo Iribar agurtzeko. Biok pozez beterik,euskeraz egin gendun berba eta dei egin eustan egun orretan eta jokolariak egozan ostatuko aretoan mezea esateko. Pozik eta esker onez entzun neban. Arraiña uretan ibiltan dan antzera zomau neban neure burua, amagandiko geure euskeran jokolari arei berba egiten. Txopo izaii zati mezea eraso eustana, Beia be pozik egon zan eta ni zoriontsu eta an egozanak, bardin. Maitekortasunez iru sarrera emon euskuezan arratsaldeko joko-aldirako, bi ezkonduen bikotearentzat eta bat neuretzat Leoien erpakaz eta gure "aurrera"k entzunda, joko-aldia irabaztea lortu gendun.

OGETA AMAIKA NIRE ARTZAIN-LAN BIDEA BER-AURKITZEN

nieak aurrera joiazan eta nik neure zalantzak neukazan parroki bateko abade-lanetara barriro sartzeko.

Iru eskintza euki nebazan lanerako. Maite ninduenak nire egoerearentzat une baterako urtenbidea nai eben. Gastuai erantzun-bearra egoan eta Bilbao'ko Aseguro lantegi batek "begiratzaille" lez lan egiteagaz zirikatu nindun. Salerosketarako lantegi bik saltzen ekiteko ordezkari lez lana eskiñi eusten, bataBakio'n eta bestea Amorebieta'n, Esker ona agertu neutsen lagundu nai eustelako, baiña ez neban azken-erabagia artzen. Nok daki bide orreitatik nora eroango ninduen!

Abadea ez zan lagun batek, nire etorkizuna abade-lana zala esan eustan eta onen bidez jakin neban goian egoan "batek" bumratu eutsala aolku au.

Espetxetik urten eta seigarren illebetean Aftoberos Gotzaitaren karta bat artu neban eta beragaz alkar-izketa batera dei egiten eustan. Ez nintzan arduratu eta erantzun be ez neutsan egin.

Illebetegarrenean beste dei bat artu neban. Otz eta susnioz erantzun neutsan dei orreri.

Gotzai fiaren idaz-maiaren aurrean arkitu nintzan beragaz, nire aldetik izotzezko giroan. Ez gendun alkar ezagutzen. Neure jesarlekuan jesarri baifio ez, agertu neutsan nik beragan neukan uste laburra, beintzat aurreko gotzaitak langoa ez zala agertu-arte. Esan neutsan zelan jokatu eben Ordezkariak eta aurreragoko gotzaiñak, Basauri'ko espetxeko kapellauak, Meñaka'ko nire parrokoak eta beste milla zoritxar agertu neutsazan, Nik ba-nekian bere jokabidea abadeakaz, ez zala epaiketarako auzibideetan baimena emotekoa. Berak be ori baieztatu eustan. Zirarda'ren eta jartaitzailleen jokabidea, nire kasuan^ ez ebala ulertzen esan eustan. Ni ondo ulerfczeko alegifta egin eban eta neure begiakaz ikusi neban gotzain bat negarrez, biotza eskuan ebala berba egiten eutson abade baten aurrean.

Baretuteko eskatu eta illebetean gauzak pentsatzeko esan eusten eta gero beste alkar-izketa bat izango genduala parrokiaren batera izendatua izan al naiten berba egiteko. Esker onez artu neban besffi^kadea emon eustan eta orretan benetakoa izan zala uste dot

Illebetegarrenean barriro joan nintzan bere idaz-maira. Mai-gaiñean eukan agiri-lekuan izendapen batzuk eukazan eta banaka agertu eta nire eritxirako eskifti eustazan. Lotsakizunagaitik ez noa esaten eskiñi eustazan lan-tokiak zeintzuk ziran, nire almenak baifto goragokoak ziralako, baifto erri gartantzitsuak ziralako, izendapen artugarriak ziran.

Nik ezetz esan neutsan eta azaldu neutsan nik nai neban erriak zelakoak izan bear eban.

- 1) Erri txikia. Nire osasuna ez egoan artzain-lan aundietarako.
- 2) Euskalduna izan daitela, nik berba euskeraz egin al izateko.
- 3) Erri orretan ez daitela egon guM^di zibillen kuMtelik.

D. Antonio gotzaitak ulermena eta alkartzea agerfczen eban bairetxu bat egin eban. Entzun eustan, pentsalari jarri zan eta arazoa zuriteeko lez esan eustan: Begira, enien dago parroki bat oraintxe bertako parrokoa jubilatuta eta esan dozuzan baldintzak beteten dauzana: EA da. Pentsatzeko eta erria ikustem joateko astia emon eustan. Nik laster emntzungo neutsala esan neutsan.

AZIA BIOTZEAN EREITEN DANEAN...

Nire izend[^]en barria artu-aurreko bitarte orretan, Meñakar askok dei egiten eusten bazkaltzeko edo apaltzeko, eta oirelan euren maitetasuna ageilzeko. Eta maiaren beroan parrokiko nire egotaldiaren jazokizunak gogoratzen genduzan. Orreitariko [^]ko nik aiztuta neukazan eta eurak *izm zkm* gogoratu eustezenak. Esaterako, medikuengana gaisoakaz egiten nebazan joate ugariak gogoratu genduzan. Nire kotxea erdi anbulantzi erdi alkartearen taxi zan. Edo zelako alegifia egiten geiidun guztion artean, gazteak eta elduak batera, elbarritu bateri urrin egoan bere etxera-arte txirinkadun burditxu baten joatea erreztuteko. Orretarako guztiok egin gendun lan ainbat aste-azkenetan. Beste batzuk nire alegiñak gogoratu eustezan txarto ebiitzan ezkontza-bikote batzuk bideratzeko. Batzukaz ondoren oso ona izan neban.

Jazokizunak lengo eleiztarren agotik entzutean, neu be beste bateuk gogoratzen asi nintzan. Ezin aitzu zenbat bider neure kotxean Bermeo'ko zoro-etxera lotuta eroan neban gaiso gizajo bat. Bere baserrian bainienagaz egoan baten etorri *zm* nire etxera eta aize zakar baten antzera, nire idaz-gelara sartu zan burua galduta. Alegindu iintzan gizona baretzen, neure kotxean eroan neban im kni.-ingurura egoan bere baserrira. Urrengo egunean etxe aretara joateko dei egin eusten. Ao ikiKi nebana gauza ikaragarria zan: Hten egoan, eta samea ebagita.

IUearen asikeretan etxerik etxe, mendirik mendi joaten nintzan. Biotz bigunez gogoratzen dodaz larogetsdc urteetako atso bi areik. Iteua zan batari oifletako atzazalak ebagiten neutsazan, berak eskatuta, Itsua izan arren orduak eta orduak egiten ebazan bakarrik. Beste atsotxua bere seme mutil zarragaz bizi zan. Onek jaramon gitxi egiten eutsan amari eta gosez euki be bai. Dcustaldian nik entzun egiten neutsan eta neure maitasuna agertu eta gaiñera jatekoa be eroaten neutsan.

Nire eleiztarrak, janarien bitarteetan eta jatordu-ostetik jatordu-ostera, barriro be joateko eurakana (Meflaka'ra) esaten eusten. Euren etB nire artean errukideen giroa egoan eta nire aurka jazoak jazo, nitzat Mefiaka artzain-laneko "lenengo maitasuna" zan.

Nire esker ona agertu neban, baifia gogor egiten jatan ara barriro joatea, nire irudiari ainbeste kalte egin eutson parrokoa an egoan artean.

Gaiñera, egia esateko, eleizearen aldetik be ez eben ezelako alegiñik egin a paiTokoa beste leku batera aldatzeko, erriaren gorrotoa euki arren. Eleizearen Lege Kodean esanda dago "Odium plebis" deritxon egoerea eta, nik ikusi dodanez, gitxitan ezaten da egoera orren ondorena. Ulertueziña da, legezko eleiz arauak bete

ezkero, enia abadeagaz alkartzen ez ba'da be, antxe egon leitekela bare-bare. An egoteak ez dauko ezelako arriskurik. Baifta, alderantziz, artzaiñak gitxiengoz arau orrek beteta^bera artzain lana ederra izan eta erriko jentea alde euki arren, eleiz-arduradunak laster aurkituko dabez eleiz legeren batzuk, esaterako danerako prest egon-bearm, edo artzain-laneko bear-izanak, leiotik jaurti eta beste leku batera bialtzeko. Gaur, abadetzarako deituak gitxi diralako, olako egoeak ez dira eguneroko gauzak.

Mefiaka'ko nire eleiztar izanak asmo onez ekin arren, Ea'n abade izateko Afioberos gotzaifiari egindako eskintzeari lotu nakion, eskatutako ira baldintzak beteten ba'ziran:Ez daitela izan erri aundia, euskalduna izan daitsla eta benemerita'ren babesik ez dagiala euki.

ARTZAIN-LANAREN AURREKO IKUSTALDIA EA'ra.

Udako zapatu baten urreratu nintzan Ea'ra.Inoz an egonbakoa nintzan. Nitzat Ea Euskadi'n izenik laburrena eukan erria zan, berba kurutzatuen asmatzailleak sarritaii aitutzen ebena.

Kafea artu neban edatetxe baten ete bertan itaundu nebai meza-orduak zeintzuk ziran. Arratsaldeko seiretan mezea asi baifto amar mimitu lenago San Juan eleizako korara igon neban. Eleizea betetuz joian eta ikusten ninduenentzat ni ez nintzan besterik jesarleku ta altarearen artera ikusi-guraz begituten neban txangolari nuntzebarri bat baifio. D.Zezilio'k esan eban mezea eta Endeiza josulagunak egin itzaldia. 23 minutuko itzaldia izan zan eta luze, aldikoa ez dan itzaldia zala pentsatu neban. Gure fedearen dogmak izan ziran gaia. Koraak oillategi baten antza eukan.Euren artean dana azaldu bear eben lagunen tertulia, dogmadunari jaramon amidirik egin barik. Egoera ori ikusteak zerbait eskatzen eustan eta uste neban ori dana esan leikela zazpi minututan, ainbesteko berba-lapikoa izan barik. Eta ori egiteko gai nintzala uste neban.

Andik im egunera barriro joan nintzan Ea'ra eta D.Zezilio agurtu neban. Ba-ekian bere orde z joatekoa nintzala eta ni ezagutzeaz asko po:rtu zan. Jddtun egoan Zamoia'ko nire zori txarrai begira Irrika bizi bat agertu eustan Zamora'ko jazoki2wnak eskutik agora jakiteko. Izan be gauzak asko aunditu eta antz-aldatu ziran.

Aurkitzen nebanagaz pozulSL, Añoberos gotzaiftari baietza emotea erabagi neban eta berak egiten eustan artzain-lanerako esfcintza onartzen nebala ziurtatu neutsan.

Eskuko k^ette bat artuta,parrokirik parroki ibilli nintzan euskerazko abestiak irarri ete ikasteko. Dana zan barria nitzat. Nire burua lan-leku barri orretara egokitzen joian eta amets aundi bat naukan nigan.

OGETA AMABI

\

NEU BARRIRO BAKETZEAREN SAKRAMENTUAREN AURREAN

Nire artzain lanerako amesen artemi pfflrkamenaren eta autortzaren sakramentuari buruz eleiztarrai berba egiten ikusten neban neure burua. Neure eritxiakaz ondo bateratuta uste neban gauza gatxa izango zala osasuna lortze oneri buruz berba egitea neuk ainbeste denporan sakramentu au artu barik eukita.

Espetxea baiño lenago nire abade-lanean sarritan konturatu iiintzan jenteak parkamenaren sakramentua bide dala, Jaingoiko emikiteuagaz pakean ete baretasimean baketzea egiten ebala,

Espetxean egon nintzan denporak ez nebala izan sakramentu au artzeko aukerarik ezin neike esan, gau ta egun ainbeste autor-entzuleren artean egon nintzan ezkerro. Baifia gorputzez askatasunik ez eukiteak, egoera aren larritasunak berak, ito egiten eben sakramentuaren bidez baketzea bear izatearen kontzientzia.

Neure burua aztertu neban eta ez neban aurkitu, nire kristifiau-fedean eleizako ageak bota eragiteko besteko pekatu ain aundirik. Beste kristifiau askoren antzera sentidu neban sakramentuaren asaskatzeak emoten dauan baretasunau. Epaitu barik nik esana entzuten dauan entzumen laguntzaillea aurkitzea, neure kristifiau-zentzunean berba eginda egoan parkamenaren Jainkoa sentizea eta "Buru dan Kristo'gan" "in Kristo Kapite" berba ori entzutea zan billatu bear nebana.

Domeka baten Ea'ko artzain-lanaren ardurea artu-aurretik, neure kotxea artu eta Gasteiz'era joan nintzan an mezea enteun eta autoitza egiteko. Edozein parroki aukeratu neban. Gero jakin neban fraille batzuren ardurapean egoala.

Sartu nintzan eleizara eta atzeko aurki baten jesarri nintzan. Neure fedea argitzaille nebala aztertu neban neure barraa. Artega jarten asi nintzan. Zelan asi ez jakiteak eta leiatillaren beste aldean nor aurkituko neban ezjakiteakestutuegiten nindun.

Adin aundiko lekaide edo jfraille bat etorri zan autor-lekura Gogotsu urreratu nintzan bertara. Alboko aldean belauniko jarri nintzan. Nire lunbaljiak min aundia egingo eustan garria okertuta luzaro egotekotan.

Ona emen alkar-izketa ia itzez itz:

NIK: Agur Maria guztiz garbia.

AUTOR-ENTZULEAK: Orban barik sortua.

NIK: Beitu, ni abadea naz. Iru ^{^^mm^} dira autortu nintzala.

AUTOR-ENTZULEAK: zelan esara dozu?

NIK: Ainbat denpora dala autortzen ez nazela eta urteak dirala mezarik esan ez dodala altara baten eta Jainkoak gura dauan moduan. Egia esan, p[^]okiko ardurarik euki ez dodan lez, ez dot zomau egunero mezea esateko bearkizunik. Gaiñera eleiz-arduradunen aurrean oztasun aundia daukadala ikusten dot, eta arduradun orreik naikoa sarritan kritikatu dodazela be bai.

^ ^ _ ' !

Nire autortza osoa izatea eta neure burua dan lakoa agertzea nai neban. Azkenean makaltasunez agertu neutsan Zamora'ko espetxean egona nintzala.

Orduan konturatu nintean bere itxurazko baretasuna galdu ebala. Bere jesarlekuan eperdi biai eragin eutsen eta bere gorputza estutu egin zan. Errukiaren Jaungoikoa beragan Jaungoiko zuzen eta apentzaille biurtu zan. Aingem iltzaillearen e2patea berba egin zan beragan. Ni ondo konturatu nintzan bere abotea be beste bat zala eta abote orrek eragin euteon inguruko aizeari. Nire eranteunak sortii euteon egoerea ikusta, auxe esan neutsan: Jaungoikoaren aurrean ez nintzala iñoren eriotzearen emidun. Eta bere eranteunak geiago arritu niidun.

AUTOR-ENTZULEAK: Esan dozuzan gauza guztietan astunena eleizako arduradunen aurka agertea da. Ez dakit ba, askezpena emon bear dautzudan ala ez!

Segundo batzutan illunpean gerata nintean. Uste bako bere erantzunak, lotuta itzi nindun. Amasea artu-ondoren, apaltasunaz eta labur esan neutean: Ba,esan egiztazu. Ni ez naz etorri loterira jokatzera,askezpena dagokidan ala ez jakitera. Besterik ez dot nai zureteat ni nagon egooran zeure burua zuk ifioz ez ikustea baiiio. Ez jat gerateen besterik agur esatea baiño.

Eta Jaungoikoaren errukia neurtu egingo ba'leu lez, askezpen-anteeko bat emon eustan. Antza emoten eban parkatu bear ebana bera zala, ez Jaungoikoa ber-bera.

Askezpena emon eustan, eskeko batentzat ogia lurrera botaten dan anteera; la ba,ia ba, damutu zaite eta oben-neke lez iru agurtea, zazpi meza eta ogei kredo esan egizuz.

Jesus'ek irakatsi euskun otoite gozoa be eleizako zigor biurtu eban, nekez eskolan milla bider au idatei bear dauan umearen anteera:Ez dot barrero eskolan berbarik egingo.

Une onetan daukadan zalantea da im agurtea, zazpi meza eta ogei kredo ala ogei agurtea, ira meza eta zazpi kredo izan ziran. Letrea eta, oraingo onetan, zenbakia gitxienekoa da; espiritua da geien balio dauana.

Orri oneik irakurten dauzanak auxe jakitea nai neuke: "Zuzentasun^txe" aretatik urten nebala begietan negarra nebala, administrateaiUeak, errukiaren ete parkamenaren Aita danaren ordezkioak, zelan euki ete eikean ain bairu estua eta ain giza-berotasun urria.Antea emoten eban, bera zala errukiaren iturri eta ugazaba eta bere gustora banateen ebala.

Ain gitxi San Lukas'en ebanjelioan oifartiteen zan eta seme ondateaillearen Aitaren iradia ain gitxi agertzen eban erantzueara arek nire barraraifio sartu eta eradugarri ez dan zerbait agertzeko aukerea izan eban.Ondoren argi bat ateraneban: Nik artuko neban arteain-Ianean, alkarteko autortea bide dala, sinistedunak bakea ta baretasuna aurkitu bear dauz. Jaungoikoak bakoitxaren barma ikusten dau eta bere ordezkioak ez dau egin bear besterik, datorrenari eta Jaungoikoa Aita-en maitasun beroa gura dauanari, parkamena emon baifio

Nik itzaltasun aundi daukat banakako autortzara urreratzen danarentzat Baifta nire aolkua bakea lortzeko beste sakramentu-era batzuk eskifti bear doguzala da. Abadeak beti ez dau eukiten estu eta larri dagoan pekateriari kontzelua emoteko erea. Beti ez da urteten Jainkoaren graziaren "maf" dan leku orretatik pozik. Batzutan, niri jazo jatan lez, ul[^] kenduta lez eta zapalduta lez urteten da.

AUTOR-LEKUKO GOMUTAKIAK

Agertu dodan bizi-ikasi orrek, gure errietan eratzen genduzan garizumako autortzetaranaroa. Garizumea amaitukeran eta parroki osorako "Gogo jardunak" egin-ondoren, inguruko bost edo sei abadeak batzen gintzazan erri osoa batu eta nai dabenak autortu daitezcan. Abade bakoitzak bere autor-lekua eukan, bear ebanari Jainkoaren parkamena emonda fedea indmtzeko.

Orduan oiturea zan lez, egun baten egiten ziran andren autortzak eta beste egun baten gizonenak. Arratsaldean izaten zan andren ordua eta illuntzean gizonena Abadeak gitxi ba'giftan, iñoz berrogei edo berogeta amar autortza entzun bear izaten genduzan. Gogoratzeak be dardarea sortzen daust. Gizon sendoak eta persona onak izaten ziran autor-lekura urreratu baiño lenago "gogoa aJkolagaz sendotu" bear izaten ebenak, aurreko edatetxean ardaia artu eta euren bildurra alboratzen ebenak.. Gauzajakingarri lez auxe esan be[^] dot: Agurtzeko era lez, sorbalda joten ninduela eta ainbeste ziran lez, ainbeste agurtee artu ondoren, nire sorbalda-azur eroapentsua ikututa eta minduta geratzen zala.

Beti esaten gendun bakoitzak bere utsak esan dagizala, oiturea zan agurtu-ondoren au esatea: "Berorrek pregunte beisf". Eta, norberak, gogo onagaz eta nekatuta, aginduai jarraituz egiten ebazan itaunak eta berak " bai edo ez" esaten eban.

Nitzat alkartze areik ez ziran Jainko Aitagaz, jai-giroko ta pozezko alkartze zoriontsuak, Seme ondatzaillearen ipuin ederrak agertzen dauan lez. Autor-lekua ez zan b sterik parkamenaren billetea artzeko leiatilla batera urreratzea baifto

Jazokizun jakingarri lez, gizon batek egin eustan itaun bat daukat gogoan. Aurretik edatetxera joan eta berotuta etorren, bildura azpiratuta eta mifia nasai eukala.

"Jauna, lengo egun baten eztabaida bat euki gendun gizonen artean eta b[^]kal-ostean. Danetarik esan zan an. Egia da abadeak abade egin baiiio lenago kapau egiten dabezena?"

Nire erantzuna berez etorri jatan barre s[^]tsoa izan zan. Autor-lekua be dsffdaraka geratu zan. Barre-santsoa ain aundia izan zan ze, itxaroten egozanak, berez ezbear aundiren jazo ete zan alkarrari begiratu eutsen. Ez jatan gauza erreza izan gizon on areri azalpen egokia emotea. Bere aurpegia lotsatuta agertu zan eta nora-zean iki[^]ten zan bera. Uste eban "Milloirako itauna" egin ebala.

Gatx egi jatan askezpenaren berbak amaitzeaeta, beingo baten, sakristirajoan nintzan barrea nasai jarraitzeko, eta gero be ez zan izan gauza eireza ban[^]e ori alboratzea,

Orduan gure eleiztar batzuk eskandalizau egiten ziran sotanapean abadearen fraka-barrenak ikusten ba'ebazan .Gu gizon egindako aingeruak gifiala uste izaten

eben. Zorionez geienak ez eben zaintzen barruan errabakot[^]un aingeruzko ori..
Baifia bai, egon ba- egozan!

Orduan abadeak domeketan eguerdiko amabietan esan bear izaten gendun mezea eta meza bi esan bear ziranean, Gotzaindegiko baimena eskatu *h[^]m* izaten zan idatziz. Gaur sei naiz zazpi meza esaten doguz aste-azkenetan. Ori bai, meza osoa latinez esaten zan fededunai atzea emonda eta abadearen "ite missa es^f" izaten zan ezaugarri mezea amaitu zala jakiteko eta "Deo gratias" erantzuten eben.

Urte areitan zabal ebillen izua, notin baten errua zala-ta, sakamantekas esaten eutsoen eta edesti-arloan oifiarria eukan, baiña umeen iradimen arifiak kotxean etorten zan gizon bat zaJa uste eban. Umeak baitu egiten ebazan koipea kentzeko eta koipe ori sdtzeko. Zeozer egia zan, baifia gauzea mito biurtuta egoan.

Egin dau euria ordutik ona .Zelako sasoiak areek,Jauna!

Arlo au amaitzeko,beioa parkamenaren girokoa dan nire azterketea. Jesus'ek parkamena aitatgen dauan bakoitxean, jaiATEGAZ bateen dau ori. Nik Jainko Aitaren parkamena gozatu nai dodanean,egia difiot, Seme Galduarena eta beste parabola batzuk, sinisten dodan Jaungoiko Aitaren parkamen alaiaren gozotesuna txastatzen laguntzen dauste.

Seme txikiak,burua galdu ebanak[^] aitaren besoetara biurtu gura ebaneanjaia egiten da. Artzaiftak ardi galdua aurkitzen dauanean, lagunai deitu eta beragaz poztuten dira, drakma-dirua aurkitzen daunak ardurea, poz alkar-banatu biurtzen dau. Beste leku baten esanda dado daniutu bategaitik zeruan alaitasun aundiagoa dagoala.

Ez daukagu eskubiderik sakramentu au bildurragaz, loteeagaz,izerdiagaz, errezeloagaz, estutasunagaz, ardurakeriagaz, asarreag[^], epaikunde bategaz,epailari bategaz, zigorragaz, infemuagaz... alkartzeko.

Parkamena eskiñi euskunak beti aitatzen dau Jaia, alaitasuna. Dana agertu eban esaldi iabur eta errez baten: Zure pekatuak imrkatzen jatzuz. Zoaz bakean.

(PIES) EA.Talea ta Kaiarria ugartea.

EA.. BELETXE arrantzaleen etxea, errian uzaugarri dan etxea.

Erriko ikurdian be agertzen da.

Udaletxea.

EA. Tala'ko baseleizea.

Erriak asko maite dau

1985. EA'ko edurtzea

Nok difio itxas-ertzean ez dala edurrik izaten?

LORADI ETXEA,LAGUN-ETXEA da jabe.

Goian Zuzendari dan abadearen bizilekua.

Barrean ikastolea.

OGETA AMAIRU

EA: NIRE BIGARREN ARTZAIN-LANIZENDAPENA

Ea, aurreko izendapenean artu neban Mefiaka'ren anteekoa ^ da Ea'k itxas-zundea dauka, Kai txiki bat ontziz beterik. AirantKaleen ama daft erria, nudoak zer diran ondo dakiana,Terranoba'ren barriak dakizana, itxaso larria eta etxetik kanpoan izatea zer dan sentitzen dauana. Itxasoak bere ikutua dauka jentearen izakeran. pndo dakie itxasoaren barria, gurtu egiten dabe itxaso, bizia dakarren itx^oa eta sarritan, eriotzak dakazena. Olakoxea da ifecaso,aldakorra.

"Lagun EtxeaEgoitzeko"ko zaintzaille taZuzendari danaren etxean ^tu nebae ostatua. Apur bat luzatu egin jatan sartzea. Nire altzariak gitxi ziran. Egoitz orretako araudia irakurri nebanean jakiti nebsHi nik *m* eskubide osoafc neukazela

Aurreko parrokoak goizean urten eban bizi-leku onetatik eta ni, ondorengoa, arratsaldean sartu nintzan. Erriko gizon bi neukazan zain altzari^ aldatzen laguntzeko: Dionisio Bilbao eta Benito Abetxuko. Nik euren laguntzagaitik ezker ona agertu neuteen.

...EIA ASKOK EGIN EUSTEN LEKUA EUREN BIOTZEAN

Nire artzain-lanean, utsetik asten nintzan. Ba'nefcian asfo egozala nuri begira eta askotariko alkar-izketetan agertzen zala nire izena Guztiak ekiezan nire bizitzako zertzeladak. Ni eurentzat Aita Patxi nintean, eta gaiñera, onerako edo txarrerako, "Zamora'koen arteko baf'. Nire laiko-jazkiak eta nire adiñak aurreko eiiren abadearen itxurea ^ko aldatzen eban.

Neure barruan alkarren aurkako sentierak ebiltzan. Nire aurre-eritxiak ez eusten izten nasai agertzen. Jenteagaz berba egiten asi nintzanean astiro-astiro ikusi neban onartzailleak zirala eta neure gaifteko azal ori kendu neban.

Domekako mezan aurkeztu neban neure burua. Nire artzain-Ianerko gogoa osoa zala eta sakramentuak ospatzean nire burutasuna doantasunarena zala esan neutsen. Sakr[^]ientuen balioa Jaungoikoaren grazia da, ez dirua. "Graziab<Miatzearen amarrenak" kobrateea ez etorrela batera nire kristifiau-izaereagaz esan neban.

Ospakizuna amaitu-ondoren, bildur apur bategaz kaleratu nintzan. Ez neban iñor ezagutzen eta ezin neikean iñogaz be alkar-izketa zentzunezkorik euki. Gaspar Eguen urreratu zan ate-aurrera eta besotik oratu eta nasaitasun aundiaz, esan eustan biotzetik urteten dauan deia: "Zu gugaz giire txokora etorriko zara".

Ea'k bidera urten eustan. Gasp[^]en txokoa asteko oikune bat lez izan zan, neu be Ea'tar bat izateko bidea.

Ea erri oso alkartua da. Kaleetatik jente eldua dabil ugari taldeetan, txikito batzuk edaten dabez ete euren txokoetan abestiak abestu. Itxas-gazteen taldeak, opor-aldietetti edatetxerik-eciatxera ibiltzen ziran bein eta barrero, edatetxeetan eta txokoetan bakean, alkartasunean, eta ardauren neurriak baifto bizkortzen ez daun alkar-izketa bizian,; umeak aikarragaz eta bakean aundi egiten ikasten eben; aste azkenetako famiiak ziran; nire etxe-azpian egoan ik[^]tolatik etorten jatazan 30 umeren zarata-oteak.

EA erri bizia zan. Abadea biotz beroz artu eben. Nik ori zomatu neban beintzat Ondo artu iinduen talde guztietan eta nik txera on orreri, ne[^]ik nekian era bakarrean erantzun nautsan, eurai lagunduz kale ta edatetxeetan, euren izenak ikasteko ardurea erakutsiz eta apari naiz amaiketako batzutan euren artean egonez,

Jakin nebazan aitatu bear ez diran gaiak zeintzuk diran be: "Emen dana aitatu zeinke, parrokien arazoa izan ezik"

Jakin begi irakurleak Ea'nparrokibidagozela, batetik bestem 50m.'kobidea eto erri-erditik doan errekea bitartean dala.

NIGAITIK TXARRAIRAGARTEN EBEN PROFETAK

Niri buruz nire belarrietara eldu ziran iru esames geratu jatezan irarrita

1[^] Onek b[©] iaster itziko dau solanoa. Zamoia'ko espetxetik yrten liaben guztiak ltel dabe-te,

7[?] Abadeak ezln leitekez egon parroki baten bost urte baiño. Ez gaitez anegaz inaiteinindu.

3[^] Ez egiozue oneri Jaramon lari[^]girik egin. Au komunistea da.

(Ori balkoi batetik esan eben, ni azpitik niñoala andra-talde bat agurtu nebanean. Esaldiani ez negoala esan eben.

29 urte daroadaz Ea'n.Ei2; dabe asko igarri karta-botatzaille orreik! Eta persona on-onak dirala!

Beste au be jakin nebaii,Gizon bat eta andra bat etorten zirala mez»a salatzaileen elbumagaz.: Regimenaren aurkako ekintzaren bat aurkitiiko ete eben. Gaur adintsuak dira baifia oraindificio bizi dira. "Gizon txiki diktadore aundia" bizi zanean salakuntzak eginda bizi zan jentea ba-egoan.

Ea'n egindako lenengo urtean, aurrean baiño geiago izan ziran ildakoak. Urtero 10 izaten ba'ziran nik urte aretan 28 illeta zuzendu nituan. Baten batek maitasunesg eta irri barrez esaten eustan, orrenbeste illeta egotea serbitzua kobratzen ez nebalako zala.

Orrelantxe maitBSunez eta irri-barrez nik erantzuten neutsen, ezkonteak be ez nebazala kobratzen, baifia jente gitxi urreratzen zala ezkonlzero

ILBURUAN EGOAN DIKTAOURAREN AZKEN-OSTIKADAK

1973n. urteko 18n. egunean, neure bizi-lekutik jatsi nintzan mezeaesateko e^ieioegitiainebanlez. NiitMM-Jekuar^ia^ian *mmekdixm* auiMtuneban apurtuta neure begien aurrean. Lau txirrinkak zulatuta eukazan,alboak lerroz beterik, motor-zatiak kenduta ta zabaldua ingura guztian. Nire etxe-barrena margoztuta egoan Espafia'ko banderearen margoakaz. Ea osoa *agQñn* zan oso asarre eta nire kotxea apurtuta ikustera etorri zirm. Etfteztarrak dieitu eutsoen grua bateri, taller batera eroan eben eta egun batzuk barra, dana ondo konponduta ekarri eusten barriro. Ezin izan neban ordaindu apurketa ori konpontzea. Olsflcorik barriro jazo ez daiten, abadearen kotxea gabea kanpoan egon ez daiten kotxe-leku bat egitea ondo legokeJa erabagi eben. Iflork ez eukan zalantzarik sarraski ori nok egiña zm Gauza ziuerra zan eskoi-ertzeko indarrak zirala. Eta olakoafc orduan benemerita'ren bafmuan egozan. Nik be orretan ez neukan zalantzarik.

Ori jazo eta zortzigarren egunean telefonoz dei bat artu neban goizeko ordu bietan. Txarto egoan gaisoren bategana joateko izangp zala uste neban, ordu orreitan beti izaten dan iez.. Baiña ez. Nik,beti lez "Bai,esan" esan nebanean ariaren besl© aldean au esan eben:

Gu zure lagunak gara eta dei egiten dautzugu Lekeitio'ko lenengo bide-biurretlk. Kotxearen ezliar bat izan dogu ela Istripuaren ondorioz emen bat daukagu oso txarto.Zatoz mesedez.

Erdi-lotan artu neban telefonoa, baiña niri barruko bizigureak iñostan eskari orregaz ez fidatzeko. Ingurua ezagutzen neban, arrarik arra, eta esan neuteen biurre orretatik pausu batera bizi zirala Lekeitio'ko abadeak. Nortzuk ziran itaundu neutsen. Ez neban beste erantzunik artu, ebagiteak izten dauan tonua baifio.

Nortzuk ziran eta zer nai eben? Nik ez dakit. Baifia zunda batek diftost gabeko dei oker aretara joan ba'nintzan, ez nebala andik onez urtengo.

Urte aretako udan ekiftaldi bat egin gendun, Ea'n batzen ziran gazteak kontuan geunkazala. Borondatezko langilleak eskatu genduzan Ea'n dagon Tala'ko Andra Maria'ren baseleizea konpontzeko, baseleiza orretara jentetza aundiak joaten diralako. Antxiñatik dago baseleiza orretarako oneraspen aundia eta sinistedun asko urreratzen dira bertara.. Goi-leku baten egin eben itxasora begira. Konponteekeo bear ziran gaiak lepoan eroan bear ziran. Erri guztiaren laguntza eskatu, udaza! eena be bai, eta egiturea ondo barriztatzea lortu gendun. Abenduaren 8n. egunean, Sorkunde Garbiaren eguna, ospatu gendun pozez beterik barriztatze ori. Beste bein, au baieztatu neban: erriarena dan lan baterako, laguntza eskatzen danean jentetza gogoz eta esku zabalez erantzuten dauala.

Txikiteoan ibilteko oiturea nitzat bide bat izan zan jenteagaz artu-etnonetara sartzeko, baiña apurka-apurka izten joan nintzan, neure tamalez. Ezin neban ainbeste txikito oitura lez artzen jarraitu. Batzuk 40 edo 50 txikito edaten ebazan euren ibilbide luzean eta Ea guztian dagozen edatexe askotan. Irugarren txikitoa edan ezkeron, Patxi'ren burua irakiten asten zaii. Edatetxerik edatetxera ibilte ori itxasgizonak egiten eben, opor-aldian egozanean

2000n. urterako txikitozale areitako asko Aitaren Etxera joanda dagoz. Beste batzuk lengo alkool-larregikeriaren ondorenak orain artzen dabez, Nik sasoiz atzeratu nintzala uste dot.

OGETA AMALAU PARROKI BIEN AMETS UTSA

Parroki bien arazoa ez aitatzeko esan eusten asikeratik, baiña nik buruan neroian biraka arazo ori. Urtenbide errazoizko bat emon gura neutsan eta orretarako Gemika'ko Gotzain-Ordezkariaz berisa egin neban gai orreri buruz. Bion artean astiro aztertu gendun arazoa, egokia ez zan egoera on-etan zer alde eta zer aurka egoan ikusteko. Gogorik onenagaz auxe erabagi gendun: Domeka baten Ordezkarria bera etorri daitela eta erriaren aurrean agertu dagiaia urtenbidea izan leitekena. Orretarako eirazoi-bide guztiak agertuz. Ordezkarria eleizatik urten ebanean ban-u bizikoak ziranen aldetik era guztietako iraiñak entzun bear izan ebazan.

Batzorde batzuk Gotzaindegira be joan ziran ezer aldatu ez daiten eskaria egitenko Gotzaindegitik erantzun euskuen erriak eieiza biak austrera jarraitzea nai ba'eli^n, erabagi ori onartu egin bear zala. Berbaz bake-aldi batera eldu ziran ezkerok, abadeak ez eukan ezer esatekorik, maletak gertatzeko erabagi artzea izan ezlk.

Baten baiño geiagotan barrizatu bear izan doguz elei:^ biak eta eleiztarrak esku zabalez emoten dabe laguntea gauzak bandin jarraitzekotan. Den|K)reak ekaneriko dau urtenbide zurren bat. Efeizbamjiko abadeen unitasunak elel2m begiratu-^ziña dakairenean, gaurico egoera larri asko blderatu egingo dlra "artzain-fanaren eriotza agiria" izenpetuko dalako.

Orri onelk idazten nagoanean nik jubilatzeke adina igarota daukat. ^ a d e izateak ez dauskuz beste batzui baiño Indar aundiagoak emoten. Artzain-lanak eskatzen daualako aurrera goaz lanean, pulpituaren lan-lekuaren banBnean, baiña ez litzake gauza ohea izango gu lenago jubilatzea?

EA'KO OITUREN MARGOZKIAiC

Aldi aretan eta erri onetan erria zati bl eginda egoan, erriko papel-lantegiak jan-aitu bear eban ala ez kontuan ebela. Alde egozanak iñoena mn lan-tokiak emoten ebazala eta aurka egozanak iftoen andik urteten eben ur-loiak errekea eta ondartza zikindu egiten ebezaSa eta, gaiñera atza botaten ebaia erri guztira. Papel-iantegia zala-ta aurkakeri asko sortu zan enian. Baiña arazoak berez aurkitu eban urtenbidea, lanaren larri-une baten zairatu zanean," Txakun-a ii ezkerok.bere amorrua be ilten da".

72-73n. ikasturtean ikastolea sortu zan Ea'n, Loradi etxean, Lagun-Etxea 'ren geletan aurrera bidea astekotan. Bazkideak lagundute, Gabonetako loteria aterata, edetebceetan itsu-lapikoak ipiñita, eta guztien gogo onagaz, ikastoiea eidu zan 30-33 umeri irakastera.

1983n. urtera arte iraun eban eta urte onetan umeak erriko eskoletara joan ziran. Gaur utsik dago eta batzuten erabilten da batzarrak egiteko edo katekesi-ekiñaldietarako.

EUSKERA TA EDEREA

Ea'ra eldu nintzsinean arrituta geratu niintzan egunero alkar-izketetan erdereza zabal ebillalako. Itxas-gizonak itxasoan erdereza erabilten dabe eta tik orrek jarraitzen dautse errian dagozen denporan. Bardin jazoten da udea igaroteko ona etorten diranakaz. Batzuk beste batzui nastau egiten dautsee eta, azkenean, guztiak erabilten dabe amagandik ikasi ez eben izkuntm. Ia ogeta amar urte igaro dira, eta bardin jarraitzen doguia uste dot Eta ez daust baiio, beti dagoala euskera ez dakien baten bat, esateak. Une baten ori jazoten danean ondo dator elebitasuna, baiña egoera ori betirako onartzeari okerkeria deritxat. Salbuespen batzuk alde batera itzita, guztiok gara euskaldunak, abertzaleak, eta maite dogu gure euskera. Tamalgarria da eguneroko bizitzan gaztelera erabiltea zabaltzen joatea.

Emengo nire egotaldi luzearen asieran, nire mezako berbaldiak euskera utrsean ziran. Arratsaldie baten etorri jatazan udazaleen talde batekoak eta txera onez esan eusten:

Aita Ptxi, esan egizuz berba batzuk gazteleraz be, mezara etorten garan Burgos'ko ezpata-dantzarietzat.

Txeratsu eta maitekiro etorri ziralako eskaria egitera, lortu eben ordutik aurrera elebitasuna nik erabiltea ospakizunetan. Eta guztiok pcsik eta batera.

ERTZEKO ESKUINDARREN ZUZIA BARRIRO ERASOTEN

Egun areitan nire lagunak ziran abade biri kotxea erre eutsen etei euretariko bateri etxea be bai. !ges egin bear izan eban bizirik urtengo ba'eban.

Ez dago esan-bearrik "Batallon Vasco Español"ekoak eta "'GueniHeros de Cristo rey"koak zirala, baiña Benemeria Erakundeak ondo babestu ete adoretuta.

Erri onetako iru neska baitu eta espetxeratu ebezan.

1975N. URTEAN ITXAROTEN ETA LARRI

Ea'ko plazan bertan Txangurru edatetxea tirokatu eben iraillaren 2n. egunean. Apurtuta geratu zan eta ez zan iñor il, Jaungoikoa aundia dalako.

Guardi zibiffak nasai-nasai eblitzazan edozein ordu naiz tokitan. Erriak, barriro be, alkar-laguntzagaz ekonomi-arloan esku zabalagaz erantzun eban.

Irauilaren 13n. egunean.gabaz, beste tiroketa bat entzun zan Ea'ko kafeetan. Bildurra egoan. Egun orreik ezkerro, ni bizi nazan bakarfekuko etxean, bafkoiari lotuta soka bat egoten zan, estu-aidi baten iges egiteko aukerea emongo ebaiakoan. Orrelan egon zan bost urtean. Bakarrik bizi izan ezkerro, bildurra ta zurtasuna berezko gauzak dira. Gaiñera, egun areetan edozein gau2^ itxaron zeitekean

(PIES) "NIRE KATEDRALA"

Bizkaitarra dan santuaren izenagaz, San Mames.

Orbte "ospatzen dodaz" millak euskaldunakaz

gure leoi ulukañen garaitzak.

Kolore guztien artean nitzat politenak

Oneixek dira

Gure leoiak ariketak egiten dabiftz or

Garaipena lortzeko.

PARROKI BI EA'N

JAUN-GURTZAN SENIDE LEZ

NORGEIAGOKA.

Jesus'en Andra Mari eta

Joan bateatzaille deuna

Argia enrekearen gaiñeko zubia

Erriaren zubipe onetatik ezin dira sartu txaiupak

Uraren bidea egokiro ez dagoaiako.

OGETAAMABOST

/

1975n.URTEKO ZEMENDIAREN 20N. EGUNA. UDABARRIK GIROKO UDAGOIENA.BERE ERIOTZEA DALA-TAIZAN DIRAN ERANTZUN BATZUK.

1975n. urteko zemendiaren 20n. egunean, itxaroten zan barri aundia emon eban erdi itotako Arias Nabarro'ren abotsak: "Gizon txikia baiña diktadore aundia" ii da

Jaungoikoaren graziz Lur, itxaso eta Aideko Gudarosteen buru izendatua izan zan. Bere bizitza-idazleak "Jaungoikoak biadutako gizona zaia" esan ebena bera. Gure eleiz-arduradunik geienen aldetik oteun-zempean auriceztua izan ^ n a axe. Gazteak ez dakie zelako omena dan "zeru" on-en azpian artua izatea.Zeru orren azpian eroaten da Osti Santua edo Santisimua Korpus egunean eta beste jai berelzi batzutan ellezpldea egiten danean. Erioteirako epaiak izenpetzen agur egin eban a, onrelan omendua izan zan bizitzan.

Samaintasunez beterik esana zan Arias Nabarro'ren abotsak irri-bariBa sortu eban ikusle askorengan. Berak zotinka ta negar zizpumz agertu euskun, askok gurari biziz entzun nai genduna.:

ESPAÑATARROKI FRANCO IL DAI

Ni irratien artean saltoka biiia asi nintzan eta euretariko baten andra batek txilibutu-antzeko abotsaz entzuleai olako itzaldia egiten euskun:

"Españatarrok! Gure aberriaren salbatzaillea il da. Judatar, masoi.materilista eta separatista alkartuen alkar-lanak ekarri dautson nekeak il dau. Gu españatarrok katollkuak, apostollkuak eta enomatan-ak gara eta geu ^induko gaituan Jesus'en Biotz Sagraduan daukagu geure uste ona.

Eta azkenean au esan eban: Gora Español... Eta eskerrak esan ez ebana: "Bizi bedi Frana)"....ori esan ba'leu gauza ikaragarria izango zan.

Beste irrati baten, olakoen aurkako abestiak entzuten ziran. Erri-abesti baten leloa zan: "Ez dauskue eragiñik egingo. Ez dauskue eragiñik egingo..."

Billa jarraitu neban eta ona emen biotza eta biriak lasaitu eustazan eta barretxua sortu-azo eustan abesti bat: Abots-talde batek "Agur jaunak, agur terdi" abestu eban. Eta Lagun Ebcean bakairik koru on-egaz bat egin neban. "Ze ondo abesten dogun koruak eta nik orainbce asten dogun umezurtz-aldla".

BEDARONA NIRE ARTZAIN-LANERAKO BEGIEN AURREAN

1976n. urtean ii zan Luis Andonegi jauna, Bedarona'ko parrokoa.. Persona ona bera.. Bere ama bizi zala. ederto ibilii zan. Baiña ama ii jakonean, bakarladeak menperatu eban. Bere bakarlekuan atxakitsu eta nora-ezean.^gobeitasun utsez" il zan.

Gotzaindegitik parrokl onen ardurea artzeko aukerea eskiñi eusten eta artu egin neban. Jente baketsua eta biotz onekoa dlra. Gogoan daukat urtero diru-batze bi egiten ebezala abadeak Joan-etorrian eukazan gastueterako. Esker onez entzun neban eskintza ori baiña ez neban onartu olako saririk.

Bedarona erri bat da, baseniz eta landaz beterik eta itxasoaren gaiñe-gaiñean dagoan enri bat. Parrokiko eskudeletk begiratu dot iretargi betea daukan gau baten edertasuna. itxasoko uren gaiñean dizdiza ikusten daia. Egunez itxasoaren urdintasunak aupadea egiten dautso zeruarenari eta landetako oriegia begira dago enbidi onez itxaso ta zeruaren norgeiagolari.

Ango baserriak utsik geratz^n doaz. Jente eidua ba-Joaku eia gazteengan beti ezkongez izateko jokera dago.

Bedarona'n nire artzain-iana asi neban egunetan, guardi zibillen furgoiaren aurka izan zan erasoak ikaratu ginduzan. Talde orretakoak ziran bost il ziran Bedarona ta Izpazter'en artean doan bide zabaiaren biurre baten. Ekinfea basati ori sortzeko giitzari emon eutson gaztea zatituta geratu zan eta, al eban moduan iges egin eban Natxitu'ko baserri baterantz. Anixe baitu eben eta gero espetxeratu.Zer esan jazokizun onreri buruz? Beneten, ez dago barbarik!

1981n. URTEKO ZEZEILLAREN 23N.EGUNEKO MATXINADA

^ratsaldea zan. Kotxean niñoiñan neure etxerantz. Beti iez, inratia biztu neban eta entzun neban militarren eresak anrtuta itzi nindun. Aldatu neban irratia aspertuta eta guztiak eres-tankera bera eresten ebela kontura nintzan. Uste izan neban nire irratl-gailluak aberia eukala. Eldu nintzan elxera eta telebista biztu neban. Ikus-tokian kartei au egoan geldi:" Aldunen Bab^r-Lekuan, matxinada sortu da.Madrid." Apurka-apurka gauzea zeaztuten joan ziran argiegi barik zer jazoten zan agertzeko. Gaba egin eustan, baiña, nekeak men^ratuta eta kirioak zorrotz nebazela, ezin izan nintzan lotara joan. Telebista biztu neban, Laterriko irratia ipiñl eta, transistor txikiak be etxe bamian ba-daukada^n lez, bakoitza emisora baten ipiñi neban. Ez neban ezer be gaffzerik nai.barririk t)dkienik be ez.

Adiskide batzui deitu neutsen telefonoz. Batzuk iges egin etela Jakin neban, gudarosteak kontrol bako ekintzaren bat egingo ete eban bildurrez. Gomutamenera sartuta geratu dira errian, Armada eta Tejero'k Aidunen Bat^r-Tokian bota ebezan irain areik, guztlontzat mingarriak:"Guztiok

lurreral.Jesani.koño! Gobernu bat ipiñiko da, militarrena izan be. Olakoak entzunda ez da arritzekoa batzuk euren bizia galtzeko bildunB artzea.

Bakarrik bizi nintzan lez, neuk be ez neban alboratu olako bildurra. Erriko adiskide batek bere etxera joateko deitu eustan. Neure esker ona agertu neutson. Nok jakin zer egingo eben eskuan pistolak eta metralletan eukezan eta euren burua fanatismuz beterik euken eta eurak lez pentsatzen ez eben guztiai sabeia ebagiteko eskubidea eukela uste eben areik?

Egunen joanean erriko gogoak baretuten joan ziran, baiña egia zan "Valfe de los Cafdos" edo "Gudan ildakoen Ibarrean" egoan aren geritza luzea agiri zala alkar-izketa guztietan.

NIRE OSASUNA MAKAL

Egun orreitan asi *zan* nire osasuna makaiafdia agertzen. Guntzurruneko koiiko aundi batek, gabeko bakartadean, taxi bateri deitzera beartu nindun.

Miñez biurtuta, lortu neban Gimón'en klinikara eltzea. An egin neban aste osoa, medikuen azterketak egiten

EGUN AREITAKO ALBISTEAK EA'N

Ea'ko idazkaria :^n 49 urteko Manuei Gonzalez il zan atentadu baten,1984n. urteko bagillaren 18n. egunean, Lekeitio'tik kotxean bidez joiala.

Urte beratan, uztailean, EA'ko ondartzan lurra jo eban PITITA txaiupa ospetsuak.Tabako kartoiz beterik etorren eta , antza dagoanez, kontrabando geigo be bai. Bertako itsaskariak iges eglñ eben errasturik itzi barik. Guardi zibillak etoiri baiño lenago erriko jenteak artu eban ontzian egoana, batu-zaleak ziralako, t^lio aundikoa *mn* artu ebena.

1985n. urteko urterillaren erdi-inguruan Ea enria bost egunean iñogaz lurrez artu-«monik barik egon zan bost egunean edurtza aundi bat i^ñ zalako.

Zezeillaren 19n.egunean Oiz-mendiaren gaiñera jausi zan bidailariak eroiazan egazkin bat. 148 izan zjran illak.

Bagillaren 30n. egunean il zan ain malte neban Juan nire koñatua.Zamora'ko espetxean nengoanean ainbeste lagundu eustan ezelako baldintza barik.

OGETAAMASEI

KARTA ARRIGARRIA: 1988

Zemendian karta bat artu neban uzenbide onegaz: D.Frantzisko Bilbao jau \. itzalgarrari.Ea'ko parrokoa. Idegi neban. Izkia ezaguna jatan. Kartearen izenpea begiratu neban baiila irakurri eziñekoa zan: Paskasio Etxezarraga^Meialra'n nire lenengo artzain-lan lekuan parroko izan nebana. Amasa barik geratu nintzan. Aizea barrua euki neban irakurri neban denpora guztian. Bere berba bakoitxak, bere esaldi bakoitxak illunlBSuna isuriten eban.Kurutzeko Kristo aitutzen daust, bembe bizitzearen azkenerantza eltzen egoala, Meñaka'ko illerrian lurperatu genduan nire ama gogoratzen daust eta oneri eskatzen dautso bion alde otoitz egin dagiala. Bakea eta nire aurka egindako erruen parkamena eskatzen daust. Eta ^e n e a n nire ontasunean eta parkateeko esku zabaitasunean daukala uste ona autortzen dau.

Kartea jarraian amar-bat bider irakurri neban. Nire begiak ezotu egin ziran. Nire biotza gose zan, parkeske ta zuriketen gose. Hamalau urte igaro dira ordutik eta, gaur be, orri oneik idatzikeran etas mai-gaiñean bere kartea ikusten dodanean berotasun bardifia datort burura eta ni begiak bariro ezotuten dira. Sentikor eta biguna naz eta edozein eragiftek berotu egiten nau.01akoxea naz.

Artu neban zurareak azpiratuta eta inguratuta, korreoaren bueltarako erantzuna emon neutsan. Alboan doaz karta biak argazkiz aldatuta. Irakurle bakoitxak ulertu beiz ondoen deritxon lez.

Egia esan gura dot. Parroko aren ekintzm buruz idatzi dodan dana, neure izaereari bultz eginda idatzi dot. Baiña gauza ziurra da da esaten dodana egia dala.

Bere kartea artuta eta nire erantzuna,berezkoa eta erretolika aundi bakoa agertu ondoren, beste au esan bear dot:Persona au nire gomutamenetik aiztuten alegiña egin dodala. Berak sasoiz arazoa aztertzenjakin dau, azken-ordua baiño lenago,egia da. Baiña egia da, baita, bere jokabide okerrak eta zuzenkerizkoak izan dauzen ondorenak gogor be gogor ordatndu bear izan dodazela.

MEÑAKA, 1988'ko zemendlaren 8'an.

Frantzisko Bilbao jaun agyrgarriarl

Kristo kurutzeratuan ain maite zaitudana:

Apaltasun osoagaz idazteia noatzu, neure biziltzaren azkenengo egunetan nagoalako. Min aundiak eta asko mIndu nabena daukadaz. Gibela, urdailia geldituta, bizkar-azurrean mInak, eskoiko besoan erpesa; Kurulzetan eskane'era sartuko nabe, ortik Ikusten dozu zelan egongo nazen.

Atzo mezea esan neban Meñaka'ko Illerrian eta era berezin gomutatu neban zum ama izan zan Eusebla, Jaungoikoaren aun^an erregutu eta lortu dagian bakeak egiteko efei zugaz Izan dodazen erruakaitik parkamena ^katzeko grazia iortu dagistan, eta gaur Kristo kurutzeluamn oiñetan bakea eta parkamena eskatzen dodaz nire erruak biotz osoz i^rkatu dagistazuzan.

Zuk ulerteiko dozu nire gogo^goerea, D.Franzisko, zurl bein eta mlila blder pailcamena eskatzeko-

D.Franzisko, zure ontasunean daukat neure uste ona eta zuk emongo daustazu, Jaungoikoak ordaindu dautzun parkamen blotz-zabala.

Kristo kurutzeratuagan ain maite zaituan zure

PASKASIO ETXEZARRAGA

Ea, 88-11-1S

Adiskide maitatua:

Artu neban zure erru guztien i^rkamena eskatzeko dan zure karteia.

Karta au, edo antzeko zeozer, orain diraia 19 urte *arhi* nai izango neban.

Baiña karta au barik be nire aldetik f^rkatufa zengozan, zeu eta gorputzez efa gozoz min asko egin eusten beste Meñakar batzuk, neu be bitan Deustu'ko San Sebastlan Klininan bitan "sakaner" etik pasau naz-efa. Dana dala, bestek ez dabe euki zuk eukl dozun eragin au.

Parkatu ez ba'neutzuen, nlk ezin esan al izango neba "*Gum Aitei*" eta ez altarara urreratu be.

Orregaitik, nire aldetik, oso-osoan askatuta eta parkatuta geratzen zara.

Zure nekeak ariñak izan daitezcan nire gurariaz, nim alde be nolzean bein esklñi dagluzala eskatzen dautzut, guztlok gagoz bear-izanean-eta.

Geiago barik, agurtzen eta pargatzen dautzu

Zure adiskide PATXI' K

«ARNASAKO ALKALOSIS ESTRESS EGOERAN' '»

Esaldi onek illun-antza dauka. Ez, ez da illuna. 1989n. urteko abenduaren 14n. egun inguman ia Euskadi osoan izan ziran aize zakarrak eta oneik ekairi ebzan suteak. Giro askotan esaten zan sute onek baten batek oziotuak zirala, errazoi illunen batzuk eraginda.

EA, alde guztietatik mendi aundiak inguratuta, su aundien artean auridtu zan eta su onek burura ekarri eben itxasoz estualdiko urteerea egitea.

Egoera orren era berezian ikutii nindun neu nintealako 17 agiirek eta 4 lekaimek beten daben Egoitzeko arduraduna Denpora asko ez dala ezarri gendun gas.leku bat nire etxetik eta egoitzetik urrean.

Aize bolar^ kometa antzera, gas-leku orren gaiñetik igaroten ziran eta gabz arrisku ikusten genduanoi zirrara aundia egiten euskun.

Olakoa gaieta ni ezjakifta nintzan eta erri guztiarentzat ondamendia izango litzkean lerketa baten bildurra neulmn. Itxas-gizon batzuk,olako gauzeta ^ko ekienak, baretu ninduen.

Ordu areitako urduritasunak nire gogo ta gosputzean euren ikutua egin eben. Gau bate, ikara-aldia igarita gero, ogetik jagi nintzan arsarik artu-eziñik eta arduragarria zan ito bategaz. Nire bakartadean, arin-bearreko osagilleari deitu neutsan eta Lekeitio'tik etorteko ordu-erdi bear izan eban. Anbulantzi baten eroan ninduen **GALDAKAO'KO GAISO-ETXERA ETA ARIN.BERREKO BIDEAK ARTUTA BEGIRATU EUSTEN.** Ordu batzuk aztertzen egin ondoren,esandako esaldiaz emon eusten ondorena:"Amasako alkalosfe estress'en egoeran".

(PIES) Kuba'ko nire osaba-izekoak: Mertxe ta Zakarias.

Euren Ostatu aundiko baratza,Fidel Kastro'k mapatik kendu ebana.

Or dagozan loren azpian geratu da betiko

Nik oripenetan gogoratu dodan altxorra lurperatuta-

OGETA ZAZPI

ERREFEHENDUM TXIKI BAT

Erri baten urte batzuk daroazunean, zeure buruari itaun batzuk egiten dautsazuz zure artzain-lanari begira eta zeuk zelako onartzea daukazun jakin gura izaten dozu. Nazaret'eko Jesus'en antzekoa izaten larregi ausartu barik, nigan be sortu zan itaun au egiteko guraria: Niri buruz jenteak zer diño? Itaunketa labur be idatzi eta famili guztietara bialdu neban, Ea'n eta Bedarona'n. Bi edo iru ilauneri eiBnteuteko eskatzen neutsen. Euren eritxia izen bakoa eta egizkoa izan daitela, Errezt^unez eta ia guztiak batera zirala artu nebazan erantzunak sendogarri izan jatezan, artzain lanerako eta neure bizitzan neure buraa maitatzeko.

GOTZAIÑAGii^ BATZARRA

Oker ez ba'nago,1990n. urtean Juan Maria Uriarte'k esan eustan nigaz alkar-izketea pozik egingo leukela. Ara joan nintzan,bere idaz-gelara. Ordu ta erdian luze ta zabal berba egin gendun. Artxanda'ko jatetxe batera dei egin eusten bazkaltzeko. An be alkar-izketeak jarraitu egin eban gai guztiak ikutuz. Juan MariaUriarte'k abade onen edestia dana entzun ebat; zuk, irakurle, onaiflo irakurten jarraitzeko eroapena euki dozulako, dakizun lez jakin eban.

Gotzaiñak ba-ekiala entzuten ikusi neban. Nire berba egizkoak artzen ba-ekirfa be bai. Zamom'ko espetxean egon gifiañ abadeai buruz eleiz-arduradunak euken egoerea dala-ta, neuk uste nebana esatea erabagi neban. Dana batera,baifia egiaz, esan entsan,

Neure inpresiñoa zala Gotzaiñal atsegln izango leticikioeia ^mora'ko espetxean egozan abade guztiak sekuiarizatzea.

Erantzuna barretxu bat izan zan, gogo onezkoa i^te dot, eta dana ifioana edo bear ba'da ezer be esan gura ez ebana. Ez eban ezetzik esan,baietzik be ez. Alkar-izketara deitu daustalako eskerrak emon neutsazan. Juan Maria ez da, benetan, eguneroko diru-txaponen antzekoa eta nigaz alkar-ikustea izateko gogoak ori adierazten daust

KUBA'KO NIRE OSABA-IZEKOAK

Edesti onen lenengo orrialdeetan aitatii dodaz Kuba'ko nire osaba-izeko oneik. An azaldu neban, baita, Larrauri'n bizi giñan Txalet-Baratzaren jabeak prestau zirala eleiz-ikasketako nire gastuetan laguntzeko. Jaun onen eskintza esku-zabalaren barria euki ebenean Kuba'ko nire osaba-izekoak aurreratu egin zimm eta nire ikasketak ordaintzeko guraria agertu eben. Nire aukeraketak asko poztu eban gaisorik egoaa nire aita eta auxe azaldu eustan:"Nik naiago neuke laguntzen dautzuenak osaba-izekoak izatea, Jaun onein dirua artzen ba'dozu, euren menpeko izan.bearra euki ez dagizun.Morroizatekotan naikoa da gaur arte daukagun morroitza." Nire aita argia eta zentzun onekoa zan!

Kuba'ko iñre osaba-izekoen izenak Zakarias eta Mertxe ziran. Gaztetan joan ziran Kuba'ra eta an, ostatu-lanean sendo lan egin eben. Ez euken seme-alabarik. Urteen joanean eta lan asko eginda, berrogei ta amar urte eroiezan Kuban, Kuba'ko Las Villas erkian, Zurueta'n dagoan Europa Ostatuaren jabe izatera eldu ziran. Ostatu aundiaren ondoan jatetxe bat be idegi eben eta ostatuaren inguruan egoan baiatz bat be euren zana.

Laguntza emoten eutsen inguruko familiakaz alkar-lana eginda, inguruko guztien maitasuna lortu eben eta onein seme-alaba askoren aitabitxi-amabitxiak ziran.

Nik ez nebazffli ezagutzen argazkietan ikusita baiño. Nire meza-barrirako dei egin neutsen, egokien lez aita. amabitxiak izateko. 1959n. urte ingurua zan eta Kuba'n esamesak iñoan matxinada aundi bat sortuko zala Batista'ren agintaritzaren auika. Ziurtasunik ez izate ori bide zala, ez etortea erabagi eben, nire meza-banian ez egotea. Urte bi geroago etorri ziran eta Gemika'ko ostatu baten jarri ziran bizi izaten. Antxe alkar ezagutu gendun. Urte asko eta lan asko lepoan eukela, euren eukiak saldu eta Euskadi'ra etorteko guraria agertu eben.

Kuba'm joan ziran bamro. Biak ilburukoa egin eben eta ni geratu nintzan euren ondorengo bakar lez. Orixe agertzen da nire esku dagozan agirietan.

Egun baten Mertxe izekoaren karta bat artu neban. Laburra. Zakarias osabea il da. Il egin dabe, Egun batzuk geroago izekoak eskutitz baten bialdu eustan azalpena "Zakarias zure osabea ostatuaren aurrean jesarrita izparringia irakurten egoala, erdi mozkortuta egozan gaizto-talde batek, fiirgoneta baten eta kastrotarren eragiflari dagokiozan jazkiakaz, bide-ertzean aurkitu eben dana zapuztu eben. Alteariak eta bizitzak aidean joan ziran euren zizpen eragiflaz."

Onrelan il eben nire osabea. Gizon baketsua, bere bizitea osoan lan egitearen errua baiño besterik ez eukana eta bere irurogeta amar urteakaz besle gurarik ez eukana, jaio zan lurraldean atsedena artzea baiño.

Nire osabearen erailketari Fidel'en gobemuak emon eutson azalpenak ez iñoan besterik, asko sentitzen ebela eta Iraulketak sarritan olako larkeriak ekarten dauzda eta mozkortu ^eik zigortuak izango zirala.

Nire izekoa biozkatuta geratu zan, bakarrik eta Kuba'n. Sarritan idazten eustmi bera samintasuna baretu eta barruko larria azaltzeko. Geiago ezin eikean esan, bere kartak etanireak idegiak eta zentsuratuak izaten ziralako.

Ona etorteko guraria agertu eustan, baiña baten batek etortearen gastuak ordaindu bearko ebazan. Laster joan nintzan Madird'eko Enbaxadara eta an esan eusten zer egin bear neban. Arazoak bideratu nebazenean, nire arrebea ta biok aireportum joan giflan bera artzen. Egazkifletik jatsi zan, bere irurogeta amasei urteakaz, bakarrik, eta begirakunean, barruan eukan b^artasuna ta bildurra agertzen ebazala. Bkusi ginduzanean aundia izan zan bere poza eta jausita, negar egin eban bere begiak itzi

eutsoen bestean.. Apur bat baretu zanean, bere maletak non egozan itaundu geuntsan. Negar-zotiften artean jakin gendun Kuba'n egazkin-zelaira sartu zanean, eskiiko boltzea kendu eiiitsoela eta zapatak be kendu eta ordez zapatilla batzuk emon eutsoezala. Ez eukan ezer bererik bere duintasuna kenduta barruan batu eba^z negarrak kenlzeko zapi bat baifio.

Al gendunik ondoen begiratu geuntsan. Laguntza batzuk eskatu nebazan eleiz-mailla batzuffli eta abadeai laguntzeko dan Gotzaindegiko ordezkariag^a be joan nintzMi. Emen arduraduna Jose Luis Urrutia zala uste dot. Nire izekoaren egoerea ulertu eban eta illero 3000 pezeta emoten eutsoezan. Lau urte egin ebazan izekoak neure ardurapean eta azkenean bere azkenengo urteak igaroteko Asturias'eko Panes-Siejo'n bizi zar[^] illoba baten etxera joan zan. Antxe *il* zan.

Emen egon zan artean, Fidel Kastro'ren aurka bere biotz apurtuak eukan gorrotoa bein eta barriro agertzen eustan. Enbaxada'ren bidez ekarri al *izm* ebatu bere ilburukoa edo azken.naia emon eustan eta neure esku dago.lño^z al ba'neban Kuba'ra joateko eskatu eustan. Esan eustan gaiiiera, etorri baifio lenago baratzean lurperatu ebazala ostatuan eukazan balioko mai-tretxuak, ddlar pillo bat eta bereak ziiian eta ainbat balio euken beste gauza batzuk.

Asturias'en il zan. Ordutik urte asko igaro ziran. Ea'n bizi nintzanean etorri jatazan Kuba'tik ainbat karta nire osaba-izekoen lagunetak. Mertxe'ren bizitzeari buruz zerbait jaitea nai eben, eurentzat persona oso maitatua zalako. 11 zala jakin ebenean, tristetu egin ziran eta illeta bat ospatu eben, isillean, Kuba'n eta adiskide asko joan jakezan illeta orretara.

OGETA AMAZORTZII

FIDEL KASTRO'REN KUBA'RA: 1993

1993iLurteko udabarrian Kuba'ko sendi baten karta bat artu neban. Nire osaba-izekoakaz artu-emon aundia euki eben. Erdi-ulertu-zifiekiko eran euren ustez berbaz baipto ezui azaldu leikezan gauzak esaten eustezan. Ni ezagutzea nai eben eta Kuba'ra ikustaldi bat egiteko bidea eskintzen eusten. Pentsau be ezin leiken gauzea zan eurak onantza etortea,

Adiskide on batzukaz berba egin neban eta Kuba'ra joateko adorea emoten eusten. Osaba-izekoen ondorengo nagusia nintzan ezkerro, joan bear nebala iñosten. Arazo ori ardur^ik artu barik iztea zurtasunik-ez aundia ei litzake. Joaten ez ba'nintzan bizitza guztirako kezka geratuko nintzan arein azken-naia bete barik itzi nebalako.

Foronda'tik urten gintzazan, egazkiña bete-beterik genduaia, Charter tankerako bidai baten. Amaika orduko osterea izango zan, Azores ugautetan egazkiiaren erragaia artzeko geldi-alditxu bat eginda. Nire jesarleku-alboan "Kuba'ko abenturak billatzen ebazan" gazte bat jesarri zan. Whisky botilla bat edan eban eruntzi-aldi gitxitan; gero alkoolaren lo-zorroan sartu zan eta ez zan itxartu txixa egiteko bear ebalako bai. Akool-loa ain sakona zan ze, ez zan itxartu Kuba'ra eldu giñanean be. Osakideak begiratu bear izan eutsoen egazkiñean bakarrik geratu ez zeiten.

Goizeko iruretan, bero itogarri bategaz autobus zar batera igon neban. Bus onetan aizearen egokifta apurtuta egoan. Ura jausten zan tramankulu orretatik, astiro-astiro, jesarlekuen gaiftera, Iru ordu bear izan genduzan 150 km.'ko bidea egiteko eta Habana-bamian egoan Habana Libre Ostatu Nagusira eltzeko. Gidaria kubatarra zan, feniziar-tankerako, eta geldialdi bi egin ebazan txosna bitan. Guk ibiltariok egarria kentzeko edari ozkirri bat edango gendun edo, bear ba'da, "mojito" bat eta eurentzat izango ziran dolar ozkirrituak.

IBEROTOURS Ajentziak artutako Ostatu Nagusia zan, Kastro'tarreo lagunena eta aginpide orregaz lotua. Antxe artu bear gendun ostatua, naita nai ez. Gure Bisauak ez eban baimenik emoten famili bereizi baten etxean geratzeko. Aduanan turista edo txangolaria ziñala agertu eta Ostatu Nagusi bat aukeratu bear zendun

Bidearen nekea alboratu nebanean, ezagutu nai nindumi sendiagaz Mtu-emonera sartu nintzan. Villa Clara'ko erkian dagoan Santa Clara'n bizi ziran, Habana'tik 130 km. 'ra. Egun bat eta erdiko nire alegiñak ez ziran naikoa izan sendi aregaz artu-emonera lortzeko. Ez egoan garraiorik, ez trenik eta ez autobusik, Villa Santa Clara'ra urreratzeko. Taxi bat artu neban 300 dolarregaitik ara eroatekotan. Taxiaria barritsua zan eta, batez be, fimezionarioa eta Fidel'en aginpidearen aldeko beroa. Ez nintzan esan nor nintzan eta ez zertarako nifioian be. Bidean ekin eta ekin esan eustan kastrotarren iraultzak aurrerapen aundiak ekarri ebazala.

Uri bien artean alkartzeko bide zan autobia bitan ebagia izan zan, aurretiaz oarrik egin barik eta stop ezaugarririk be agertu barik igaroten ziran kargako trenak etozelako.

Bide-ertzetan eundak personak ikusten ziran eroapen aundiagaz fiirgoneta edo kamioiren bat etorri.arte itxaroten. Bidean suertez joatea lortu ebenjentea pillatuta eroien ainbat kamioiri aurrea artu geuntsen.

Taxidunak sendi aren etxeko atearen aurrean gelditu eban taxia. Kale estu bat zan eta osotzen eben etxe-pilloa oso jauskorra Taxiagaz berbea emonda geratu nintzan ordu bi barra etorteko nire billa.

Jaten egozala eldu nintzan. Nor nintzan esan neutsenean poz arrigarria artu eben. Bikote ezkondu aren maian arroza ta frijolak agiri ziran plateretan. Ori zan jan eikeen platereko bakarra. Euren semeak ziran mutil bi, ezkonduak) osagilleak ziran eta alabea idazkaria Irurak bizi ziran Habana'n. Maian kideko egin ninduen eta, egia esan, jatekoa gozoa zan. Sukaldeko maipemi ketan egoan txarritxu bat.. Antxe bertan jakin neban, txarri orren koipeari eskerrak urte guztian sukaldaritea lana egin al izaten ebela.

Gizonak biabetes gaisoa eukan baifta ez osateeko gairik eta asarre ta garratz egoan. Berak esan eustan Sierra M^astra'ra joan zala bera Fidel'en jarraitzailleakaz iraultza asi zanean. Asieran pozik artu eben gerrilleruen iraultza Laster konturatu ziran erri txirotzera joiala yankien blokeoagaitik eta errukarri bizi izatera beartuta egozala.

Ordu bian berba egin gendun eurak nire osaba-izekoakaz izan eben artu-emonari buruz. Esaneustezezanjazokizunakentzundaargiegoan adiskidelasun aundia eukela eta euren seme biren aita-amabitxiak be izan zirala osaba-izekoak,

Nire osaba-izekoak ilburuko edo azken-nairik egin ete eben itaundu eusten. Argi ta garbi esan neutsen neu ninteakla ondorengo edo erederu bakarra, Asieran arrituta geratu ziran, baifta gero ulertu eben erabagi errazoizkoa ta zuzena zala. Itaunak egin eustezezan, baiña ez nebazan ikusi diru-zale.

Ostatu Nagusiari eta barateari buruz zerbait jakui nai izan neban. Orduan jakin neban Fidei'en agintariteak dana baitu ebala eta etxearen ondakiftik be ez zaia geratu.. Etxea bota egin eben eta etxepea ta baratea ,zementoz beteriko k^aii oak uteituta, dana biurtu ebela kiroldegi. Ez ninduffli arritu agintaritearen barrabaskeri orrek eta nire jakingurea asetuta geratu zan. Gogoia emon neutsen iñoz politika-giroa aldatuko ba'lite eta al izan ezkerro, egoera larrian ezkutauta eta lurpean nire osaba-izekoak itei eben aJtxorra aiztu ez egien.

Orri oneik artzen dodaz senar-emazte zar bi arein zapalkunteagaz sendotzen zan agintaritea kondenatzeko. Areik bizitea guztia igaro eben lanean, ez eben nai beste ezer euren SKkeneko urteak atsedan apur bat arteeko eukitea baifto eta bai eur^a eta bai euren lan-lekua garbituak izan ziran.

Gauza baragarria eta larria da Fidel'en bost edo sei orduko berbaldiak entzutea, personen eskubide arruntak aintzat artzen ez dauzanean. Nire berbak gogor-antza ba'dauke be Kuba'ko erria be eztabaidagarritasunean sartzen dot. Banaka agintaritza aztertu-arren, agirian euren berbak Kastro'ren ondorenentzat txaloak dira. Aiii gogor salatzen dodan au an igaro nebazan egunetan ikusi neban giroan oifarritzen da eta ain egotaldi laburra izan zan lez, nire berbak sendotasun laburra euki leikee,

Sendi bedeinkatu areri agur egin neutsan. Dolar pillo on bat itzi neutsen, neuri asko kosta-bakoak, eta eurentzat urte-erdiko gastuak ordaintzeko naikoa ziranak., Gero, iru urtetan, korreoz jiroak bialdu dautsedaz dirua dolarretan dala. Eurak betirako esker ona agertzen eusten. Gero, emen ezui esan zergaitik, itzi dot oitura ori.

TXANGOLARI-BEGIAKAZ KUBAIKUSTEN

Iru egun igaro nebazan nire ibillaldiaren elbuniak bideratzen. Ni b[^]riro etortea neure erabagia zala uste izanik, ostatua artu neban Ajentziak b[^]e idazgoa eukan Ostatu Nagusira joan nintzan. Uste txar barik, nire biurtzea aurreratzea erabagi nebala esan neutsen. An egoan andereiñoak bere jatorri kubatarra agertzen eban berbakeran, barretxua eginda, esan eustan nire txangoa edo osterea edo ibillaldia zazpi egunerako eratuta egoala eta geratzen ziran lau egunak Kuba ezagutzeko artu neikezala. Neuk be barretxua eginda, neure jokabidea zuritu nebai, eratuta dagozen ibillaldi onel buruz ezjakifta ninizala esanez.

Nik uste neban egun orreik Bilbao'n edozeiftek egin leiken lez, ibilteko artu neikezala. Arrituta geratu nintzan nire kaJetik ibilketak oiñaze biurtu ziralala ikusi nebanean.

Nire aundierea, nire narru-kolorea eta ez dakit zer geiago ikusita, ni txangolari edo turista utsa nintzala konturatu ziran. Edonon itauntzen eusten galiziarra ete nintzan. Nik, erez-errez erantzuten neutsen ezetz. Gero jakin neban Kuba'n galiziarra izatea eta espafatarra izatea gauza bat ziralajUgarte aretara galiziar asko joan ziralako. Bidezkoa zan ba, euren jokabidea. Ain urrin egozan lez, ez zan gauza erreza erdi-ugarte onetan ainbeste jatorri egozala jakitea. Ni euskalduna nintzala esaten neutsenean, aurpegietan erantzun ezbardiniak ikusten nebazan. Euskadi zer dan ondo ekienak arduratu egiten ziran eta ortik sortzen zan amaitu-eziñeko alkar-izketea,

Kubatarrak euren albisteak emon-bearrekoak dira. Edozergaitik gelditzen zaitue kalean. Ordua eskatzea bide bat izaten da euren eskintza egiteko eta doJarrez beterik datozen txangolarientzat diran dendetara, orreitan eurak erostea debekatuta dauke, eroateko. Bertako semeak diranak Kuba'ko "peso"ak erabilten dabez, baifta oneik ez dauke erosket[^]ako baliorik. Dana zan zillegi dolarrakaz doanarentzat.Nik ez neban denda orreitatik urteten jantziak,orioa ta janariak erosi barik, arima errukarrien antzera biltegien ateetan itxaroten ebeaentzat.. Erosketa oneik egin eta gero euren etxeetara joateko esaten eusten, baifta ez nintzan batera be joaten.

Olako egoerak ainbeste izan ziran lez, estutu egin nintzan eta, aukerea etorten zan bakoitxean eurak egonkorrak izatea botaten neutsen aurpegira: Zelan sufritzen dozue zuek, kanpotik dolarrakaz datozenak ate guztiak zabalik euki eta zuek,bertokoak, erosteko eukerarik ez eukitea? Zelan izan zeitekean eritxi.batzea egin zanean % 97'k Fidel Kastro'ren alde autarkia emotea? Zer da zuentzat demokrazia? Ze eskubide dauka Kuba'n erriak?

Ez euken beste erantzunik, besoak batu eta Kastro'ren agintaritzak dauzan gauza arrigarri[^] goratzea baifio. Eta ni arrituta geratzen nintzan. Jente maitekorra izatea goratzen dot, baita eurak alkar-izketati agertzen daben eroapen aundia be, ez neban

ulertzen euren goseak eta egoera errakarrak zelan agintaritza arstara makurtzen ebazan.

Eurak be esaten eusten euren janari bakarra arroza ta frijolak zirala, guztientzat eltzen ba'zaii. Edozein ordutan tximist-indarra kentzen eben, aurretiaz oarrrik egiii barik, eta erria illunetan geratzen zan. Telebistak eukan kanal bakarrean Fidel'en aldeko berbaldi amaitu-ezifietatik artiitako jokabideak emoten ebezan.

Egun areik amaitu-ezifiak izan ziran nitzat. Ez neukffli ibiltera urteteko gogorik be, ba-nekialako bein eta barriro bidean ebiltzaii^ inguratuko ninduela. Cjaiflera, dolarrak urritzen joan jatezan, bertakoak eskatzen eustezan gauzak erosten.

Neuk ikusten neban eimdak peisoiak, alkarren atzean, autobusen geltokietan eta azken-lekuetan itxaroten egoten zirala. Baifia ez zan ori gauza ziurra. Kamioi trailer bat etorten zan, kamea ogei metro ingura luze eukana, kamoira igoten eben mailladitxu estu bategaz eta an pillatutaten ziran zutunik ai eben eran bidea e^teko.

Asko ikusi nebazan botiketean alkarroi atzean itxaroten aspirinak, eta gitxi, artzeko. Ogia saltzen zan lekuan kolak egozan itxaroten. Eta, azkenez, ikusi neban gizonak, isillik eta estutu barik, Kastro'ren aginduak betetuz agintaritzaren aurrerapenak goratzen eta aldezten ebezala.

Kuba'n igaro-bearreko egunak igaroteko denpora-pasagarriak aurkitzea baifio ez neban gura. Joan nintzan libura-denda batera eta ainbeste libuniska aurkitu nebazan,baita antxiñako idazle ezagunen liburaak be, esaterako Zizeron'enak, Aristoteles'enak, Platon'enak. Aldizkariak esku-artearen erabilliak ziran eta erbesteko libura-dendetan kendutako zerrendetatik artu ziranak zirudien.

Libura-dendatik urtekeran ango ertzain edo polizi txiki bat neiikan itxaroten, bere bigote etaxapeIagaz,futboleko entrenatzaillleen antza eukala.Maitekiro esan eustan libura batzuk ordaintzeko itzi nebazan dolarrak faltsoak zirala. Urrengo komisarira laguntzeko eskatu eustan. Au nire ostua zan etxearen ondoan egoan. Irureun bat metrora, sartu gintzazan Komisariko idazgora. Gai au argitzeko esan eustan burdiflezko mailiadi estu batetik,itxas-ontzietako antzera, jatsi bear nebaia. E^tz esan neutsan nire lunbaljiak ez eustala izten. Berak ulertu eban nire zio ori eta idazgoko funteionarioak mailladia-gora igon eban eta itaundu eustan dolar talsoai buruz. Nire erantzuna laburra ta xumea izan zan:Dolarrak lenengoz naukazela eskuetan eta ez nebazala bareizten benetakoak eta faltsoak. Esan neutsan, gaiflera, ddlar areek denda baten emon eustezala, nengoan ostatuaren ondoan. Billete falso ori bost dolarrekoa zan. Parkeztatu egin eustan eta joaten itzi. Neure burua zapalduta ikusten nebaii lez, aurreratu nintzan billete falsoak aurkitu ebezan libura-dendara eta gogor esan neutsan polizimi esmi-bearrean,dana konponduko ebala obeto neuri esan ba'eustan billete faltsoak zirala. Emakume saltzailleak iñuzente-antea eukan eta lotsatu eta isildu egin zan.Libura-dendatik urten neban samindiita, Zelan zorioneko

bost dolarreko billete faltso orregaitik olako naste bat atera eta gero pozik geratu ugarte osoaren edertasuna ezagutzeko lagunduta?

Etxera etorteko falta ziran egun biak Ostatu Nagusiaren ateartean igarotea erabagi neban. Leioetatik edozein ez-gauza naiz edozen laguntza eskintzen eban jentea ikusten neban jarraian. Inguratze ori aspergarria zan eta sarritan, bare-bare, ir[^]iuten zengozaiara orretarako etorten jatzuzan. Bat-batean osagille bat etorten jalzun zuriz jantzita eta unoreentzat ona zan pastila bat eskintzen, beste batek urreratu eta bere sendiaren edestia agertzen eutzun al danik illunen.

Orrelan, kalera ezin urten eta ostatuan bertan be lagun aspergarriak etorri, bizi-bizi nai neban orduak igaro eta egaz egitea, Jainkoari eskerrak Euskadi'ra etorteko.

Ez neuke aitzuta itzi gura, Adbentisten eleiza baten ondoan, kale baten ibiltzen nentzala jazo jaten ja²»kizun arrunt bat. Mutiko bat etorri jatan, amar urte ingurukoa, balteerana; gelditu nindun eta esan eustan: "Jauna, zapatetako kordioak daroazuz lotu barik. Lotu egizuz jausi ez zait[^]en." Biotz bigunez eskerrak emon neutsazan mutikoari eta aspaldion gitxitan ikusten dan aingem-antza artu neutsan. Eskua boltzara sartu eta diru batzuk emon neutsazan.

Eta kontu batek beste bat dakar. Ostatuko baratzetan jolasten ebiltzazan ume batzuk daukadaz orain gogoan. Arratsaldeko seiretan izan zan. Batek bere lagunari ifotson: Ba-daukat gose bat. Gaur gurean ez dogu euki arrozik.

Malekon ospetsuaren ertz baten adin elduko gizon bi ikusi nebazan aragia erreten, barbakoa antzera. Alai ikusi nebazan eta zer erreten eben itauntzen ausartu nintzan. Eurak zabal-zabal esan eusten iru katu zirala Katuak botaten eben usaiña gozoa zan baiña ez ainbeste nastean etorren ke-moltzoa.

Eta amaitzeko agertu dagidazan otz-beroaren goraberak eta ugfflte aretako eguratsa. Oso atsegifiak dira. Baifia egunero, artatsaldeko irurak edo lauretan ekaitza sortzen da, zaratsua, iñiziotu eta trumoi-zaratakaz. Ordubete inguraan euria sendo jausten da ugartearen gaifera.

Azkenean eldu zan andik urteteko eguna ta ordua. Gabeko mnabiet[^] mtu genduii egazkifia Euskadi'ra etorteko. Ga^lseko amarretarako ibiltariak itxaron-gelan gengozan. Geienak Foronda'tik batera, £[^]tebete lenago, urten guitzanak. Egazkin. zelaian bertan aparria egin gendun janari-zerrenda bakarragaz: Txarria, oiJaskoa eta arroza.

An egoan daitasmiak eta mirab[^]n txera onak arritu nindun: eskuaii txalia eukeJa serbitzen eben era berean dantzm egiten eben. Arein izakerea ez da gurea langoa, pj isillak eta barrukoia gara geure alaitasuna agertzeko.

Barrero be "alkol-loa eta abentura-zaletas/ma agertu ebazan bidari-lagunagaz aurkitu nintzan. Bekokian zauri bat eukan puntuakaz eta osatuta Ondo aziai dagokien lez, bere egotaldia zelan izan zan itaundu neutsan. "Ederto" erantzun eustan, besterik ezer be ez. Orixe baiño ez zan izan bide guztiko gure alkar-lzketa.

EuskadiTcoentzat bots karta ekarri nebazan. Ez neban egin bcsterik etxera eldu nintzanean bidalgo-ikurrak ipifii eta euren elbumetara bialdu baiiio.

Kuba'tik nire biotzak gozotasuna ta garraztasuna batera ekarri ebazan. Jente ona dira. Emikarritasunez inguratuta dagoz edonondik eta ez dira ifloren aurka jagiten. Eta eurak barrutik billatzen ez ba'dabe, gatx izango jake kanpotik ezelango burrukarik egitea

(PIES)BEDARONA

Bedarona.Parrokia

BEDARONA'n^Kepa Deunaren parrokia.

San Ignazio'ren irudiak

bere buraa txapelagaz estaltzen dau.

Ez dago olakorik

Euskadi osoan.

IRUBASELEIZAK

Tala'koa

Agate Deuna

Bartolome deuna.

NATXITUA:

60n. urtean barriztatii zanean giza-itxurako illarri bat aurkitu zan,I gizaldikoa.

y

Au lako erri txikietan egunero egin bear izaten da artzain-lan beti bardifta baiña atsegingarria izaten da. Noizean bein izaten dira jazoMzim batzuk, irakurlearentzat garrantzi-bakoak izan arren, berton bizi danarentzat garrantzia daukenak

Gogoan daiikat, zapatu baten neure etxean notin bakar baten janariak gertatzen nengoala, ateko tirrifia entzun zala. Ate-aurrean ondo jantzita eta bibote luzeagaz egoan gizon bat aukitu neban. Etxera sartzeko eta arazo garrantzitsu bat aztertzeo baimena eskatu eustan. Nire idaz-gelara sartu neban. Txeratsu esfli eustan espetxetik urten-barri zala eta ni be espetxean egona nintzala entzunda egoala,

Nik berba ta berba egiten itzi neutsan eta neure artean zelako asmoa ete ekarren aztertzen iiebaii. Laster konturatu niiiitzan, bear ebaiia dirua zala. Boltzan zizpa bat eukala eta bera gai zana edozeifleri samea ebagiteko ziurtatu eustan.

Al nebanik ondoen ba^etu neban gizona.

Neure etxean gorputza ureztatzeko, dutxea artzeko, baimena eskatu eusian. Nik ezetz esan neutsan oso-osoan. Orduan arkondara bat eskatu ei^taai eta ni berak nai ebana egiteko ustez, jazki orren billa joan nintzaii. Idaz-maian kutxak idegiten egiten eban zaratea entzun eta eskuak orretan erabiltzala arrapau neban. Ez eban besterik nai dirua baiño. Nik arkondarea eta amar milla pezeta emon neutsazan, ori izango zala urtenbiderik onena uste nebalako.

Joan daitela esan neutsan zemaia egifiaz eta joan egin zan.

Beste lagun batzui emon neutsen onen barria eta beingo baten lotu gura izan eben. Inguruko mendietara joanda ezkutatu eban bere burua.

Lagun Etxea Egoitzeko arduraduna naz. Abadea nazelako zeregin guztiak egitea dagokit: Zuzendari-lana, ondasun-zaintza, mandataritza, lurperatzaille, etxe-barrukoen eta eurai laguntzeko diran lekaimen arteko bake-egille eta abar.

Baserri baten bakarrik eta bere ardiak lagun ebazala ganora barik bizi zan eleiztar bat ezagutu neban. Gaisorik egoan. Bakartade utsean eta izatez bereari eustekoa zan..Ez eban gura Egoitzara sartzeko nik egiten neutsan eskintzarik. Argi agertzen neutsazan, bakarrik bizi izatea alde batera itzita, zelako onurak lortuko ebazan. Bein baten bere osasuna txarto joiala ikusi neban eta bere baserrira neu joan eta ekarri eta egoitzean egokiro ipiñiko nebala esan nautsan.

Onartu eban nire eskintza, baiña baldintza bategaz, bere ardiak beragaz sartu daitezela.

Baietza emon neutean, neure kotxean ekarri neban eta bere amazortzi ardiak furgoneta baten ekarri genduzan Lagun Etxea'ko landetara.

Ogei urte igaro dira eta gaur be Egoitzean bizi da bere ardiak ondo zaintzen.Ogei ardi areitatik bost bizi dira eta Egoitearen lurretan baskatzen dabe euren bedarra.

Jaun au Egoitzera ekarteko ekin eta ekin egin ez ba'neban, gizona eta bere ardiak antxiña oztenduta egongo ziran. Bizitzan, eta auxe da adibide argi bat, persona

batzuren eritxietara makurtu egin bear gara, naizta ongintzarako erakunde batzuren kalterako izan.

Beste bein beste agure bat ekarri neban Egoitzara. Au jauskor egoan baserri baten bizi zan bakarrik eta euria zanean etxe-barman aterkia zabalik ebala ibilli bear izaten eban. Zuen irudimena aundiena ba'da be, ez dozue irudituko nik etxe aretan ikusi nebana. Onera ekarteko neure almen guztiak batuta, lortu neban gizon ori Egoitzara ekartea.

Egun batzuk geroago, Txirloras esaten dautsen eta adiskidea dodan Ea'koalkatea ta biok gizon arek etxean itei ebazan gauzatxu batzuk artzerajoian ginteazan. Txirloras gizon ona da, biotz utsa, eta une guztietan laguntzeko gertu daukazuna.

Eldu gintzazan gure ostarari barriaren etxera. Bere katrearen azpian zizpa bat aurkitu gendun, zarra eta erabilli bakoa^ baiña barruan bala bat eukana. Gela beratan erriko jaietan botateko beste bolandera edo txapliegu txorta bat egoan. Nire lagunteailleak, bero-bero, zizpa ondo ebillan jakin bear genduala esan eban. Eta zizpa utsitu egin bear genduala. Bera egoan gertu barruan eukan bala bakarraz ori egiteko. Mendirantea egoan leiotik egingo eban danbadea, Nik esan neutsan zaratea entzun ez daiten ondo izango zala bolanderak botatea. Txirloras'en, beingo baten leiora joan baladun zizpa aregaz eta gatilluari sakatu eutsan. Zaratea ain aundia izan zan ze, esan zeitekean polborinen bat lertu zala. Zizpa tiratzaillearen eskuan geratu zan zati bi eginda eta jarraian, jaietan ba'gengoz lez, txaplieguak bota genduzan. Onein zaratea konturatu barik igaro zan, Natxituan San Roke jaiak ziralako.. Betiko oztendu gendun zizpa apurtua. Ara agertu zan zar-zale batek milla pezeta eskiñi euskuzan eta dira onegaz, biok biotara, amaiketako egin genduii.

Jesus Ozamiz, Txirloras eritxona, arotea zan lez, nire lagun aundia zan eta bere irudia argi gogoratu gura dot. Niteat beti izan *zm* benetako lagun bat. Domeketako mezak amaiteen nebazenerako itxaroten neukan txikito batzuk arteeko. Bere etxera eroaten nindun eta an jaten neban etxeko maikide baten anteera. Gero, Atiiletic'ek etxean jokateen ba'eban, San Mam^'era joaten gifian eta andik etorrikerari, aparria egiten gendun Gemika'n. Urteetan bete gendun domeketako egitarau au.

Egun baten bion lagun bat il zala Bilbao'n esan euskuen eta urrengo egunean kotxe baten biok illetara joateko geratu gifian. Egun orretako goizean iragarri eusten Txirloras nire adiskidea biotzeko eraso batek il ebala. Bere eriooteak nire barrua uteik itei eban. Ezin izan neban bere illetako mezea zuzendu eta beste abade bateri ^katu bear izan neutsan ospakizuna egiteko. Ni edozein eleiztar lez joan nintean illetara. Abadea danak ba-daJd zelako sendot^una eskateen dauan bear dim duintasunaz eta baretasunagaz mezea esateak, biotza samintasunez itota lez dagoanean.

1995n. urtean amabi bider inguru joan nintean osagilleagana D. Gregorio Natxitu'ko parrokoagaz. Gemika'ko Begi-osagillea, oftamologoa, zan osagille ori. Begi bietako kataraten ebaikuntza egin eutsoen.

Bakarrik bizi zan, baiña denporarik geiena edatxean igaroten eban, ondo arteen eban sendi batenean. Edatetxeko erakus-maia zan bere idaz-maia eta eleiztarrakaz

berba egiteko tokia ara etorten ziranean. Izaeraz gogorra zan eta apnrka-^nrka lagun eta ezagun guztiak galdu ebazan.

Ni ondo konpontzen nintzan beragaz eta erritik urten bear genduanean alkarrari laguntzen geuntsan.

Irurogeta zazpi urte bete ebazenean berantza doan bide labanera sartu zan. Bere burua gaisorik ikusteak bakartade-miña aunditu egiten eutson. Zuzendari nauan Ea'ko egoitzera etorteko esan neutsan. Ea'ko Bodegoian egunero jateko eskintza be egin neutson, neu arduradun nintzala. Bere inguruan bakarrik ikusten *mhm* baifia ez eban artu nire eskintzarik. Egun baten guztiok bildurrez itxaroten gendua jazo zan: Bera joaten zan edatexetik esan eusten D.Gregorio'k biotz estuaren eraso antzeko bat izan ebala. Ara joateko eskatzen eusten. Aiibulantzi baten eroan gendun Gddakao'ko gaiso-etxera. Bai bere Bikarioa eta bai Gotzaindegia arduratu ziran Begoña'n dagoan Abade Beneragarrien Egoitzara sartzeko. Biotzak oar au egin baiño lenago be Gotzaindegian arduratuta egozan Egoitza orretara eroateko, baiña beti emoten eban ezetza.. D, Gregorio'k nai ebana, nasai bere erara egaz egiotea zan eta ezin zan Eleizearen kaioletan ezarri leikeen araubide batera sartu.

Abade Beneragarrien Egoitzara sartu zan ezkerro, lau edo bost bider joan najako ikertzera. Alkar ikusten gandun bakoitxean nire aurka jarten zan bera egoitz aretan egotearen errudun neu nintzala-ta. Beti agertzen jatan kritikaiari garratz an egotearen bere nekea agertzen eustala. Ez dot uste zuzen egoanik nire aurka artzen eban gorroto orretan.

Natxitua'ko abade-etxea apur bat egokitu nebanean aurkitu nebana, naiago dot isilik gorde, bizitzaren egokitasunak eta giza-duintasimak eskatzen dabenaren izenean.

Gotzaindegiak Natxitua'ko artzain-lanaren ardurea artzeko eskaria egin eustan eta artu be egie neban eta beteten nabil.

Gaur lau parrokitako zeregiñak bereten dodaz. Bat oraintsu barriztatuta dago, beste bi itxita konponketa-aldian eta baseleiza bat konpondu-baixia ZapMuetan iru meza daukadaz auzo-uneetan eta domeketan parrokitan beste iru.

Urteen joanak emoten dauan uste onagaz etamaitasunagaz, alait^unez esaten dautset neure eleiztarrai:

"Zapatoelan eta domeketan ainbeste meza esan ondomn, ez da arritzekoa domeka-arratsaldeeten "San Mames izena daroan katedralera" ni joatea"

Eta guztiok pozik ,batez be "guk, leoiok, irabazten dogunean

BERROGIFXBAT

ERRI BAT BERE PARROKOARI OMENALDIAN ERRUKIDE

Idatz-zati onek bere barre-eragilletasuna dauka. Ea'n udatien zenbakia berantza doan sasoiari egun batzuetako oporraldia artzen dot urtero.

Ogei egun kanpotik ibilli-ondoren, etorri nintzan errira eta bidean aurkitu neban atso baten azaldu eustan Aurrezki-Kutxaren idaztetxe batetik etorrela eta an, libreta baten dirua ezarri ebala niri omenaldia egiteko idegi daben kontu baten. Zurtz eginda geratu nintzan eta uste neban andra areri ez neutsala ondo ulertu. Baifia laster konturatu nintzan erri guztia zala errukide omenaldirako, ezer jakin barik eta zurtz eginda egoan omendua izan ezik.

Gure "amaiketakoa" egiteko igandero neugaz alkartzen diran iru adiskide etorri jatazan etxera. Autuak urten eban eta neure billak^ea egin ne b^ . Zenbat eta gauza geiago jakin, nire barrua lotuago neukan. Neuri ezer be esan barik omenaldia eratu ebelako, orretan ez natorreka batera agertu neutsen., baiña euren zioak sendoak ziran. Baimena eskatu ba'eben ez eben aurkitu ezetz garbia baifto besterik

Ez zan geratzen ba, egindako gauzak datozen eran onartzea baifio, eta erri guztiaren dirua nire omenaldirako bafeea, orreitariko bat zan.

Omenaldiren zentzuna neuganatu barik, iru emoitetik aukeratzeko erea eskifii eusten: Erroma'ra joan-etorri bat, gastu guztiak ordainduta, Athletic'en bazkide lez betiko bazkide-sariaren urteak ordaindu eta, iragarren neuk nai nebaii emoitze bat neuk aukerateeko.

Eurai entzun neutsenean, nire bamian alkarren aurka egozan jokerak ikusi nebazan: Alde batek barre-gurea neukan eta bestetik Ea'ko ondartzara doazela aize ozkirria artzera esateko gogoa.

Baifia ulertu neban eziña zala eurak atzerantza egitea. Ez neukan beste biderik emoitze batzuk alboratzea baiflo.

Erroma'ra joateari buruz, errez urten eustan nik Erroma'n ez nebala ezer galdu. Bizitza osorako futbol-kuotea ordaintzeko eskintzari begira, ori neure gauzea zala eta ez nebala bidezko ikusten beste batzuren esku iztea, esan neuteen. Baifia, nai ta nai ez, zerbait artu bear neban lez, telebista bat erostea eskifti neutsen. Ormtan geratu gifian.

Omenaldia egiteko eguna 1997n. urteko zemendiaren 16n. eguna izan zan. Ondo aztertuta egoan egun ori. Ea'ra etorri nintzanetik 25n. urtea zan

Une orretan apurtu zan errian guztien artean eusteko ain ardua aundiagaz artu eben isilik egoteko berbea.

Jentea bidean aurkitukeran guztiak agurtzen ninduen ni lotsaz gonituta izten ninduan barretocu errukideagaz. Nik, neurez bildurtia nazan lez, naste ori ainbat lasterren amaituta iknstea nai neban. Beste alde batetik, autortu egin bear dot, &z neban pozik sentitzen jai ori gertatzen jenteak ipinten eban ardureagaz eta amets beroagaz.

Gertakuntza pozez beterik ikusten ebana Martzelifla nire arrebea zan. Ille batzuk ziran bere osasuna makal ikusten ebala. Ez eban asi gura osagilleen azterketen bide luzea. Berak uste eban klinikaren batera joan bearke ebala Zori txarrez orrelan izan zan.

Egun orretan zoriontasuna zabaltzen eban, iflok baifto geiago bere nebeari egiten jakon omenaldia gozatuz. Bera *zm* nire bigarren ama, lenengoa galdu nebmi ezkerro. Edozein abaderentzat, amak beste utsune asko beteten dauzan maitasun sakona dauka.

Egun orretan beste lagun batzukaz baterako mezea ospatu neban. Berba batzuk esan neutsezan neure eleiztarrai, beti lez, mait[^]un aundia agertuz;

Eskerrak emon neulsezan guztlak batera alkartu ziralako omenaldi au omenduak ezer jakin barik gertalzeko. Batez be neure esker ona agertai neutsen, Ea'ra eldu nintzanean ain arrera beroa egin eustelako. Izan be, besoak zabalik artu ninduen eta ori ez espetxetik nentorrelako, orrexegaitik, antxe egona nintzaiako baiño. Eta esan neutsen, gaiñera, orrelan onartu ninduelako lagundu egin eustela abadetzaren bidean Jarraitzeko.

Erri onen omenerako esan bear dot, telebista emonaz gaiñera, namizko jake lodi bat emon eustela eta au ez dodala kentzen negu guztian. Onek biotzaren odol garbi-bideak berotzen dauz eurak be biotz beroag[^] emon eustelako. Udal-Batzak kalitate onekoa dan ordulari bat emon eustan eta au be neure eskutorrean daroat gomuteki lez,

Abeslarien kuru bi ekarri ebezan. Bata mezea ederto [^]esteko eta bestea Ea'ko kaleetati k" kale-jira" egiteko eta bazkal-ostean abesteko. Kanean "Agur Jaunak" abestu eusten, an egozan batzuren negar-ampuluakaz batera Erri guztia egoan eraginda eta nire omenerako batuta. Era bereizi baten atsegin izan jatan

Alderdi guztietakoak, fanfarri, txistu eta soiñu talde jokera guztietakoak kideko izatea. Olako alkarasunik errian iñoz ez ebela ikusi esaten eben. Egia zan. Jaungoiko Aitari eskerrak emon neutsazan alkartasun orretarako bide nintzalako, orreterako zioa ain txikia, euren abadearl omenaldia, izan arren.

Bazkaria Bilbao'ko jatetxe baten gertatua izan zan eta erriko kiroldegian emon euskuen. 520 izan gifian maikideak eta beste errazoi batzukaitik etorriak gaiñera Jaten gendun artean, kuruak abestu eben.

Azkenetara eldu gifian gauza arrigarri eta txeratsu bat ikusi neban: Txistulari-talde batek AtMetic'en arkondara bat ekarri eusten joko-talde onen jokolari guztiak izenpetuta. Arkondara ori emoten eusten artean, Athletic'en ereserkia abestu gendun. Arkondarea maitasun aundiz zaintzen dot etxean.

Ikusten dodan bakoitzean *nmre* erriaren eta neure futtiol-taldearen maitasuna ikusten dot

Egunaren luzera osoan konturatu nintzan neska argazkilari bat ebillela nire ibillera guztiak zaiitzen. Onen ekifiak arritu egiii nindun eta arritesun au urtu egin zan egun balzuk geroago argazkien aibum bat ekarri eustenean. Albur bat emon eusten ba, atzean eskintzak idatzita eta izenpetuta. Ez noa idazten zelako goratzarreak eta lorak bota eustezaa, orreik gorritu egiten nabelako. Etxem eta biotzean daroat album'a. Nire eleiz.berbaldiak aitatzen dira, nire joko-talderik maiteena be bai, gaisoai begiratzea, espetxeari buruz, euskereari begira eta oneitariko baten au diftoe:

Eskerrik asko, Patxi, zaran lakoa zaralako.

Ez noa izten idatzi barik barregurea emoten daustan eskintza bat.Mezearen oikunea Ea'ko parroki baten izan zaii.Domeka orretan Jesus'en Aiidra Mari parrokian egin bear zan, San Juan'ena dan beste parrokioko bikote ezkondu batek onelan diflo:

Patxi, San Juan'ekoak zure urmzko ezteguai itxaroten gagoz .Zidarrezkoak onak (super)izan ba'dlra urrezkoak obeak (hiper) Izango dira.

Patxi,zulango abaderlk ez dago iñun.Bezarkada bat.

Olakotxea <k nire erria. Agertzeko era bat daukenean, barruan daroen dana botaten dabe.

Egia esateko, asieran omenaldi^en burubidea atsegin izan ez ba'jatan be, egun ori igaro-ondoren guztiz atsegingarria izan zala esan bearrean nago,

guztiok bear dogulako aize bolada bat gure egoentzat egaz egiten jarraitzeko adorea izan dakigun

Azkenean, guztiontzat egun gomutagarri bat izan zan.

(PIES)

EA'N OMENALDIA 1997-11-15

Mezan Lorentzo Zugazaga, Roberto eta Julen Renteria lagun dirala.

Ezpata-dantzariaren dantzaidia

ELEIZTARREN AGURRA ELEIZATIK URTEKERAN/"AGUR J AUNAK"
ABESTUZ

KONPARSA EGUN GUZTIAN LAGUNIZAN NEBAN GERIZEAREN
ANTZERA.

Maia bedeinkatzen. Ekin egin neban nire ezker-aldean Martzeiña nire arrebea egon daiten. Bere nebeagaz poza banatzen eban eta bere gorputzean ikutua eginda egoan gaisoa ondo eroaten alegifta egia eban.

MARTZELINA,NrRE ARREBEA, NIRE BIGARREN AMA

Nire bizitzan asko izan dira nire jausketak azpiratzeko lagundu daustenak,maite izan nabenak. Martzelifia nire arrebea da laguntza orren adibide bat. Zutunik ikusi eban Patxi bere nebeari egin eutsoen omenaldia. 1998n. urteko martiaren iOn. egunean eroan eben Deustu'ko San Sebastian'en klinikara. Guk bilduirez itxaroten genduana, azterketa guztiak baieztu eben Ebaiketa mingarria izan zan eta ebaiketa-ostea ez zaii oberako itxaropena. Ea'tik Deustu'ra joaten nintzan e^in guztietan. Gorputzez eta gogoz galtzen niñoa. Kimio ezarten asi izatea, baretzeko osagaiak emotea eta bere gaisoan aurrerapen gitxi ikustea ziran orren iturri. Une baten osagilleak esan euskuen ez egoala ezer egiteko erarik.

Nire adiskide zan osagille batek esan eustan Artxanda'ko Santa Marina gaiso-etxera eroan bear gendukela.

Bera ikusteko nire ia eguneroko joan-etorriak, oiñazea ziran. Senide guztiok batu gintzazan berari laguntzeko. Bera ogean etxunda, konturatuten zan zeliAo egoerea geunkan eta egunero bera ikustera ez joateko eskatu eustan, Ea'tik arafito joatea alegin aundiegia zalako. Aldi orretan 13 k. galdu nebazan. Nire gogo-egoeresk jateko gogoa kendu eustan eta loak artzea be gatx egiten jatan. Azkenean lortu eben osagilleak, eukazan min aundiak eta nitzat jazan-ezifiak ziranak, gitxitzeko baretze-neurria aurkitzea. Gaiso-etxe aretMi il zan uztailaren 23n. egunean, Martzeliñanire bigarren ama

Egun areitan eta agun gitxiren aldeagaz, antzeko egoeran il zan Maria Luz Ramos, Bedarona'n. Au Koldo abade-gaiaren ama zan.Alegiña egin arren, ezin eldu izffli nintzan onen illetara, parrokoa neu nintzalako, neuri egokidan arren. Koldo'k eta bere etxeakoak ondo be ondo ulertu eben.

Nire arrebea il jatanean, nire biziarea banriro eratu bear neban, esaterako soiñekoak garbitzea,neure burua zaintzea, milla gauzai begiratzea Ez da jakiten falta dan arte zer dan olako esku laguntzaille bat eukitea.. Ez noa neure burua lar larri jarten, baiña urteak aurrera doazela, gaiago zomafe;en dozu brf)esa emoten dauan baten laguntza.

DANA DALA,ITXAROPENA

Iraillaren 16n. egunean ETA'k bake-aldia iragarri eban. Gure errian itxaropen aundia. Baifta eztizko iretargi ori ez luzarorako izan.

LAGUN-ETXEA EGOITZARI BURUZ URDURITASUNA

2002n. urtearen asieran gagoz. Ia ogeta amar urte daroadaz Egoitz onen zuzendari lez. Orain ira urte itzi nebazan ardura batzuk Batzordekideen eskuetan. Esaterako, kontuak eroatea itzi neban. Geroago ta ulergatxago jatan sei illebeterik bein toki ofizialetan kontuak emoteko agertzen ziran trebe-berbak. Iru urtean eskatu neutsen parkamena, kontuak aurkezteko neukan era arruntagaitik. Beti parkatu dauste zaintzailleen erakundeetatik, ondo ekielako ni gai orretan ezjakiña nintzana. Egoera onek eroan nau lenengoa dan eskari ori duintasunez beteteko guraria. Eta orretarako ni baiflo ohea zan baten eskuetan arazoa iztera

Aurretik esanda dagoan gauza lez, 2001n. urtearen azkenean Batzordeari esan neutsan ondo izango litzakela Zuzendari barri bat izendatzea. Nire adiña eta beste eragozopen batzuk, beste abaderik ez egoalako, ardura ori ziurtatoita iztea eskatzen dabela esan neutsen. Eta 200 In. uiteko azkenetan autaketa bat egin zan eta Emakume Zuzendari bat geratu zan aukeratuta. Baiña, gauzak zelan izaten dirMi, jazoera onegaz batera Egoitzari begiratzen berrogei urte daroezan Lekeimeen Alkarteko Nagusi Gorenak zeregin au izteko artu daben erabagiaren barria emon eustan, "lekaiame gitxi daukezelako eta Alkarterako deituak be gitxi ziralako." Erabagi onek, Araudiak difioan lez, ongintza-girokoa dan eta orregaitik irabaziari begiratzen ez dautson Egoitzaren aurrebidea aldatu egiten eban. Egoera onetan Batzordekoak, guztiak batera, eskatu eusten Zuzendari lez jarraitzeko

Eurentzat etSL erriarentzat abadearen irudla eta berau aurrean ardura onetan egotea ia bearrezkoa eta ziurtasunerako bidea zalako.

Eskari onen aurrean, eta zentzunezkoa dala uste izanik, neuk jarraitzen dot Zuzendari, gure egoitearen jarraipenerako ain garrantzitsua dan egoera au bideratu-arte.

Ardura onek urduritasuna emon eta barraa larritzen daustala esan bear dot. Toki askotan gabiltz dei ta dei gure inguruko lekaimeen Alkaratei eskaria egiten. Euskadi'n etxeak daukezanen arteko amaika Alkartek ezetza emon dauskue eta guztiak diftoe ez daukala langillerik, ez Alkartera deituri, eta lekaimeen adiña aurreratua dala.. Gotzaindegira be urreratu gara eta ez dabe ikusten egoera onetarako urtenbidea izan leitekenik.

Urtenbide ori aurkitu-naian, eta erriko laguii bat bide dala, Madrid'eko notin aundi bateganabe eldu gara,. Onek "ari zuzena" dauka ango Goteaindegiaz eta Batikano'ko Eleiz-maillaren bategaz be bai.

Gorengo mailletan billaketak egin-ondoren, auxe erantzun daiiskue: Eginbide au aurkeztu jaken AUcarte guztietako abatemeak, edo Goi-Arduradunak eranteun au emon dabela, "Urduritasuna daukela lekaiameak gure lurralde onetara bialteeko, emen ziurtasunik -eza eta gogorkeria nagusi diralako." Urduritasuna "aprehsion" zer dan

iztegiara begiratu ezkerro/"kezka", "errentzelo", "bildur", *"burut^una,"oifiarribako burutasun bakana" dala difiosku. Berba ori astuna da. Nitzat edozein atxaki da baliokoa baiña ez emon dauskuen ori:

Lur bedeinkatu onefan iñoz ez da entzun lekalde edo lekaime bat baitua txarto arhia edo illa izan danik, bestera baiño

Beti izan dira onartuak euren maitasunezko lanean. Eta nik au itauntzen dot: Alkarte orreik ez ete daukez euren lekaimeak misio-lurretan, ia egunero martirizatuak diran lekuetan? Ez dauke "aprensi6n"edo urduritasunik lur areitan eurak eukiteko? Atsegiii izango jatan, bai, eurakandik ezetza egizkoa eta argia izan ba'litz!

Gauzak orrelan ikusita, 2002n. urteko aprillean arazo onen ardureaneure gaiñean eukiko dot. Olako giroan burura jatort espetexean nigaz egon zan Nikola Telleria abade onak parroketan artzain-lanean arduradun ziran abadeen egoerari buruz esaten ebana:

Ori dana da, abadeak onen,aren eta aragokoaren ela beste ogei milla gauzaren ardurea egunero artu bear daualako.

(PIES)LAGUN ETXEAREN 50N.URTEAN IRASLE ETAONGILLE IZAN ZIRAN BITORIO TA EMILIA'REN IRUDIEN BEDEINKAPENA

AITA PATXI MIKEL GANDARIAS'ERI ZORIONAK EMOTEN BERE LENENGO JAUNARTZE-EGUNEAN UMEAREN AITITA-AMAMAK POZEZKO BARRETXUA EGITEN DABELA.

Jauna! ze gatx egiten jatan iru mailla igotea imgarren mezea esatem noanean.Natxitua'iL, Bedarona'n. Ea'n..

Adiskidetasun ona obeto agertzen da mai baten inguruan, etxeko andrak gertatu daben salda ona ta janariak datozenean.

BERROG^AIRU

ELEIZ-ARDURADUNAKAZ ETAABADEAKAZ NIRE ARTU-EMONAK

Ba-dakit, uste zeia ta zabala emoten ez daustenakaz artu-emonak eukiteko jokera gitxikoa nazela. Baifla esi au apurteen danean oso egizaleanaz..

Labur-labur agertuko dodaz gotzaifiakazko nire artu-emonak.

GURPIDE: Deitu eustan,entzun,baifia ez kontuan artu. Kondenatu egin nindun.

ZIRARDA: Deitu barik j o ^ nintzan beragana. Entzun eustan. Kontuan artu ninduala uste neban, bama gero jazorikoa ikusita, ez eustala jaramonik egin iki^i neban.

AÑOBEROS: Bitan deitu eustan.Entzun eta biotzez kontuan artu be bai. Eskerrak emon neutsazan berbaz eta ekintzaz lagundu eustalako espetxetik urten-ostean.

LARREA: Bein baten Lagun Etxea'ko lekaiameak ikustera etorri zan, Lekaimeen ikerfczailleagSK batera. Ni andik amar metrora bizi naz. Abadeagaitik itania egiii eban eta oar au bialdu eustan: Nik nai ba'neban...bera an egoala, Txeratsua 'mm nintzan eta agurtu neban. Barriro diñot Lagun Etxea'tik nire etxera amar metro inguruko bidea dala. Berak lekaiameak ikertzen jarraitu eban. Besteiiik ezer be ez.

URIARTE: Alkar-izketa batera deitu eustan. Entzun be bai eta esker ona agertu neutson.

BLAZQUEZ: Begoña'ko Kurian diran idaztegieta n aUcar ikusi eta apirtu gendun iftoz, baifla ez nindun ezagutu eta neu be ez nintzan aurkezlu. Martzelifla nire arrebea il zanean dolumiña emoteko deitu eusten telefonoz eta esker ona agertu neutsan.

ETXENAGUSL^: Noizbeinka alkar ikusi dogu parrokieta ikerketa egitera etorri danean.. Lagun Etxea'ko lekaimeen arazoabideratzeko alegiña egin eban. Asts Santu baten Bedarona'n egon zan nire orde. Eroapenagaz eta aundikeri barik entzuten daki.

Abadeai begira, aitamen bereizia egin bear dautset Jesus Arrien eta Txomin Agirre'ri, Ezkontzako oikunean esaten dan lez:Zintzoak gma sarritan alkar teeko, alaitasunean eta goibeltasunean, os;^un eta gaiso-aldietan. Jatordu-osteko alkar-izketak interesgarriak izaten dira eta sinismen eta artzain-lan-arloan oso sakonak be bai.

Nire berebilla gure aJkar-izketean autor-lekua da, beti egokiro eta alai berba egiteko. Obeto esateko ia beti, ze batzutan anai-giroan abotsa sendotzen be ba-dakigu geure egoerak aldeztu bear doguzanean. Ez da iñoz odola enrekara eltzen. Gure adiskidetasun aundi ta apurtu.ezifiaren eguztiak eta aireak dana biguntzen dau ekaitza agiri danean.

ZIRIKALDIA ETA ESKERRAK EMOTEA

Orri oneik idaztea aurrera doalako, batzutan idatzi dodan dana saski-otzarara botateko zirikaidia zomatzen dot. Ez naz sentitzen neure buruagaz bakean orri oneik euskeraz idatzi ez dodazelako, berau dalako nik gogoan daroadan eta pentsaten dodan

izkuntza, otoitz egiteko eta al dodanik geien berba egiteko erabilten dodana. Baiña ezin ukatu, ori egiten asi ba- nintzan nire eroapenak ez eusten lagunduko onaiño eltzeke.

Espetxetik urten eta Ea´ra eldu nintzaneko jazokizun baten bizi-ikasi garratz bat daukat. Persona atsegia dan ikastolako andereñoak laguntza eskatu eustan erriko jaietako egitaraua euskeraz idazteko, lenago egoan erderazko idazketaren oitorea alboratzeko. Pozik egin neban lan ori. Ille batzuk geroago aldizkari baten agertu zan Kintana eritxon batek izenpetutako azalpen bat.

Bera agertzen zan euskerearen arau guztien jabe bakar lez. Kintana orrek nasai egin eban berba Ea´ko jaietako egitarauan agertzen zan euskerea baragarri izten ebala. Eta ez bakarrik egitaraua baragarri itzi, Ea´ko abadearen eta lagun izan eban andereñoaren euskerearen aurka iñoan, gramatika iraindu egiten ebala.

Iruntsi egin bear izan neban, giro txarrekoa zan eritxi au. Jaietako eratzailleen taldekide batzukaz aitatu neban arazoa. Guztiak uste eben Kintana orren azalpena ez zala onartzekoa. Baiña iñor ez zan ausartu izkuntzalari euskaldun orreri kartaz erantzuten. Izan be, Kintana jakitunaren eritxia ingurukoen eta eleiztarren aurrean katedratik egiten dan berbea zan. Onartzen dot jaun ori ez zala konturatu aitatzen eban abadea egoera larri batetik etorri barria zala, eta bere gogo on eta guzti laguntza emon nai izan ebala al eban neurrian, Ea´n jaietako egitaraua euskeraz agertu daiten.

Adibide errez bat ipiñiko dot gure izkuntzak aldaketa asko daukala agertzeko. Ea gaurko nire erriak ainbat eratara agertzen dau bere izena:

Ea.....San Juan parroikiko seilluan

Hea.....Jesus´en Andra Mari Parrokiko seilluan

IA.....Erri-abestietan

IE.....Alkar-izketa nasaian

IGE.....be bai

Ez nator batera, bide lez, toki guztietan batera erabilteko arauaren alde

Zauritu egiten nau dana bateratu-gureak, batez be besteak izekatzeko eta baragarri izteko erabilten danean. Gurari arro orrek euki leikez ondorenak , edo ez. Jakia da iraiña ez datorrela nai daunagandik, al daunagandik baiño.

Zirikaldi z^galtzaille ori alboratu-ondoreri, eskerrak emon bear dauteadaz Feli Alonso teologilari laikoa ta edestilaria danari, GOMUTA BIZIAK onein aurkezpena egin daualako eta, irakasle-eskuagaz, nik eskuz eta arin idatdtako edestiak idatzi eta idazkin baten bidez batu dauzaldco, gure aldi paninformatiko onetan eskatzen dan lez..

Gomuta oneik bide dirala, bion artean adiskidetasuna ona ta bizia sortu da Eskerrik asko, Feli.

(PIES) NINOR NAZEN?

KRISTIÑAU BAT ABADETZARAKO ORDENATUA ETA EUSKALDUN BAT,
BESTERIKEZ.

BESTE GUZTIA, NINAZEN DANA,
GEIGARRIBAT DA NITZAT.

BERROGETA LAU

ARTZAIN-LANERAKO NIRE LAGUNTZAILLEAK

Aurreko orrialdeetan esanda daroat, artzain-lanean lau parrokiaren ardurea daukadala. Orain lerro batzuk eskifiko dautsedaz parroki bakoitxean daukadazan laguntzailleai.

Ea'ko parroki bietan:

MARIA AGUSTINA:

Beti izan dot ezelako baldintza barik MARIA AGUSTINA k emon daustan laguntza. Adiskide-giroan "laguna" ta "sakristanea" esaten dautsoe. Andra serbitzaillea eta presta da naizta bere urteak aurrera joan eta astun biurtu. Nitzat sarritan jenteagazko artu-emonetarako bitartekari bat izaten da. Beragana joaten dira ezkontza bat gertatzeko ametsa dagoanean edo bateo bat naiz urteagarreneko meza bat eskatu bear danean. Berak zentzun aundiagaz olako gauzetan abadeagaz berba egin bear dabela esaten dautse eta nigaz artu-emonetara ekarten dauz. Pozgarri jat alkar-izketara sartzeko bide au, zeia dalako eta niri ondo artzeko barretxua sortzen daustalako.. Aspaldi dala esan neutsan omenaldi bat egin bear dautsagula. Ezetz esan eban, orrek ekarriko leuskion barruko berotasunak gaitzezka egingo ebala beragan-eta.

Erriak parrokoari omenaldia gertatu eutsonean, ardura aundia artu neban onentzako be zeozertxu egon daiten: Lora txorta bat eta Ea'ko kristifau alkartearen txaloak naikoa izan ziran gure esker ona agertzeko.

Nabxitu'ko parrokian

Ardura aundia dago eleizea garbitzeko eta apaintzeko. Urte-barruan, eta batez be jaietan, ikustekoa da zelako ardurea artzen daben andrak euren eskintza beroagaz. Geroago eta geiago datoz eleizan liturji-laguntzetan ekiteko.

Bedarona'ko parrokian

Andrak txandaka egiten dabe astero eleizearen garbikuntza.

Aitamen bereizia bear dabe parroki onetan monagilloak. Umeak ba-dakie lenengo jaunartzea egin eta urrengo astean aurrekoak ordeztu bear dabezela "altarea serbitzean". Dauken adifia daukelako eta aundi egin diralako, aurrekoak eurak esaten dautsoe abadeari "aundiegiak dirala altararako eta orregaitik, lagun lez, agur egiten

datozela .Zeregifia bete ondoren Altarea serbitzeko lan ori euren antzeko beste batzui igaroten dautse

Laguntea au beti emon dabe umeak. Aldi baten gitxi ziran mutikoak eta neskatxuak eskiñi ziran lana egiteko. Baifia denporea aurrera joiala, monagillak sakrstira etorri jatezan parkamena eskatzen lez, eta esan eusten eurak be aundi egin dirala, eta altarean aurrean goregi geratzen dirala, Bedarona'ko monagillo^ aundi egiten dira baifia abadea altarearen oiñetan urtean milimetro batzuk txikiagoa da. 2002n. urte onetan iru monagillo daukadaz ,zurak eta biziak.

Bedarona'ko parrokian zaindaria Pedro Apostolua izm arren,Loiola'ko San Ignazio'ren irudi bat aitatu bear dot, santu euskaldun onen irudi txikiak berezitasun bat daukalako.

Santu oneri begiratu eta begiratu, Bedarona'ra niñoain bakoitxean pentsaten neban eleizan egoan giro otz eta ezoagaitik, ulerik ez eukalako, otza ez ete eukan., itxas-ertzean be ba-egoan- eta..

San Pedro Aita Santuaren txotoagaz ikusten neban bere jesarlekuan, eta San Blas ondoan goteaiflaren mitrea buruan ebala, biak buruak ondo estalduta.

Orduan,gure santuaren burua be, katarrorik artu ez dagian, txapeldun biurteea erabagi neban Eta non aurkitu txapel ain txikia sanUi onen bururako? Ume jaio-barri baten neurrikoa izan bearko eban.Ori pentsau eta pentsau San Mames'eko katedralera eldu nintean eta an, gomutakien dendan, txapeltxu balte bat erosi neban Bedaruko Ignazio Santu^enteat

Erdi.ugarte onetako altara guztietan agiri ziran San Ignazio'ren irudi^ bateen eabilteazan josulagun bi etori ziran eta esan eusten Euskadi osoan San Ignazio au zala

bakarra orrelan agertzen zana. Zine notin ospetsuai baiño argazki geiago atera eutsoezan.

Urteak aurrera, "nire burutasuna*" eleiztarren gauzea izatera eldu da eta ifior ez da lotsatuten tsg^elaren bumbide ori eurek asmatua izan dala esaten. Baifia ez. Irakurle eroapentsuak parkatzen ba'daust nire arrokeritxua, esan bearrekoa da neuk bakarrik asmau nebala ori, Izan be, santu euskaldun bat txapel barik, ez da gitxiago santua, baifia ondo jatorko bere ulebako bunia estaltzeko.

Gaur San Ignazio bere ulebakotasuna beragandu ez dauan ezkerro, biziak bakarri agintzen daben munduan gagoz-eta, dei egiten dausat San Ignazio'ri :Kru-giroan aurpegiz berba egiteko, eta uste dot batera etorriko garala, gaur txapel bat bitarte dala, santuen naiz diabmen artean ain gatxa dan alkartasuna lortzeko.

Orriaren goiera onetan, irakurle niaitea, onartu egistazun eleizako berbak artuta maitasim au agertzea. Bai?

Mezea ospateeko jazkiak jazten nengoala, altara urten baifto amar minutu lenago, sakristian alkar-izketa gozo eta txerateua euki neban monagilloetariko bategaz. Beste eritxi batekoa danarentzat itzaltasun aundiagaz, nik ez dot bear izaten altarara urteteko gertakuntza bereizirik. Altarara bizitzea bem eroaten alegintzen naz, jazoera eta kontakizun guztiakaz eta dma otoitz biurtu gura dt, naizte noizean bein gogorapen batmk mezea ospatzen nagoala, barretxua ekarten dausten. Alegintzen naz al dodan eran ezkututzen. Au d^ia, batzutan aldrebesko pentzakerak be etorten dirala... oneik be azkeneai otoitz biurtzen dira. Eta ez uste izan ingarren mezea jarraian esan bear dodanean bear dan bestean neure barraan batuta egotea erreza izaten danik.

Esan dodan iez, monagilloagaz izan neban alkar-izketa zeatz agertzen aleginduko naz.

IKER, 10 urteko monagilloa

Iker: Gaur domekea da eta etxean bildotsa daukagu jateko. Aitak ba-daki ondo prestetan eta etxeko guztiak batzen gara.

P.B. Mutikoak espanak miazkatzen ebazala ikusi neban ori azaltzen egoan artean eta bere aurpegian aingeruzko poza agiri zan. Jazten nengoala esan neutsan:

Zeuk be aitari lagundiko dautsazu laban bildotsa gertazen, ez da?

Iker.: Bai. Nik ensaladea prestetan dot eta lenengoa izaten naz maian jesarten.

Geiago barik, urten neban mezea egitera.

Urrengo domekan be, egun aretako bazkaria aitatu eban.

Iker.: Gaur ez daukagu bildotsik, baiña aitak uso batzuk eizatu dauz eta oneik be gozo egoten dira...

P.B. Domekarako umearen janarien zerrendeari jarraituz, itaundu neutsfli ia berak usoai tirorik botaten eutsen

Iker.: Aita etxean ez dagoanean, nik eskupetea erabili ezin dodan lez, bala txiki bateuk botaten dautsedaz daukadan txinbereagaz eta baten bat eskuratzen dodan ikusi...

P.B. Eta, zer? Punteri ona daukazu...?

Iker.: Baten bateri egoan emoten dautsadanean, berak ez daualako artu egiten dau, baiña ondo apareu ba'dot, taldetik alboratu egiten da eta ;^tiro-astiro, lurrera jausten da.

P.B. Eta zuk sartenerako artuko dozu!

Iker.: Uso emikarria s^iarteren baten galtzen da. LuMak etabatordeak jaten dabe gabeen etorten diranean.

Nire monagilloagaz izandako edesti polit au neure biotzaren gomutapene^ daroat. Gero aitaturko dot barriro

122

BERROI^tA BQ3T AZKENENGO PENTSALDIK

Mirfe biziteako oar onei azkena emon bear dautset eta ez dakit zelan.

Neure isilpeko txiki bat agertuko dautzuet zuei, une batzutan "etorriaren iturria" non aurkitzen dodan esateko. Ia egunero joaten n^ tabema edo jatetxeren batera bazkaltzeko. Etxean bazkaltzea erabagiten ba'dot, amabost minutu-ingiuru bear izaten dodaz.dana egiteko. Amar minutuain gertatu eta iñoz jateko moduko zeozer egiten dot eta bost minutuan iruntzi.

Nire amn aundia da " mens sana in corpore sano" (gogo osasuntsiia gorputz osasunteu baten) eta orrelan ulertzen dot, osasunerako bide lez, ondo jatortela noizean bein etxetik kanpora jateko joatea. Jan-ostean, alan bearrez, beti bakarrik, oar batzuk idazten asten naz eta mai-gaiñean neugaz daukadmi izpirrangimi ipinten dodaz idatzita.

Eta azkeiengo oar oneik, neure bazkal-oste bereizian artuak, auxe diño gitxi gdrabera;;

Gorputzez:

Nire inirogeta zazpi nrteetarako apur bat zaurituta nago. Ondo ibilteko osagaiak edo partxeak artu bear izaten dodaz. Ez naz ibilten erostaka eta ez jenteari neure miftak agertzei be. Isillean iruntziten dodaz. Egia esan, neure gorputzeko gatxai neuk ezarten dautsedan isiltasunak ez nau nasaitzen, alderantziz baiño. Nire etxeko orma otzak dira nire isilleko erosten lekuko, baiña ikusle itsuak eta gorrak dira Gor lez aurrean egote orrek illerriko isiltasunaren anlza dauko.

Irakurten edo eres klasikua entzuten asten naz eta nire lau parroketako artzain-lanak izten daustenean eleiza oneitatik San Mames'ko Katedral Nagusira egiten dot jauzi.

Eta aritik apur bat urten eta arintasuna ta urdaia nastatuz...nik bai gura neuke Bizkai'ko gure Eleizbarrutiak abadeteara deituen arrobi bat euki dagialajEthletic'en leoikunieen guitzeko arrobi bat.Oneik urte batzuk egin gertatzen eta uluka ta dmia zapaltzen doazen leioen anlzekoak izaten dira.

Gogoz:

Neure jokerea da besteen utsak eta nekeak neure gogora ekartea. Jokera onen ondorenak nire biotzera eltzen dira eta batzutan larregi zabaldu be bai.

Nire sinismena:

Nire bizitzearen aldi batzutan izan dodaz neure zalantz^ eta goraberak. Baiña beti zomau dot BATEN BATEN amas-indarra niri bizira bultz egiteko. Apaltasunez eta egiz esan bear dot nik fede itsua daukadala Zeruko nire Aitaren erruki mmdian.

San Paulo'ri bere lekua itziaz, zelan ez, ez nator beragaz batera Timoteo'ri egindako gutunean au difioanean:Timoteo adiskide,fedea zañitzen alegindu naz...eta

nireurteakazkenerantzadoaz...usteaosoadaukatEPAIKARI ZUZENAK emongo daustala zintzo jakozan guztiai gertatzen dauteen koroia.

Nitzat, Epaikari baiflo lenago Aita da, eta seme ondatzaillearen edo Errukiaren parabola daukat kontuan, ortxe agertzen dausku Jesus'ek berak Zeruko Jaungoikoa zelakoa dan. Parabola'ko aita egunero dago seme galduaren etorrerea itxaroten. Ikusten dauanean, bere billa urteten dau etxetik.Besarkatu egiten dau, mosua emon, eta jai aundi bat egin.

Bizitzearen jofflean guztiok izaten gara apur bat aitak, ^u r bat semerik zarren zintzoak eta apur bat seme txikiak. Aita Jaungoikoak batorik dauka parabolan jokabide beti bardifia.

Eta jokabide au ez da ezelan be epaikari-epaikariarena.

Bein baifio sarriago seme ondatzaillea izan nazela jakifiik, zera goiko makobillakaz batera ibiltzen alegintzen naz.

Eta Patci seme ondatzaillea besarkatzen dauan Jaungoiko on orren beso zabalelan ezarlen dot neure uste osoa.

Monagilloagaz izan neban alkar-izketea gogoratuz

neure burua ego igortziakaz blitzan egaz egitea nai dauan egaztiaren edo usoaren antzekoa ikusten dot.

Aizeteak eta ekaitzak ain indartus^ eta bultzagilleak izan dira ze, '*naikoa izango ziran "Pedro'ren katedra'ri" dardar eragilteko.

Beti alegindu naz biriak beterik dodazela egaz egiten "aizearen eta itxas-goraberen aurka". Baiña guzurra esango neuke sekulako egoera onean nagola esango ba'neu. Ez,ez da ori orrelan. Batzutan "Ezkatuko eiztariak" nire ego biak edo bata zauritu egin dabez. Fedearen egoak jarraian barriztatzeko alegifia egiten dot, bai lurrean nagonean eta bai egaz noanean. Norberaren alegiñaren egoa ...ai,ori beste gauza bat da. Ez nago "goietan egaz ibilteko", baifia ez noa lur-gaifiean egaz be. Erdi-maillako alturan eusten dausat nire egazkadeari.

Ifioz ez dot ulertu zer esan nai dauan, berak bere bizitzan "larri-unerik" ez dauala izan esaten daustan abade sekularizatu batet esan daustana. Olan ba'ba da, gora Jainkoa, baifia ori ez da nire kasua.

Ez dakit ondo datorren, baiña ez noa idatzi barik izten, aldizkari baten zati arrunt batek diftoana. Esaldi gitxi oneitan agertzen da nire bizitzako berrogeta iru urtean bere artegia otseindu dodan Aita-Jaiiikoagan fedea eukitea zer dan. Bera da ondoen ezagutzen nauena eta nire une onetan naiz txarretan nazen lakoa artzen nauena. Bere ontasun neurri bakoan babesten naz eta otoitz onen berba bakoitxean daukat nire uste ona:

" Neure Jainkoa, zer esango daustazu zum aurrera noanean eta aurpegiz-aurpegi ikusten zaitudanean?

Zuk esango daustazu:AURRERASEME, ELDU ZARA.

Ni mutu gei^tuko naz, neure zuriketea gertetu^ neukalako.

Zuk eskutik artu eta zure eteea erakutsiko daustazu. NIRE ETXEA.

Nire utsak aitzuta geratuko dira betiko.

Eta orduan asiko naz ulertzen,bene^n maite nozua.

Iñoz maifatua izango nintzala uste izan ez neban bestean

Zer ekarrilko ete dau geratzen Jatan bizltzearen zatlak?

Urte asko dira ni "seminarioko bizikerea"gaz bizi nazela. Espetxeko bakartadea be zomau dot Nire bizitza osoan,bakaitadea izan dot lagun zintzo.

Ez dot alboratzen abadeentzat dan egoitz baten edozelako laguntza An gitxienekoak diran laguntzak artuko dodaz: Jana, garbikuzia, ogea, eta beste lagun batzukaz izango dodan gogo-bizitza babestua eta ziur etorriko *dkm* une lairietan babesa ta laguntza.

Auxe da nik neure urreko senideai eta Ea 'ko guztiai agertu dautsed^ eta gaur daukadan azkeii-naia:

Jaungoiko Aitaren besarkadea artzeko sasoia datorrenean, nagon lekuan nagoala, Ea'n egin daistela erle|iño-giroko ospakizun arrunt bat Nire gorpua auts biurtu dagiela eta autsa banatu Lagun Etxea'ko lurretan, blzl nazen eta orri oneik idazten nagoan lekutik ogei metrom.

ETA AU DA NIREITAUNA: Zerlarako idatzi efe dot nik au?

Onegaz iñori onik egin ba'dautsa^ ni pozlk.

Eta iñor iraindu ba'dot, biotzez imrkezke nago, nik nai nebana ez zan orl.

OSTEKO OARRA ETA AZKENENGO TAKADEA

Setatsua eta alatzaillea izateko arriskuagaz be, barriro esan gura dot

MI |

Nik idalzi dodaz neura GOMUTA BIZIAK, NIRE GOMUTAKIAK...

Nire gogoaz zazpi liburutan idaztekoa izan balitz be, lortuko nebala uste dot, izan be nire idaz-maian, aldi areitan Bilbao'n ziran egunkarietatik artuta^ albiste asko daukadaz, eskerrak asko maite dodan notin bateri.

Egunkari orreitan irakurten dodan dana, neugan aragi eta odol biurtufca dago. Feli eskifii jatan egunkarietan agertzen ziran albiste guztiak batzeko eta auxe iñostan:

Patxi, nik aldi aretako amarkadan ainbeste albiste ikusita, alegin aundia egin bear dot auxe ondo jakinda: Nire begiak ezin dabezela irakurri zureak irakurten dabezan era bardifian. Eta nik albiste utsak ikusten dodazan lekuan zuk odola ta aragia ikusten dozuz. Qrduan, nik irakurten dodana itzaltasun aundiz irakurten dot eta arako San Agustin'eii berba areik datordaz gogora:

Negar-arpuluak, gogoaren odola dira.

Eta besterik ez. Iñor nigaz batera ez ba'dator edo esan dodanagaz batera ez ba'letor... Zabala da Gartela! Asi daitela lanean eta idatzi dagizala bere eritxiko gauzak, gure ondorengoak ezagutu dagiezan.

NIRE ONEIK, NEUREAK DIRA. AMEN.

BESARKADA BAT, ETA ESKARRIK ASKO.

Ea'n, 2002, linillean

PATXI BILBAO ATXIKALLENDE

(Bizkaia Eleizbarrutiko abadea) _____

...ONELAN IKUSTEN ZAITUGU...

Apentza artuz ,norbera egiten da arerioaren neurriko;
parkatu ezkerro, bera baifto aundiago agertzen da.
(F.Bacon)

Altzairuzko biotz biguna

Beste sustral batzutan gizatutsko sustraiak

Enborra bizi eta gordin

Adiskldeamn esku zuriak.

Erdi abade, erdl futbolari

Parkatul

Oso abade eta oso futbolari

Ego zaurldun uso zauritu larria

Arrano sendo-garbi menperabi-eziña

Kamilo'ren semerik gazteena.

Jainko Alte eskuzabalaren seme txikia dala diño,

Erri oso baten barruan Semea danaren anaia.

Espetxeratutako min guztitan Paulo'mn antzekoa

zabaltasunai^n eieille,

duintasunaren oiñarri,

bildurti baiña aunditsu.

Bere isillasunen lagun

Irakasleai^n Irakasle

Oiñetan Ikasie Izan ginduzan aren ikasle

Eskerrik asko, Patxi

Eskerrik asko, zu "olakoxea naz" zaralako

(PIES) JAUNGOIKOAK EA

EGIN EBANEAN

EZINUKATU

ALEGINDU EGIN ZALA

BERROGETA SEI IDAZPURUAK	
EZKINTZA.....	1
AURKEZPENA.....	1
PATXI BILBAO´REN EBANJELIO-JANARIA.....	4
EGUNERIK EGUNERAKO AURKIBIDEA.....	4
LERRO ONEIK ZERGAITIK.....	8
ETXEKOAK.....	9
BARATZEKO PATXI´REN OKERKERITXUAK.....	13
GORDEXOLA´KO SEMINARIO´RA: 1947.....	16
GAZTELU-ELEXABEITI´KO SEMINARIOAN. 1948.....	17
DANA LABUR-LABUR.....	18
GASTEIZ´KO SEMINARIOA: 1952.....	19
DERIO´KO SEMINARIO´RA 1956.....	20
UDAN AZKENENGO OPORRALDIAK.....	21
ABADEGINTZA(1959).....	23
LENENGO ARTZAIN LEKUA, MEÑAKA 1959-07-13.....	24
AMAREN ERIOTZEA : NIRE BARRUA UTZITUTA.....	26
339 ABADE EUSKALDUNEN AGIRIA (1960-05-30).....	27
BERBALDI BAT ETA... BA-DATOR NIRE BIDE LARRIA (Odisea)....	29
MEÑAKA TA NIRE BIDE LARRIA (ODISEA).....	31
1967N. URTEKO EGUEN GURENA, MEÑAKA´N.....	31
GORPUZTI EGUNA.MAIATZAREN 25N. EGUNEAN.....	31

SAN ROKE JAIA:AGUSTUAREN 16N. EGUNEAN.....	32
BERBALDIA TA UDAL-BATZAREN SALAKUNTZA.....	33
SALATUA IZAN DAN BERBALDIAREN IDAZKIA.-MEÑAKA 3-12-1967	34
ABENDUKO I IGANDEA.-MEÑAKA´N 1967-12-03.....	34
SALAKUNTZAREN ONDORENAK:1968.....	35
MADRID´EN EPAIKUNDEA:1969.....	38
EPAIA.....	38
KOPIAKIÑA : ESPETXERA BIDEAN.....	42
EPAIKARIAREN AURRERA IRUGARREN DEIA.....	43
BASAURI´KO ESPETXERA ELTZEN	45
IÑOGAZ ARTU-EMONIK BARIK IRU EGUN.....	45
BASAURI´KO ESPETXEKO IKASI BANAKA BATZUK.....	49
SOLAUN.....	51
IGESA. 1969 - ABEND12.....	52
ESPETXERIK ESPETXERA.... ETA ZAMORA´RA.....	55
ZAMORA´KO ESPETXEAN.....	55
ABADE EUSKALDUNAK.....	55
FRAILLE EUSKALDUNAK.....	56
EUSKALDUN EZ ZIRAN ABADEAK.....	56
ZAMORA´N ESPETXERATUTA EGONDAKO BATEN GOMUTAKIAK.....	57
KANPOKOAKAZ ARTU-EMONAK.....	60
NI BURGOS´EN MILITARRAK EPAITUA (1970-07-07).....	61
ZAMORA´KO ESPETXEAN ZULOA EGITEKO ASMOA.....	62

ZULOA AURKITU EUSKUEN.....	65
EGUN IZENDATUA : 1971-IRAILLAK-13.....	67
ESPETXE BATEN BESTE ESPETXE BAT.....	69
ZAMORA'KO ESPETXETIK URTEEREA (1971-11-17).....	71
GIRO EZBARDIÑETAN ZELAN ARTU NINDUEN.....	73
NEURE BARRUKO ZAURIA ADRENALINAZ AGERTZEN.....	73
ZORIONEKO ALKAR AURKITZEAK.....	74
NIRE ARTZAIN-BARRIA BER-AURKITZEN.....	75
AZIA BIOTZEAN EREITEN DANEAN.....	76
ARTZAIN-LANAREN AURREKO IKUSTALDIA EA'RA.....	79
NEU BARRIRO BAKETZEAREN SAKRAMENTUAREN AURREAN.....	78
AUTOR-LEKUKO GOMUTAKIAK.....	80
EA NIRE BIGARREN ARTZAIN-LAN IZENDAPENA.....	82
ETA ASKOK EGIN EUSTEN LEKUA EUREN BIOTZEAN.....	82
NIGAITIK TXARRA IRAGARTEN EBEN PROFETAK.....	83
ILBURUAN EGOAN DIKTADUREAREN AZKEN-OSTIKADAK.....	84
PARROKI BIEN AMETS UTSA.....	86
EA'KO OITUREN MARGOZKIAK.....	86
EUSKERE TA ERDEREA.....	87
ERTZEKO ESKUINDARREN ZUZIA BARRIRO ERASOTEN.....	87
1975N.URTEAN ITXAROTEN ETA LARRI.....	89
1975N. URTEKO ZEMENDIAREN 20N. EGUNA.....	89
UDABARRI-GIROKO UDAGOIENA.....	89

BERE ERIOTZEA DALA-TA IZAN DIRAN ERANTZUN BATZUK.....	89
ESPAÑATARROK FRANCO IL DAI.....	89
BEDARONA NIRE ARTZAIN-LANERAKO BEGIEN AURREAN.....	89
1981N. URTEKO ZEZEILLAREN 23N. EGUNEKO MATXINADA.....	90
NIRE OSASUNA MAKAL.....	91
EGUN AREITAKO ALBISTEAK EA'N.....	91
KARTA ARRIGARRIA: 1988.....	92
"ARNASAKO ALKALOSIS ESTRESS EGOERAN".....	94
ERREFERENDUM TXIKI BAT.....	95
GOTZAIÑAGAZ BATZARRA.....	96

KUBA'KO NIRE OSABA-IZEKOAK.....	96
FIDEL KASTRO'REN KUBA'RA: 1993.....	99
TXANGOLARI-BEGIEKAZ KUBA IKUSTEN.....	102
ERRIKO ABADE BATEN ZEREGIN BEREIZIAK.....	106
ERRI BAT BERE PARROKOARI OMENALDIAN ERRUKIDE.....	107
MARTZELIÑA, NIRE ARREBEA, NIRE BIGARREN EMA.....	113
DANA DALA, ITXAROPENA.....	112
LAGUN ETXEA EGOITZARI BURUZ URDURITASUNA.....	114
ELEIZ-ARDURADUNAKAZ ETA ABADEAKAZ NIRE ARTU-EMONAK.....	116
ZIRIKALDIAK TA ESKERRAK EMOTEAK.....	116
ARTZAIN-LANERAKO NIRE LAGUNTZAILLEAK.....	116
AZKENENGO PENTSALDIAK.....	121
OSTEKO OARRA ETA AZKENENGO TAKADEA.....	125
...ONELAN IKUSTEN ZAITUGU... ..	126
IDAZPURUAK.....	127